



PATXI

ALTUNA

Josune Etxeberria

A stylized, handwritten signature logo in blue ink, resembling the letters 'J' and 'E'.



Josune Etxeberria

Azpeitiarra da (1975) eta bertan bizi da. Euskal Filologiako ikasketak eginak ditu, eta Patxi Altunaren beraren ikaslea izan zen, EUTGn. Gaur egun irakaslea da, Azpeitian, Iraurgi Ikastetxean.

Patxi Altunari buruzko hau du bere aurreneko liburua.

uzfarria

PATXI ALTUNA

Nolanahi ere,
maisu

Josune Etxeberria

uztarria



AZPEITIKO KULTUR KOORDINADORA

© Egilea: Josune Etxeberria Tellabide

© Uztarría Kultur Koordinadora

2003ko otsaila

Azala: Iñaki Uranga Rekejo

I.S.B.N.: 84-607-6723-X

Lege gordailua: SS-0113/03

Inprimaketa: Antza S.A.L. • Lasarte-Oria

Uztarría: Julian Elorza 4, 2. ezkerre. Azpeitia (Gipuzkoa), 20730

Posta kutxa: 227, Azpeitia

Telefono zenbakia: 943 - 15 03 58

Fax zenbakia: 943 - 15 03 58

Posta elektronikoa: uztarría@topagunea.com

1. *Patxiren haurtzaroa herrian* (1927–1939)

Francisco María Altuna Bengoetxea, Azpeitian jaio zen, 1927ko irailaren 8an. Francisco María izenaz bataiatu bazuten ere, Patxi izenaz ezagunagoa da. Etxekoentzat, berriz, Patxiko, eta ama zena-entzat Patxiko Mari.

Patxiren gurasoak, Joaquín eta Benantzia, 1926ko irailaren 20an ezkondu eta Enparan kaleko Don Galoren etxea izenaz ezagutzen zen hartan jarri ziren bizitzen. Patxiren aita etxegilea —kontra-tista— eta arotza zen, eta ama etxekoandrea. Ez-konduta urtebete eskas zeramatela eduki zuten lehenengo semea: Patxi bera. Laster etorri zen bigar-reen anaiatxoa ere: Inazito. Inazito jaio eta gutxira Enparan kaleko beste etxe batera aldatu ziren. Etxe honetan jaio zen hirugarren anaia: Sebastian. Baina ez ziren luze bizi izan Enparan kalean; Sebastianek

hamabost egun zituela Plaza Txikiko Kanpaxkora aldatu ziren eta.

Zoritxarrez, Inazito, bi urte eta erdi zituela meningitisak jota hil zen, Kanpaxkora bizitzera joan baino hamar bat egun lehenago, hain zuzen. Inazitoren heriotza oso berri zutela aldatu ziren, beraz, Kanpaxkora. Bertan aitona Patxik etxea erosi baitzuen. Aitona, Patxi *Kanpaxa* goitzenaz zen ezaguna, eta honek eman zion izena bai etxeari baita sendiari ere.

Kanpaxko etxearen lehenengo pisuan Patxiren gurasoak jarri ziren bizitzen eta bigarrengoan aitonamonak eta izeba Gregori. Etxearen behealdean denda jarri zuen izeba Gregorik. Denda honetan, Patxiren amak makina bat ordu eman zituen Gregoriri laguntzen, asteartetan, azoka egunetan batik bat.

Kanpaxkoan jaio ziren, hortaz, Patxiren anaia-arreba gazteenak: Javier, Maria Carmen eta Manuel, hurrenez hurren.

Eskola garaia

Hiru urte bete orduko gurasoek eskolara bidali zuten Patxi, orduan Enparan kalean zegoen Jesuitinen eskolara, *Parvulos* zeritzana ikastera. Bertan, ikasketa hauek amaitu arte, zazpi urte arte, izan zituen eskolak.

Eskolan makina bat bihurrikeria egiten zituzten oso laguna zuen *Mayayo* (Maria Dolores) Orbegozok eta biek. Askotan elkarrekin haserretuta ere ibiltzen ziren, zein baino zein bihurriagoak zirelako.



Ezkerreko argazkian, Patxiren etxeokak. Ezkerretik eskuinera Patxi, izeba Gregori, aita Joaquín, maqalean Mari Carmen, Javier Manuel, ama Benantzia eta Sebastian. Eskuineko argazkian, Kanpaxko etxea, Azpetiko Plaza Txiki aldetik ikusita, orain urte batzuk bota aurretik. / **PATXI ALTUNA**

Oraindik ere, Patxik Mayayori merienda lapurtzea egozten dio.

Jesuitinatan irakurtzen eta idazten ikasi zuten. Patxik, arrotza ez zuen gaztelania ere ikasi zuen bertan. “Izan ere, etxean euskaraz egiten bagenuen ere, gure gurasoek bazekiten gaztelaniaz, eta Urretxuko lehengusuak-eta etortzen zirenean gaztelaniaz egiten zen”, dio Patxik.

Eskolatik ateratakoan, anaiekin ere izaten zuen bihurrikerietarako astirik. Esaterako, anaia Sabino Otañok gogoan du nola aritzen ziren haiek: “Hauen amak Santo Jobek adinako pazientzia zuen, bukatzen ez zen pazientzia semeekin, eta Patxi zaharrena eta txarrena zen. Behin batean, Azpetiko Plazan, arkupetan, teila-ertzeko hodia zulatuta zegoenez, ura erortzen zen. Eta hauek, bi anaia Sebastian eta Patxi, azpian jarri eta gustura blai eginda joan ziren etxera; goizean aingeruen moduan etxetik irten eta


lokatz eginda bueltatu, eta amak, hala ere, gozogo-
gozo hartzen zituen”.

Eskolaurrea Jesuitinatan amaitu ondoren, zazpi urterekin Maristetara pasatu zen. Maristek eskola Plaza Nagusian zuten, Azoka Plazaren ondoan zubiaren gain-gainean. Maristek izen handia zuten orduan, irakasle onak zituzten fama, eta horregatik arrakasta handia eduki zuten garai batean. Bertan hamabi urte arte ikasi zuen, *Primera Enseñanza* delakoa. Hemen marrazki lineala, marrazki adornua, aritmetika, historia-geografia, gramatika... izan zituen ikasgai.

Patxik etxean oso ume bihurriaren fama bazuen ere, Maristetan berekin ibili ziren Rafael Zelaia eta Asentsio Zubillagak besterik diote. Asentsio Zubillaga: “Ume bizia zen, baina oso pertsona ona, moralitate handikoa”. Rafael Zelaia: “Bihurria baino gehiago, azkarra zen, espabilatua, dena zekien. Jolas denboran-eta geratzen ez zena zen, lasterkaneta azkarra, gogorra”.

Tirtirin bat zen, beraz, Patxi Altuna, geldirik egoten ez zekiena. Hori dela eta, irakasle batek *Txorlito* ezizena ipini zion. “Patxik beti berriketan jarduten zuen aurrekoarekin, atzekoarekin, albokoarekin —dio Rafael Zelaiak—. Horregatik egun batean, marista batek esan zion: ‘*De aquí en adelante te vamos a llamar Txorlito*’. Eta halaxe deitu izan zion Maristetan ikasi zuen urte haietan”.

Bazuten Maristetan ikasleei gaiak ikasgarazteko *Batalla* izeneko halako jolas-lehiaketa moduko bat. Jolas honetan ikasleak bi taldetan banatzen ziren eta talde bateko kideek ahal zituzten galdera zaile-



nak pentsatu eta beste taldeko kideren bati galde-tzen zioten esanez *Tiro a fulanito*, eta asmatzen ez bazuen, *Derrotado*.

Egun haietako batean ari zen Patxi etxean gal-dera zail-zaila pentsatzen eta amari galdetu zion: “Ama, nola esaten da euskaraz ‘*pan de plata*’? Eta amak: “Ez da esaten, baina esatekotan ‘zilarrezko ogia’ izan beharko luke”. Hala, joan zen Patxi hu-rrerengoa egunean eskolara eta *Batalla* delakoan gal-detu zion kontrako taldeko bati “¿*Cómo se dice en vasco ‘pan de plata’?*”, eta ikaskidea zer esan ez ze-kiela geratu zen; *Derrotado*, beraz, eta Patxiren tal-dearentzat izan zen puntu hura.

Eskolan lan franko egiten bazuten ere, noizean behin izaten zuten entretenimendurik. “Gelako leiho-tik zubian zein pasatzen zen ikusten zen, eta han egoten ginen denok adi-adi, neska eder bat noiz pasatuko”, dio Patxik.

Maristetako urte haietako oso oroitzapen onak ditu, batik bat maiatzekoa, Ama Birjinari eskaintzen zitzaion hartakoa. “Eskolatik ilaran San Agustinpera joaten ginen maiatzeko loreak egitera, Ama Birjinari otoitz egin eta abestera”, dio Patxik. Izan ere, oso barruan ukitu zioten Ama Birjinari eskaintako maiatzeko egun haiek.

Umetako jolasak

“Ahal nuen guztietan kalean ibiltzen nintzen. Eskolatik irten, sardina zaharra ogi pusketa batean sartu, hura jan eta ahal bezain azkar lagunengana kalera ateratzen nintzen”, kontatzen du Patxik. Kalean harrapaketan, zapoketan, mix-moxean —eskuekin jolasten zen beisbol moduko jolasa—, pilotan... ibiltzen ziren. Harrapaketan, zapoketan eta mix-moxean plazan ibiltzen ziren. Pilotan frontoian, baina bazuten frontoia baino leku gustukoagorik: parrokiaren atariko pareta eta Loiolako Basilikako atearen ezkerretara dagoen pareta, hain zuzen ere. Baina bi leku hauetan pilotan jolastea debekatuta zegoen. Eta hala zioten —eta diote oraindik— debekuok. Parrokian: ‘*Se prohíbe jugar a pelota bajo la multa de 2 pesetas*’. Eta Loiolan: ‘Hemen pelotan egitea eragozten da’.

“Parrokian jolasten ginenean, lagunetako bat zelatan egoten zen udaltzaina noiz etorriko. Orduan udaltzain buru zen *Metro* etortzen zitzaigun errieta ematera —*Metro* ezizena, gizon handia zelako zuten; gizon gogorra zen eta beldurra sartzen zuena— eta zelatan zegoenak *Metro* ikusitakoan ‘epe’ oihu



egiten zuen hiru bider; hori zen gure arrisku seinalea”, dio Patxik.

Loiolan pilotan jolastea ere oso maite zuten; hemen ere debekatuta egon, ordea, nahiz eta Loiolan udaltzainik ez ibili errieta emateko. “Egun haietako batean, pilotan jolasten ari ginela *hermanoren* batek sentitu gintuen. Atera eta alde egiteko esan zigun. Guk, ordea: ‘Bai, baina hor pilotan egiten erakusten dela jartzen du’, esan genion haren lepotik barre egiteko asmotan. Guk orduan ez genekien ‘eragozten’ek zer esan nahi zuen, baina ondo genekien han ezin genuela pilotan egin”, kontatzen du Patxik irribarrea ezpainenetan duela.

Pilotaz gain, oso gogokoa zuen Patxik futbolean jolastea. Baina orduan oso urri ziren baloiak, eta, beraz, nahi baino askoz gutxiagotan jolastu ziren

futbolean. Baloia zuten haietan, Eskuztan, egun gasolindegia den horretan, futbol zelaia edo behintzat futbolean jolasteko moduko zelaia zen, eta bertara joaten ziren herriko mutilak futbolean jolastera.

Kaleko jolas horiez gain, bazuten txoko bat jolas egiteko. Frontoi Txiki pilotalekuaren aurrean pixka bat parrokia alderago lehen okindegia zen, 'Panaderi berria' izenaz ezagutzen zena, eta honen gainean lehen pisuan Jesuitek lokala hartu zuten, umeentzat jolaslekua sortuz. Han elkartzen ziren herriko mutil-koskorak ping-pongean, kartetan... jolasteko. "Bertan jesuita bat egoten zen gu zaintzen. Zaintzen egon ziren jesuiten artean bazen bat, aita Laskibar, joateko ordua zenean 'jokoak batu' esaten zuena eta mutil-koskorrek barre egiten genion, guretzat hitz berria zelako 'batu'", dio Patxik.

Udan, berriz, bazuten beste jolasleku bat: Amuko aldapa. Bertara joaten ziren igeri egitera eta urak handiago ziren uneetan salto egiten ibiltzen ziren. "Baina ni ez nintzen inoiz salto egitera ausartu", aitortzen du Patxi Altunak. Udan ahal zutenak Zumaiara ere joaten ziren. Patxi gurasoekin igande batzuetan joaten zen, arratsalde-pasa.

Patxik eta bere lagunek egiten zituzten jolasez gain, oso gogokoa zuten herriko garai hartako pertsona famoso-zelebreei burla egitea; haietako batzuk ziren *Altxaporru*, *Hermoxo*, *Txipiron*, *Pete*, *Xebilla*, *Pontxo* eta Meliton. Pete hanka-motza zen eta makuluekin ibiltzen zen; Patxik eta bere lagunek orduan pasaeran 'eup, eup' oihukatzen zioten ondo kostatuta ematen zuen pausoarekin batera, eta gizona zeharo haserretzen zen.

Gerra Zibila Patxiren oroimenean

Patxi Azpeitian hamabi urte zituen arte bizi izan zen; hau da, 1939 arte. Beraz, Espainiako Gerra Zibila Azpeitian bizi izan zuen. Umea zen arren, gudako kontu latz eta orduan ulergaitz haiek ondo erroturik gelditu zitzaizkion oroimenean.

“1936an, gerra hasi eta pare bat hilabetera-edo sartu ziren tropak Azpeitian. Sartu aurreko egunetan mutil-koskorrak azoka azpian, Ibaiederrek bere muturra erakusten duen lekuan, aritu ginen zakuak hondarrez, lurrez eta harri koskorrez betetzen, San Agustinpea tapatzeko, bertarako parapetoak egiten, bonbardeoa izaten bazen ere”, oroitzen du Patxik. Asentsio Zubillagak, berriz, nazionalak Azpeitian sartu aurreko eguna du gogoan: “Hemen, udaletxean, Xiriako Agirre zegoen. Honek nazionalak sartu aurreko egunean, bandoa jo zuen, nahi zuen guztiak trena hartu eta Bilbora frontera joateko. Orduan, Azpeitia hustu bezala egin zen. Batzuk beldurtuta etxean eta beste guztiek frontera alde egin zuten”.

Nazionalak igande batean sartu ziren, 1936ko irailaren 20an, goizeko hamaikak eta laurden aldera. Patxi hamarretako mezetara joana zen. Elizkizuna amaituta, parrokitik atera orduko, tren geltoki aldean tiro hotsa entzun zuten eta parroki ondoko ba-xuetan, sakristiarako sarrera den atean barna ezkutatu ziren. “Tiroketa hartan *Kukubiltxo* hil zuten; sastraka artean-edo zarata entzun eta tiro egin zuten nazionalak, eta Enparangain baserriko hamabi urteko seme *Kukubiltxo* hil zuten”, dio Patxik.

Asentsio Zubillagak ere oso gogoan du egun

hura: “Hemen frontea Beasainen egon zen. Baina erreketek pixkanaka-pixkanaka posizioak hartzen ari ziren eta aurreratzen. Pentsatzen ez zutela, erreketek Bidania gaineraino iritsi ziren. Eta gero, Bidanitik hona, igande ditxoso hartan berehalaxe sartu ziren. Indar handia ekarri zuten, ondo preparatuta zeuden. Denak txapel gorriarekin eta tartean batzuk borla morearekin, haiek apaizak ziren; ‘*Viva Cristo Rey*’ deiadarka etorri ziren denak. Etorri eta egin zuten lehenengo lana Eusko Etxean, batzokian zeuden bi bandera, ikurrina eta emakume batzarena —bandera zuria bere asparekin— beheara bota eta su ematea izan zen. Horrez gain, dendak itxita utzita Bilbora joan ziren haiei, dendak errekisatu zizkieten. Gero, arratsalde hartan bertan, dozena erdi bat emakume, ‘poxpolin’ esaten zitzaien dantzari txikiei, ilea jo eta zero moztu zieten. Lotsatuta laga zituzten”.

Nazionalak Azpeitian sartu ziren egun hartaz gainera, gogoan ditu Patxi Altunak urte haietan Azpeititik ihes egindako hainbat eta hainbat, atxilotuta Bilbora eramán zituztenak, baina ezin ahaztu ditza ke frontetik hildakoak iristen ziren egun haiek: “Frontean hildakoak etortzen zirenean, hiletak udaletxepetik hasi eta parrokiraino joaten ziren, hileta eresiaren doinuan”.

Gerrek etxe gehienetan izaten dute hildakorik, atxilotutakorik, ihes egindakorik edota gosea nozitu duenik. Patxiren etxeok, hala ere, nahiko zorioneko izan ziren garai latz haietan. Gerrak berekin dakartzan beldurra, tristura eta halakoak bizi bazituzten ere, beraien aita ez zen frontera joan, oso begi

bista txarra baitzuen. “Baina, noizbait aitak egun batzuetarako ezkutatu egin behar izan zuen Beizama aldean, gorriek kartzelara eramango zuten beldurak. Gure familia karlista baitzen”, esaten du Patxik.

Gosea ere ez zen ezagutu Patxiren etxean. “Izan ere, gure etxean denda zenez, azukrea, ogia, babak, olioia eta horrelako gauzak saltzen ziren. Orduan etxean izateak alde handia egiten zuen. Guk etxean ez genuen goserik ezagutu”, aipatzen du Patxik. Baina azpeitiarrek oro har gose galantak pasatu zituzten, hala kontatzen du Asentsio Zubillagak: “Nik pasatu nituen goseak! Gastatu egin zen generoa, ez zegoen ezer eta ezin ekarri. Baserritarrei ere ahal zuten guztia kendu zieten, frontean zeuden soldaduei emateko. Niri ematen zidaten 80 gramo ogi, ez nuen-eta tailerrean lanik egiten. Beste batzuei ere ematen zieten, batzuei 120 gramo eta besteei 160, otarteko txiki bat egun guztirako”.

Nazionalek Azpeitia eta Azkoitia egun berean hartu zituzten, baina Elgoibarren geldituta egon ziren hilabete batzutan. Baina ahal izan zuten bezain laster postuak aurreratuz joan ziren.

1937ko apirilaren 24an, Patxi, aitarekin eta honen lagun Ezequielekin eta Xamakolarekin mendira, Elosu aldera joan zen. “Mendian genbiltzala hegazkinak pasatzen ikusi genituen Eibar aldera. Hegazkinak mendian bestaldean ezkutatu eta handik pixka batera egundoko bonbardaketa entzun genuen, burrunba izugarria eta sua mendi atzetik. Etxera etorri eta amari esan nion: ‘Ama, Eibar bonbardatzen ikusi dugu’”, dio Patxik. Handik bi egunera, 1937ko apirilaren 26an, nazionalek Eibar hartu

zuten; Gernika bonbardatu zuten egun berean, hain zuzen.

Oso etxe elizkoiko semea

Patxi Altunari bokazioa etxetik datorkio, oso elizkoiak baitziren bere gurasoak. Familian bertan ere osaba jesuita eta bi izeba moja Frantziskotar zituzten, eta hauek beti eredutzat izan zituzten.

Aitona Patxi ere oso gizon elizkoia zen, eta eramaten zuen Patxi mezetara. “Ume-umetan, aitonak batzuetan, abenduko Ama Birjinaren bederatziurrenean, parrokira eramaten ninduen. Eliza lepo egoten zen eta mutil-koskor eta neska-koskorak San Inazioaren aldarean txoko-txokoan koska gainean esertzen ginen, eta ez ginen geldirik eta isilik egoten. Gero, etxera joandakoan, aitonak atentzioa ematen zidan. Beste batzuetan, berriz, aulkian bere ondoan hartzen ninduenetan, etxera joan arte itxoin gabe bertan belarrondokoren bat jaso naiz”, oroitzen du Patxik.

“Belarrondoko ederrak” ematen bazizkion ere, oso maite zuen aitonak Patxi. Behin baino gehiagotan Patxik puskatutako kristalak gurasoen ezkutuan ordaintzen baitzituen. Hala dio, behintzat, bere arreba Mari Carmenek: “Baziren bi ahizpa urrestildar Azpeitira josten ikastera etortzen zirenak. Hauetako batek, Soterak, kontatzen zuen nola aitaita Kanpaxak esaten zion: ‘Sotera, joan hadi Gibertenera Patxikok puskatutako kristala ordaintzera, baina ez iezaian ezer esan gurasoei’”.

Etxeko giroaz gain, orduko Azpeitian ere erlijio-

ak indar handia zuen. Esaterako, eskola erlijiosotan izan zen Patxi ikasle. Eskolaz gain, jolastera ere jesuitek okindegi berri gainean zuten lokalera joaten zen sarritan. “Jolastoki hartan —dio Patxik— zaintzaile lanak egiten jarduten zen jesuitetako batek, aita Gordoak, aparte hartzen gintuen. Izan ere, aita Gordoak gazteen kongregazioaren buru izan zen eta bazuen joera gazteengana hurbiltzeko. Nik uste dut aita Gordoak izan zuela zerikusirik nire urtean Xabierera joan ziren ikasleak hara joatean. Berak nolabait erakarri gintuen”. Eskola eta jolastoki honez gain, kongregazioek ere indar handia zuten orduko Azpeitian.

Kongregazioak, hain zuzen, santuren bati debozioa erakusten zioten gazte taldeak ziren. Batetik nesken kongregazioa zegoen eta bestetik mutilenak. Mutilen kongregazioak bi ziren, eta batean haurrak biltzen ziren eta bestean gaztetxoagoak. Garai hartan indar handia zuten kongregazioek, eta hori zela-eta azpeitiar gazte gehientsuenak ziren horietako batean kide.

Patxi bera, Azpeitian hamabi urte arte bizi izan zenez, soilik kongregazio bateko kide izan zen: San Estanislaoakoa, hain justu. Horko kideak San Agustintean biltzen ziren eta bilkura horietan nola portatu behar zuten azaltzen zieten batzuetan eta meza izaten zuten besteetan.

Kongregazioak portaera edo jokabide onekoak izatea eskatzen zuen. Hala, dantza-lotua esaterako, debekatua zuten. Horrela kontatzen du Ines Korta Artetxek, behintzat: “Norbaitek *baltzeue* egiten bazuen —dantza lotuari guk ‘*baltzeue*’ hots egiten ge-


nion eta azkoitiarrek, berriz, ‘*dultze meneo*’— eta presidentak hori jakiten bazuen, kongregaziotik bidali egiten zuten. Gure ahizpari izugarri gustatzen zitzaion *baltzeue*. Behin egin zuen eta baita presidentak horren berri izan ere. Gure amarekin hitz egin zuen eta esan zion kongregaziotik kanpo zegoela, harik eta damutu arte eta berriro zintzo izaten zen arte”. Eta beharko damutu, garai hartan kongregaziotik bidaltzea oso gauza lotsagarria baitzen!

Horrek guztiak Patxirengan eragina izan bazuen, zer esanik ez honen anaia-arrebengan. Izan ere, Patxik bi anaia jesuita eta arreba jesuitina ditu. Eta ezkondu zen anaia bakarra ere —Manuel— oso gizon elizkoia da.

Komunio handia

Komunio handia hamaika-hamabi urterekin egiten zen, batek dotrina oso-osoa menderatzen zuenean. Horretarako, hilabete batzuk lehenago hasten ziren prestatzen, eta dotrina euskaraz zein gaztelaniaz ikasi behar izan zuten. “Lehen, dotrina euskaraz baino ez zen ikasten —dio Ines Korta Artetxek—, baina Franco agintzen jarri zenez, erdaraz ere ikasi behar izan genuen komunio handia egin ahal izateko”.

Dotrina ondoen zekiten hirurek, komunio handian bandera eramateko ohorea zuten. Hiru horietatik ondoen zekienak erdiko bandera eramaten zuen, bigarren ondoen zekienak eskuineko bandera eta hirugarren ondoen zekienak ezkerrekoa. Patxi izan zen urte hartan dotrina ondoen ikasi zuena, eta, beraz, erdiko bandera eraman zuen. Arreba Mari Car-



Ezkerreko argazkian, Patxi komunio handian bandera daramala. Eskuineko argazkian, Patxirekin batera komunio handia egin zutenak. / RAFAEL ZELAIA

menek dioenez, “Patxikok komunio handian bandera atera zuen eta hori ohorea zen beretzat eta baita etxe koentzat ere. Bi izeba Frantziskanak ere zeharo harro zeuden ilobaz”.

Komunio handia maiatzean egin eta ikasturte amaiera zuen Patxik jada. Ikasturtea amaitzeaz gain, ordea, Maristetako ikastaldia ere amaitzen ari zen eta erabaki beharra zeukaten non jarraitu ikasketak, Patxik eta bere etxekoek oso garbi zutelako ikasten jarraitu behar zuela mutilak.

Maristek Xabierrera joatea gomendatu zieten hainbat ikasleei eta hauen gurasoei. Izena eman zuten Xabierreren, eta hauen notak ondo aztertu ondoren, onartuak izan ziren Azpeitiko ikasleak.

Patxi oso gustura zegoen, Xabierrera joateko eguna noiz iritsiko. ■

2. *Xabierko ikasle urteak* (1939-1945)

San Gabriel Goi-Aingeruaren egunean, 1939ko irailaren 29an, Patxik hamabi urte bete berri zituela, joan ziren Xabierera Azpeititik zazpi lagun: Antonio Agirre, Felix Aranburu, Jose Mari Araneta, Eusebio Azkoitia, Asentsio Lizaso, Jose Luis Lopezegi eta Patxi Altuna bera. Xabierren denentzako lekua ez zegoenez, lehenengo urtean Luis Amenaar eta Jose Mari Zubizarreta Durangora joan ziren, geroago Xabierera joatekotan.

Zumarragan trena hartu eta ia egun osoa irauten zuen bidaia egin zuten Xabiereraino. Baina ez ziren bakarrik joan; bidaiari bi guraso izan zituzten lagun. Bata Antonio Agirre, Antonio Agirreren aita, eta bestea, Joaquín Altuna, Patxiren aita.

Patxi "gustura, ilusioz beteta" joan zen Xabierera. Hain gogoko zituen ikasketak zabaltzeko

aparteko aukera baitzuen bertan. “Luxua zen Xabierrera joan ahal izatea, garai hartan Azpeitian baxilerra egindakoak dozena erdi bat izango ziren eta. Gutxi batzuk izan ginen, ordea, aukera hori izan genuenak. Gu bezain argiak edo argiagoak herrian gelditu ziren”, aipatzen du Patxik.

Gogotsu joan zen, beraz, Xabierrera. Hara iritsi zenean ere, oso gustura zegoen, inpresio ona egin baitzion leku hark: “Xabierko bizimodua, mundu berria zen hamaika-hamabi urteko mutikoentzat, baina hasieran gustagarria: eguraldi hobea, igerilekua, futbol zelaia, lurralde lehorra baina tira! Iritsi eta bizpahiru egunera eskolak hasi ziren, eta hura beste trukada izugarria izan zen”.

Xabierko bizimodua

Hasierako jai egunak amaitu eta lan egunak iritsi ziren. Egunak eginkizunez josita zituzten, beti bazuten zerbait egiteko edota ikasteko. Gisa horretan, erraz joaten zitzaion Patxiri eguna. Eguna goizean goiz hasten zuten Xabierren: zazpiak aldera jaiki, meza, ikastordua —egunean zehar zenbait ikastordu izaten zituzten; aldi hauetan etxeko lanak edota bezperan irakasleak azaldutakoak ikasteko izaten ziren—, gosalduta, ohea egin eta gela apaindu. Eskola ordua, jolas garaia, ikastordua, eskola ordua eta hamabi eta erdiak aldera bazkaria. Arratsaldean modu berean bi ikastordu eta bi eskola ordua, arrosarioa, platika, zortziak aldera afalduta eta ohera.

Behin, gosalduta ondoren gelara ohea janztera igo eta Patxi horretan ari zela, ohea erori zitzaion.



Azpeitiko xabietar batzuk. Zutik, ezkerretik eskuinera, Patxi, Antonio Agirre, Eusebio Azkoitia, Jose Luis Lopetegui eta Felix Aranburu. Eserita ezkerretik eskuinera, German Aranburu eta Jose Maria Araneta. / PATXI ALTUNA


Patxi bera bakarrik ohea altxatzeko gauza ez eta zaintzaileetako bati deitu zion laguntza eske. Zaintzaileak honela: “¿Qué le pasa?”. Patxik: “Se me ha caído la cama”. Zaintzaileak zakar erantzun: “Cómo que se le ha caído la cama, diga usted que la ha tirado”. Gogorra gizona! Aita Jesús Fernando Herguetak, Patxirekin Xabierren egonak, zaintzaileari buruz kontatutako beste pasadizoa: “Behin gelan nengoela egundoko pixagura egin eta presaka joan nintzen komunera. Eta handik buelta jesuita zaindaria, Patxiri hain zakar egin zion hark: ‘¿De dónde vienes?’. Eta nik: ‘Del servicio’. Aita zaindaria: ‘¿Y a quién le has pedido permiso?’. Nik, orduan: ‘A nadie, cómo le iba a pedir...’”.

Bistan da: diziplina estua jasan behar izaten zuten orduan Xabierko ikasleek. Hala dio Patxik: “Bizimodu estua zen, gauza guztietarako baimena eskatu behar, hainbat gauza egiteko beldur...”.

Ikasgaiak egun batxilergoan ikasten direnen tankerakoak ziren; lehen mailakoak, esaterako, erlijioa, latina, *lengua* eta literatura, geografia eta historia, natur zientziak, matematika, frantsesa eta marrazketa ziren. Xabierren garrantzi berezia ematen zitzaion hizkuntza klasikoen eta bereziki latinaren ikaskuntzari, Xabierko ikasketen ondoren eliza-ikasketak egin behar zituzten ikasleei bideratuak baitzeuden.

“Ikasgaiak maiteenak lehenengo egunetik latina eta frantsesa izan nituen”, oroitzen du Patxik. Izan ere, hizkuntzak oso maite zituen, eta latina eta frantsesaz gain, espainiera, grekoa eta alemana ere izan zituen ikasgai Xabierren. Ordu arte ez zen alemanik ikasten batxilergoan, baina Francok eta Hitlerrek egindako akordio bat zela medio, *Espanian* alemana eta Alemanian espainiera ikasi behar izan zuten bi urtetan makina bat ikaslek. Hala, Patxiri batxilergoan alemana ikastea suertatu zitzaion, ordu arte ikasten zen ingeleraren orde.

Irakasle lanak ere lehen aldiz Xabierren egin zituen. Ikasle fina zenez eta bizikleta zuenez, Irunberrira (Lumbier, Nafarroa) joaten zen, azken urteetako beste ikasle batzuekin, umeei dotrina irakastera. Patxiren arreba Mari Carmenek kontatzen duenez, “inguruko herrixketara dotrina ematera joateko bizikleta behar omen zen, eta Patxik halako gogoaz zue-
nez, nola edo hala inguratu genion bizikleta”. Bana-



Ezkerrean, bizikletan inguruko herrietara dotrina ematera; lehena Patxi da. Eskuinean Patxi, gazteluaren goialdean. / CARMELO OTAEGI

ka batzuk izaten ziren bada, dotrina irakastera joaten zirenak: hiru bat Irunberrira eta beste hiru bat Undués-era (Aragoi, Espainia).

Irunberriko haurrei dotrina irakasteaz gain, Xabierren ere aritu zen, azken urteetan, irakasle lanean. Izan ere, bazen Xabierren latina oso zail egiten zitzaion taldetxo, eta Patxi eskola orduz kanpo hauei latinaren korapiloak askatzen lagundu nahian aritu zen. Beraz, Xabierren egin zituen lehenengo aldiz Patxik irakasle lanak, eta izugarri gozatu zuen lan horretan.

Denbora librean

Eskola ordu, ikastordu, arrosario, platika eta beste hainbat eginbeharrekoez gain, bazuten denbora liberrik ere. Jolas garaia, esaterako, batzuetan futbo-

lean edo pilotan ematen zuten, besteetan berriketan.

Futboleantxapelketak jokatzen zituzten, maila bat bestearen aurka. Oraindik ere ongi akordatzen da Asentsio Lizaso zeinek zein postutan jokatzen zuten: “Atezain: Hergueta; Defentsan: Agirre eta Bronte. Erdian: Lopetegi, Lizaso —ni neu— eta Ramirez. Aurrean, Schmidt, Sarasola, Aranburu, Altuna eta Azkoitia. Sei ginen azpeitiarrak gure taldean”.

Futboleant ez ezik, dantzari ere aritu zen Patxi. Zenbait urtetan jolas garaian, halako taldetxo bat bildu izan zen aita Gaizka Barandiaran irakasle zuela euskal dantzak ikasteko. “Dantza dezente ikasi genituen eta jai handietan, Santo Tomas egunean, Gabonetan, aita Erretore jaunaren egunetan... dantza egiten genuen patioan gainerako ikasle guztien aurrean”, aipatzen du Patxik.

Aita Gaizka Barandiaran ere oroitzen da dantza ikastaldi haiez: “Gure aita nagusia azpeitiarra zen, aita Odriozola, eta honek eman zidan baimena dantza ikastaldi haiek aurrera eramateko. Bizkaiko dantzak erakusten nizkien: banako, binako, launako, zortziko... Patxik zortzikoan egiten zuen dantza. Oso dantzari arina zen, bizi-bizia”.

Jolas garaiez gain, ostegun arratsaldeak eta igande arratsaldeak jai izaten zituzten. Hauetan paseora eramaten zituzten Zangoza (Nafarroa) aldera. Egun guztiko irteerak ere izaten zituzten noizean behin: Leirera (Nafarroa), Orreagara (Nafarroa) edota Loiolara. Uda aldera, berriz, urak epeltzen zirenean, futbol zelai ondoan zuten igerilekura ere joaten ziren.



Patxi Altuna —aurre-aurrekoa da— euskal dantzak egiten Xabierren.
/ CARMELO OTAEGI




Futbol taldea. Makurtuta eskuinetik lehena da Patxi. / CARMELO OTAEGI

Izaten zuten bestelako entretenimendurik ere. Esaterako, neguan aparteko ikuskizuna izaten zuten Nafarroako Pirinioetatik Aragoi ibaian zetozen almadiei begira. Almadia hamar bat enbor elkarri lotuta egindako ontzi mota zen eta hamar bat gizonek era-

giten zioten makila handiekin uretan muturra sartuz. Ontzi hauek, neguan ur handiak zirenean, enborrak garraiatzeko erabiltzen ziren eta bere ibilera horretan Xabiartik pasatzen ziren, bertan kolegioan zeuden gaztetxoek pozerako.

Denbora librea jolasek betetzen zuten, baina izaten zuten bisitarik denbora libre horretan, oso urritan bazen ere. Mari Carmen Altuna: “Behin gure ama eta Maria Lopeteginekoa —Jose Luis Lopetegiren ama— joan ziren Xabierrera bisitan. Bestiak ez ziren animatu eta biak joan ziren, denentzako pakete ugari hartuta. Trena Azpeitian hartu eta Zumarragara, Zumarragatik Iruñera trenez, Iruñean Irati izeneko trena hartu eta Zangozara, eta Zangozatik autobusez Xabierrera. Eguna behar izaten zuten iristen. Izan ere, Sebastianek kontatzen zuen Irati trena hain zela makala, martxan zihoala trenetik jaitsi eta bidean masustak bildu eta trenera igozteko astia ematen zuela. Horregatik bi-hiru egun pasatu zituzten bi amek Xabierren”.

Hala ere, bisita ederrena azkeneko urtean izan zuen Patxi: bigarren anaia, Sebastian, Xabierrera ikastera joan zen, Durangon lehen bi kurtsoak ikasi eta gero. Urtebete eman zuten, beraz, elkarrekin Xabierren; nahiz eta elkarrekin hitz egiteko aukera oso gutxi izan. “Urtebetez batera bizi izan baginen ere —kontatzen du Sebastianek—, oso urruti nuen anaia, txikiok ezin baikenuen handiekin hitz egin. Hala ere, goizetan garbitzeko eta ohea egiteko genuen tarte haietan Patxi nire gelara etortzen zen, elkarrekin berriketan egitera eta askotan matematika azaltzera, izugarri kostatzen zitzaidan eta”.



Patxiaren ama eta Maria Lopeteginekoa Xabierren bisitan izan zirenekoa. Patxi ezkerretik bigarrena da —aurrean— eta ondokoa ama. / PATXI ALTUNA

Aita Erretorearen jai egunak

Aita Erretorearen jai egunak, ospakizun egunak izaten ziren Xabierren. Egun haietan, eguneroko ikaskizunak alde batera utzi, eta festa giro ederra izaten zuten xabiertarrek. Jolasak, futbol partiduak kurtso bat bestearen aurka, lasterketa, gora-saltoak, pala txapelketa, lehiaketak...

Jolas horiek taldekako lehiaketak izaten ziren, kurtso bateko partaideak beste kurtso batekoen aurka eta irabazleek saritxoren bat ere izaten zuten, irabaztearen ohoreaz gain.

Jai egun haietako batean, futbol partidua jokatu behar zuten bosgarren mailakoek, Patxiren mailakoek, seigarren mailakoen kontra. Baina Patxiren taldekoek urte hartan futboleko jolasteko gogo gutxi zuten. Izan ere, galtzeko beldur ziren eta honela adierazi zion Patxik futbol partidua antolatzaile zen aita Amezolari: *“Oiga padre Amezola, nosotros no podemos jugar al fútbol”*. Aita Amezolak: *“¿Por qué no?”*. Patxik: *“Porque fulano está enfermo y yo tengo las botas estropeadas”*. Aita Amezolak: *“Pídeselas a otro compañero”*. Patxik: *“A mí no me gusta jugar con botas ajenos”*. Eta inguruko guztiak algaraka hasi ziren. Patxik orduan: *“¿Pues cómo se dice?”*. Ikaskideren batek: *“Con botas ajenas”*. Patxik: *“Ah sí, y ¿tú cómo dices ‘con botas de otros’ o ‘con botas de otras’?”*. Besteak: *“Con botas de otros”*. Eta Patxik: *“Pues entonces, ‘con botas ajenos’”*. Aita Amezolak orduan, *“no diga usted tonterías”*, eta zigortuta ikasgelara bidali zuen.

Beste jai egun haietako batean, Patxik gorasaltoan hartu zuen parte. Behar zuten tramankulurik eskura ez zutenez, bi mutikok soka bati mutur banatatik eutsi eta gaineratik salto egiten zen. Iritsi zitzaion Patxiri salto egiteko ordua, abiatu zen lasterka, salto egin, baina zoritxarrez soka katigatu eta eskumuturra hautsi zuen. Eta Zangozara eraman zuten, hautsia konpontzera. Hala-moduz konpondu ere.

II. mundu gerrako oihartzunak

Xabierren ez zuten II. mundu gerraren berri gehiegi jakiten, nahiko isolatuta bizi baitziren. Noizbait

Xabier inguruko mendietan makiren bat ikusi zutela eta halakoak entzuten zituzten. Beste behin Orreagara irteera egin zuten eta irakasle baten irratari esker alemanek Paris hartu zutela jakin zuten. Gerraren nondik norakoak ez bazekizkiten ere, honen ondorio zuzena den gosea nozitu zuten nolabait ere. “Gerra garaia zenez, janaria zen urri samar. Jesuitek beraien artean akordioren bat eginda Ameriketatik garbantzua zakuak bidaltzen zituzten, baina mamorroz jositako garbantzuak, eta hala jaten genituen, mamorro eta guzti. Ez ziren mamorro kaltegarriak, baina batzuei nazka ematen zien; ez zuten jan nahi izaten eta egundoko koskorrekoak hartzen zituzten. Botaka jarduten zuten, baina gehienok jan egiten genuen. Gu ez ginen konturatzen gutxi jaten genuenik, gaizki jaten genuenik, inoiz gose pixka bat izaten bagenuen mendira joaten ginen ezkurra jatera, hango ezkur klase haiek jan omen zitezkeen eta. Su pixka bat egin, han erre eta hala jaten genituen; ez ziren gaztainak bezain gozoak baina hantxe-hantxe”, dio Patxik.

Azterketak Iruñean

Behin laugarren mailan zegoela, Xabierko aita ministro Arrieta etorri zitzaion eta “oye, *Altuna ¿por qué no está matriculado en Pamplona?*”. Patxik: “¿*Qué es eso?*”. Aita ministroak: “*Pues, qué va a ser, hacer oficialmente los cursos que estás haciendo aquí y que apruebas aquí con tan excelentes notas*”. Patxik: “*Pues, no sé*”. Aita ministroak: “*Escribe a casa y pregúntale a los padres*”. Etxera idatzi eta

etxean, “egin ezak beraiek deritzotena”. Hala, hiru urtetan Iruñera joan behar izan zuen azterketa ofizialak egitera. Azterketok erraz gainditu zituen Iruñean ere.

Oporrak

Xabierko ikasleak udan baino ez ziren etxera joaten. Gabonetako eta Aste Santuko oporraldia Xabierren ematen zuten, geroago kontu hori aldatu bazen ere. Xabierko oporraldian, eskolarik ez zutenez, denbora gehiago zuten jolasteko, ikasteko edota mendi irteerak egiteko Zangoza, Yesa (Nafarroa eta Aragoi) edota Undués aldera.

Gabonetan, besteak beste Pedro Muñoz Seca (1881-1936) komediografo espainiarraren antzerki lanak taularatzen zituzten. Hilabete lehenagotik ematen zioten gidoia; hori bai, xabiartarrentzat egoiak ez ziren pasarteak kendu ondoren. Eta makina bat entsegu egin ondoren, Gabonetan izaten ziren emanaldiak. Oso ondo pasatzen zuten emanaldi haietan; izan ere, antzezlan arinak, barre eragitekoak ziren. “Bazen bat gure artean oso txistosoia zena, Jesus Erdozain delakoa; komedi bateko papera hain ondo egin zuen non *Fruks* ezizena betiko geratu zitzaion. Eta oraindik ere *Fruks* deitzen diogu”, dio Patxik.

Gabonak, etxe guztietan bezala, egun bereziak izaten ziren hango mutikoentzat ere. Mari Carmen arrebak kontatua: “Gabonetan, gure etxean biltzen ziren Azpeitiko jabierinuen ama guztiak paketeak egin eta postaz bidaltzeko. Paketeetan gozokiak,



Gabonetan urtero antzezlanak egiten zituzten Xabierko ikasleek. Patxi ere parte hartzen zuen antzezlanetan. / CARMELO OTAEGI

turroiak, galtzerdiak, oparixoren bat... bidaltzen zitzaizkien”. Eta ilusio handiz jasotzen zituzten, urtean zehar jasoko zuten opari bakarretakoa izango baitzen.

Udako oporrak ere berehala iristen zitzaizkien, konturatzerako. Beraz, bertako lagunak agurtu, tren hartu eta Azpeitira. Eta Zumarragan zain izaten zituzten etxeokak. Mari Carmen arrebak gogoan du nola “udan etortzen zirenean, amak Zumarragara eramaten gintuen anaia-arreba txikiak jaietako arropak jantzita anaiari harrera egitera. Hura poza! Izan ere, urte guztian ez genuen elkar ikusten”.

Baina etxera abiatu baino lehen, halako abisu edo gomendio batzuk ematen zizkieten Xabierren. Esaterako, udako oporraldian kontuz ibiltzeko esa-

ten zieten, ez ibiltzeko edozeinekin, ez ibiltzeko lehenagoko lagunekin, batez ere neskekin. Izan zen abisu honi kasurik egin ez zionik. Hala kontatzen du Patxik: “Mutiko batek behin, udan oporrak etxean pasatu eta Xabierrera joan zenean bere laguntxoei esan omen zien: ‘*Jo, menudo verano me he cascado, me he echado novia*’. Eta esan bazuen, esan zuten; lagun horietako batek jesuitaren bati esan eta Xabiertik bidali egin zutelako. Oso bizimodu estua zen hura”.

Azpeitiarrek, aldiz, fin-fin jarraitu zuten Xabierreren emandako gomendioa. Hori dela eta, ez zuten izan hartu-emanik Azpeitiko gainerako gazteekin. eta eguna elkarrekin ematen zuten Azpeitiko xabiertarrek. Hala kontatzen Ines Korta Artetxek: “Xabierkoak elkarri lotu lotuta ibiltzen ziren eta beti Loiola inguruan. Horregatik guk, herrikook eta, batik bat neskek, ez genuen ia traturik eduki haiekin”.

Goizetan Loiolara meza entzutera joaten ziren, gosaldu eta beraietako baten etxean biltzen ziren *Domino*, *Imperio* eta halakoetan jolastera. Askotan Patxiren etxean biltzen ziren. Mari Carmen arrebak dioenez, “gure etxea zen jabierinuen biltokia. *Imperio* jolasa gure etxean gordetzen zuten eta makina bat jolas egindakoak dira gure jangelan. Ni txikia nintzen eta gustura sartuko nintzen jangelara, baina ez zidaten uzten eta han egoten nintzen atearen kristaletik begira”.

Bazkalondoan berriro Loiolara joan ohi ziren. Loiolan, orduan etxeko ministro zen aita Azilonak, Aita Olazabalek eta aita Lopetegik hartzen zituzten oso maitekiro eta lantxoak ematen zizkieten: saga-

rrak bildu... Patxi-eta gustura aritzen ziren lantxook egiten. Lanaren ordainetan orduan laugarren pisuan zen frontoian jolasten uzten zieten.

Uda haietan, Patxik gogoan du nola aitak egunkaria beretzat irakurtzeko eskatzen zion. Baina Patxik lagunena joan nahi eta tranpa egiten zion aitari. "Gure aitari egunkaria irakurtzea gustatzen zitzaien, ez egunero, orduan luxua baitzen egunkaria egunero izatea, baina bai igandetan. Nik, ordea, azkarrago amaitu eta kalera lehenago ateratzearren, saltoak egiten nituen eta lerro batzuk irakurri gabe uzten. Baina aita berehala ohartzen zen".

Erabaki beharra

Xabierren azken urtean zeudela, Mendekoste egunean Loiolara eraman zituzten, aurreko urtean Xabierren lagunak izanak eta orduan nobizio zirenak agurtzera. Nolabait ere hurrengo irailerako gonbidapena-edo luzatu nahian.

Xabierren enbidoa argi eta garbi bota zioten eta Patxik jada erabaki beharra zuen. Urteak zera-matzan jesuita izan edo ez, buruan zerabilela; baina azken urte honetan luzamendutan ibili gabe, zirt edo zart egin behar zuen.

Behin, bosgarren mailan zegoela, gosaldu ondoren logelara igo zen ohea janztera, eta han zegoela aita Amezola joan zitzaion eta galdetu zion: "Oye, Altuna, ¿qué te pasa? !Te veo triste!" Patxik: "Pues, sí. No sé, estoy pensando ser jesuita, no sé. Tengo miedo".

Bosgarren mailan zalantza honek zeharo ardu-

ratzen, beldurtzen bazuen, zer esanik ez seigarren mailan, Xabierko azken urte hartan. Beldurrak beldur, Xabiertik alde egiterako hartua zuen jada erabakia. “Nobizio sartzea kostatu egin zitzaidan. Gauza asko ikusten nituelako nire inguruan lehen ikusten ez nituenak eta gazte bati tira egiten ziotenak: futbol taldea, hondartza, neskak... Garai hartako gazte batek izan zitzakeen gauza horiek guztiak eta jesuita batek izan ez zitzakeenak. Bestetik, etorkizun ona ikusten nuen eta ikasketak asko gustatzen zitzaizkidan. Gainera, bokazioa ordurako etxetik banekarren, eta Xabierren azken aurreko urtean geundela Burlatara (Nafarroa) eraman gintuzten gogojardunetara, eta egun haietan meditazio gai izan genuen Lukasen *Jesus Emausko ikasleei agertu pasarteak oso barruan ukitu ninduen*”.

Uda gainerakoan tankerakoa izan zen: xabierarrekin mezetara joan, Loiolara lantxoren bat egitera, *Imperio*-n jolastu Kanpaxko jangelan.... baina uda hartan sentipenak ziren desberdin Patxigan. Egun gazi-gozoek izan ziren haiek. “Egun haietan hunkituta, goibel zebilen Patxi, baita etxekook ere. Gaia ateratzen genuen bakoitzean negar egiten genuen Patxiren amak eta biok”, kontatzen du udak Azpeitian ematen zituen lehengusu Maria Jesusek.

Izan ere, amari semea jesuita joateak pena handia ematen zion; hala ere, beti honen alde egin zuen. Hala kontatzen du anaia Sabino Otañok: “Amak ez zion inoiz galaraziko jesuita joatea. Alderantziz; bultzatu eta lagundu egin zuen”.

Abuztu amaieran, nobizio joan aurreko egunean, Patxi agurtzeko etxekoak Itziarko Ama Birjina-

gana joan ziren; Arroatik oinez, Itziarren bazkaldu eta gero bazkalondoan Debara jaitsi eta hondartzan eman zuten eguna.

Etxekoak agurtu eta abuztuaren azken egunean nobiziadora joan behar zuten guztiak Xabierrera deituak izan ziren. Han bospasei egun pasatu zituzten, nobiziadoaren berri izan eta azkeneko gomen-dioak jasotzen. ■

3. *Eliz ikasketen garaia* (1945–1963)

Patxik jesulagun izateko egin zuen bide horri zuzenean eutsi aurretik, merezi du azalpen txiki bat ematea garai hartako eliz ikasketei buruz. Apaiztera zihoazen jesulagunen ikasketek urrats ezberdinak zituzten:

1. Nobiziadoa: bi urteko ikasketak ziren. Lagundiaren ohiturak eta arauak, eta San Inazioaren irakatsiak ezagutzeko bideratuak zeuden ikasketak.

2. Junioradoa: ikasleak zekarren latin prestakuntzaren arabera, bi, hiru edo lau urteko ikasketak egiten zituzten; gehienek hiru urte. Urte haietan latin eta greko hizkuntza eta hauen literatura zuten ikasgai.

3. Filosofia: hiru ikasturtez osatua, eta unibertsuaren eta errealitatearen azken funtsaz eta gizakiak bertan duen tokiaz ziharduten.

4. Maisu txikitza: Filosofia amaitu ondoren gehientsuenek urte batzuetan irakasle lanetan jarduten zuten. Beste batzuk berriz, oso gutxi, karreraren bat ikastera joaten ziren unibertsitatearen batera.

5. Teologia: lau urteko ikasketak ziren. Jainkoa eta oro har erlijioa ardatz zituen ikasketak. Hirugarren urtea amaitzean apaiztu egiten ziren.

6. Hirugarren Probantza: urtebeteko ikasketak, bigarren Nobiziadoa bezala zen. San Inazioaren irakatsietan sakontzen zuten.

Jesulagunek apaiz izateko bide horretan hiru probantza gainditu behar izaten zituzten. Lehenengo Probantza Nobiziadoko bi urteak egitea zen. Bigarren Probantza, Junioradoa, Filosofia, maisu txikitza edota ikasketa unibertsitarioak eta Teologia ikasketak egitean gainditzen zen. Eta azkenik, Hirugarren Probantza, izen bereko esperientzia hura bizi ondoren gainditzen zen.

Nobiziadoa: 1945-1947, Loiolan

Irailaren lehen egunean etorri ziren Xabiartik Loiolara. Bertan 150 ikasle elkartu ziren. Batetik, ehun ikasle apaiztera bideratuak: lehenengo urtekoak 50 eta bigarrenengoak beste 50, aita/padre izango ziren jesulagunak. Bestetik, apaiztuko ez ziren 50, anaia/hermano izango zirenak.

Iritsi eta hiru egunera erretorearen bulegora deituak izan ziren banan-banan, liburu batean nobizio izan nahi zutela sinatzera. Sinatze kontu hori, Nobiziadoa hasi berritan egiten zuten, nolabait ere hartua zuten erabakiaren agergarri. “Sinatzean,

kontratu bat egiten duzu konpainiarekin. Zu konprometitzen zara, jesulagun bezala bizitzera, jesulagunen arauak betetzera, zure nagusiak onartzera... Sinatzen duzunean, Nobiziadoaren hirugarren egunean, zuk hartu duzun erabakia formal egiten duzu, atzera bidea baldin badago ere”, azaltzen du Patxik.

Nobiziadoko lehen hamabi egunetan postulante aritu ziren, nolabait ere Lagundian onar ditzaten eskatzen eta nobizio izateko prestatzen. Hamabi egun horiek burutu ondoren eta hamabi egun lehenago batera sartuek Santa Teresita egunez jantzi zuten sotana. Egun honetan, ospakizun txikia eduki zuten. Baina etxekoan bisita laburra jaso ahal izan zuten.

Sotana jantzi ostean hasi zen nobizio izaten eta Nobiziaduko ohiturak ikasten: noiz jaiki ohetik, noiz oheratu; noiz eta nola otoitz egin; zein ziren isilik egoteko ordu luzeak eta zein jolasteko aldi laburrak; nola egiten ziren etxetik kanpoko paseoak, hirunaka ateraz eta bidean arrosarioa errezatuz; baina, batez ere, Jesusen Lagundiaren legeak eta izpiritua ahal zen ondoen ezagutzeko zenbait liburu irakurriz eta ikasiz. Hori guztia irakasteko nobizio gai berriari urtebete lehenago sarturiko nobizio bat eman ohi zitzaion gidari, aingeru deitu ohi zena.

Patxik oso gogoan ditu egun haiek: “Lehenengo nobizio egunak triste samarrak izan ziren, erabaki handia baitzen hura. Gainera, hasierak berekin zuen berritasuna, bizimodu berriak zekarren itxitura, bakardadea gogor egin zitzaidan. Ezin zen leihotik begira egon, baina pixka bat arrimatuz gero, Azkoi-tira futbol partidura zihoazen gazteak ikusten ziren

eta... Gazte izateak, ordea, kentzen zion bere alde txarra, eta ikasteko nuen grina hark oso animatu ninduen”.

Nobizio bizitzako lehen hilabetean, *Gogo-jardun hilabetea* zeritzonari ekin zioten. *Gogo-jardun hilabetea*, San Inaziok agintzen duen proba bat da eta egun hauek otoitzean, meditatzen, irakurtzen eta San Inazioren liburutik hartutako gogo-jardunetan eman zituzten.

Hilabete hori amaitzean, handik aurrera lehenengo urteko nobizioei zegokien bizimodua egiten hasi ziren. Lehen urtean ia ikasketarik ez bazuten ere, eguna lanez eta eginkizunez betea zuten. Zazpiak aldera jaiki, gelaren eta bakoitzaren garbiketa egin, kaperan eguneko eskaintza egin, meza entzun, gosaldu, norberak ordubeteko irakurraldia —San Inaziok emandako arauen irakurketa—, nobizioen maisuaren platika, etxearen garbiketa —etxe-ko lanetan ohitzeko— eta bazkaltzera jaitsi aurretik beste platika bat San Inazioren legeen gainean. Bazkalondoan, atsedena —lagunekin hironaka bilduta berriketan aritzeko zuten une bakanetakoa— eta lo-kuluxka txiki bat. Ondoren, astean hirutan latin ikastordua eta gero latin eskola. Beste hiru egunetan —asteartetan, ostegunetan eta larunbatetan— paseoa izaten zuten, mendi aldera, iturria zela zekiten lekuren batera, ordu eta erdiko paseoa. Bostak aldera ordu erdiko meditazioa eta beste ordu erdiko irakurraldia, afaldu, hiru ordu laurdeneko atsedena, otoitzaldia eta ohera.

Horrelakoak izaten ziren egunak, aldaketa txiki batzuk gora-behera, eliz ikasketak egiten ari ziren



Patxi, sotana jantzi zuen egunean, gurasoekin Loiolan. / PATXI ALTUNA

jesulagun apaizgaien egunak. Nobiziadoan eta Hirugarren Probantzan otoitzaldi eta irakurraldi luzeagoak eta eskola ordu laburragoak; Juniorado, Filosofia eta Teologian, aldiz, otoitzaldiak eta irakurraldiak laburtu eta eskola ordu gehiago.

‘Umbilicus Siciliae nominatur’

Patxi Xabiertik latin askotxo ikasita etorri bazen ere, izan zuen zalantzarik eskola haietako batean; nahiz eta ulertzen ez zuena latina baino haratago egon. “Behin Zizeronen karta bat itzultzen ari ginela, *Umbilicus Siciliae nominatur* agertu zitzaigun. Nik irakasleari esan nion ez nuela ulertzen zer esan nahi zuen *umbilicusek*, eta irakasleak hiztegian begiratzeko esan zidan. Begiratu nuela baina gaztelaniaz-

ko itzulpena ere ez nuela ulertzen. Irakasleak orduan erantzun zidan eskola amaitutakoan esango zidala. Eta hala esan zidan bakarka: *umbilicus*, zilborra da. Harentzat hitz sakratua, tabua, publikoan ezin esan zena. Nire etxean ere hala izan zenez, nik ez nekien zer zen zilborra. Niretzat gorputzaren atal horrek ez zuen izenik. Zilborra bezala, alua. Jendeak kalean irain egiteko eta erabiltzen bazuen ere, benetan alua zer zen jende gaztetxo askok garai hartan ez zekien”.

Nobizioen egunak latin eskola gutxi batzuek eta arestian aipaturiko eginkizunez josita egoten ziren. Baina ostegunak eta igandeak egun desberdinak izaten ziren, bestelako eginkizunak eta denbora libre gehiago baitzuten.

Ostegunetan, etxeko baratzean boleibolean jolastu edota laugarren pisuan zuten frontoian ibiltzeko denbora libre gehiago izaten zuten. Hamaikak aldera, berriz, etxetik ateratzen ziren paseoa ematera bazkaria beraiekin eramanez. “Paseoetara hiruak ateratzen ginen, eta lehenengo arrosarioa errezatu behar izaten genuen eta ez ostegunetako paseotan bakarrik. Honetaz gain, ezin genuen bidean topatzen genuen jendearekin hitz egin, galarazia genuelako; jendeak ere debeku honen berri bazueenez, inork ez zigun hitz egiten”, kontatzen du aita Felix Juan Cabasés-ek.

Hilaren azken ostegunetan, berriz, Basilikan elizkizun luzeagoa izaten zen: arrosarioa, bendizioa eta sermoia zituena. Nobizioak elizkizun hauetara jaisten ziren eta pulpitutik arrosarioa euskaraz errezatzen zuten. Nahiko lan ematen zien arrosarioa



euskaraz errezatu beharrak —eta zer esanik ez kanpotik gogo-jardunetara etortzen zirenei jatordutan irakurketaren bat egin behar izaten zietenetan—. “Zail egiten zitzaidan euskaraz irakurtzea; hau da, intonazioa egoki ematea, etenak behar ziren lekuan egitea. Hala ere, oso ondo etorri zitzaidan. Gainera, orduan hasi nintzen konturatzen apaizei entzunda, euskaraz egiteko era ezberdinak zeudela”, dio Patxi. Izan ere, hura zen euskaraz entzuten zuten une bakarretakoa.

Igandeetan, berriz, goizetan jolas egiteko denbora librea izaten zuten. Hilaren azken igandetan eta jai egun handietan jolasei utzi eta Basilikan egiten ziren elizkizunera jaisten ziren.

Arratsaldeetan, jangelako pulpitura igota, deklamazioak egiten zituzten. Saiook, nobizioak pulpi-

tutik era eta tonu egoki batean hitz egiten ikasteko ziren. Horretarako, Bibliako pasarteak, gaztelaniazko autoreen olerkiak... errezitatzen zituzten. “Liburu bateko zatiren bat ikasi eta esaten genuen. Testu laburrak ikasten genituen, hamar lerro izaten ziren gehienez, eta eskerrak! Izan ere, aita zuzentzailea oso gogorra zen eta hiru hitz esaterako zuzentzen gintuen”, kontatzen du Patxik.

Saioak amaitu ostean, baratzean edota etxe barruan nobizioei zegozkien korridoreetan hiruak paseoak emanez igarotzen zuten, beti ere etxe mugetatik atera gabe.

Egunak eta asteak aurrera ahala, hilean behin nobizioen maisuagana joan behar izaten zuten, beraien barruko kontuen berri ematera; hots, *a dar cuenta de conciencia*. Horrelakoetan, gustura al zeuden, nobizio bizitza zail egiten zitzaien, eta halako galderei erantzuten zieten. Erantzuteaz gain, ordea, beraien kulpak ere aitortu eta bota behar izaten zituzten. Kulpa botatze haiek oraindik ere oso gogoan ditu Patxik: “Pikardiren bat, okerren bat egiten genuenean —esaterako, orduz kanpo hitz egin, ‘*rompiendo la ley del silencio*’—, nobizioen buruak esaten zigun: ‘*Tiene usted que echar la culpa*’. Eta jangelan, bazkal aurretik, *Aita Gurea* errezatu ondoren, belauniko jarri erdi-erdian, denak isil-isilik zirela eta hala esaten genuen kulpa: ‘*En nombre de la Santa Obediencia digo mi culpa...*’”. Izan ere, arau honen arabera etxe barruan zeudenean isilik egon behar zuten, atsedendaldi garaietan salbu. Ikasketa, irakurketa, otoitz, jatordu garaiak isilik egoteko garaiak ziren. Salbuespenak, jai egun handietan izaten ziren,



Nobizio garaian Loiolako etxearen korridoreetan paseoak ematen zituzten, eguraldi txarra egiten zuenetan. / LOIOLAKO ARTXIBOA

esaterako San Inazio egunean. Egun honetan *Deo Gracias* zeritzona ematen zuten; hau da, baimena, jatordu hasiera-hasieran hitz egiteko baimena.

Baziren beste modu bateko kulpak eta beste modu batera bota beharrekoak. Kulpa hauei, *Culpas Mayores* deitzen zitzairen eta penitentzia bidez botatzen ziren. Esaterako, lokarri bat hartu eta bizkarrekoak edo ipurdikoak norberak bere buruari emanek. Nobizioen maisu zeritzonarengana hilean behin joaten zirenean, honetaz ere hitz egiten zuten, eta honek gomendioak ematen zizkien.

Oporrak

Behin sotana hartuz gero, ezin etxera joan oporretan. Izan ere, erlijioso bati dagokion komunitate bizi-

tza egin behar zuten jesulagunek, urte guztia zego-
kien komunitatean bizi, eta ateratzekotan baimen
berezia eskatu behar izaten zen. Esaterako, nobizio
garaian, udak Loiolan ematen zituen, bere jaioterri-
tik hain hurbil eta aldi berean hain urrun, etxekoen
oso noizbehingo bisitaren bat izanez. Izan ere, bisi-
tak ere oso mugatuta zeuden. Hala ere, jesulagun
ikasketetan aurrera ahala, askatasun handiagoa eta
baimenak lortzeko aukera handiagoa izan zuen.

Nobiziadoko bi urteetan, beraz, Loiolatik oso
gutxitan atera izan zen. Hori dela-eta Gabonetako,
Aste Santuko eta udako oporraldiak oso antzekoak
izan ziren, eguraldia izango zen gehien aldatzen ze-
na, eginkizunak tankerakoak izan ohi baitziren.

Udako oporraldian, bi motatako oporrak bereiz-
ten ziren: opor txikiak eta opor handiak.

Opor txikiak, egun erdiko oporrak ziren, eguna-
ren beste erdia eskolan ematen baitzuten, Hizkun-
tza Akademia zeritzaten eskoletan. Hauek hizkuntza
ikastaro trinko modukoak ziren: goizak ikasleak au-
keratutako hizkuntza ikasten ematen zuten, eta
Patxik Xabierren urteetan ikasgai izan zuen frantse-
sarekin jarraitu zuen Nobiziadoan.

Opor handiak, berriz, egun guztiko oporrak zi-
ren; elizkizunez, otoitzaldiez eta platikez gain, esko-
la orduak eta ikastorduak moztu eta denbora libre
gehiago izaten zuten. Hortaz, atsedenaldira luzeago-
ak, hitz egiteko tarte handiagoak, eta boleibolean
edo pilotan jolas egiteko denbora gehiago, baina,
hori bai, etxetik atera gabe. Paseora ere sarriagotan
atera ohi ziren, baina hauetan ere ezin zuten kan-
poko inorekin hitz egin. Beraz, oporretan ere, urte

guztian bezalatsu, nahiko isolatuta bizi ziren. Patxi kanpokoekin izaten zuen harreman bakarra, etxe-koen bisita izaten zen, eta bisita hauek ere, urte guztian zehar bezalaxe, oso mugatuta zeuden.

Nobiziadoaren bigarren urtea

Bigarren nobizio urtea, bizimoduz lehenengoaren antzekoa zen; hala ere bazen alderik. Lehenengo urtean ez zen ia eskolarik izaten, astean ordubeteko hiru latin eskola baino ez. Bigarren urtean, aldiz, latina ikasteari ordu gehiago eskaintzen zitzaizkion eta ikasgai berria zuten: grekoa.

Bigarren urteak zuen gauzarik berezietakoa, San Inazio agintzen dituen proba batzuk egitea zen. Lehen urtean, bete zuten lehenengo proba: *Gogo-jardun hilabetea* zeritzona. Bigarrenean, beste bi proba zituzten: *Erromes Hilabetea* eta *Ospitale Hilabetea*. Proba hauek, nolabait ere, nobizioak zailtzeko eta diziplina bat ikas zezaten egiten ziren.

Erromes Hilabetea zelakoan, nobizioek erro-mesaldia egin behar zuten, nagusiek beraientzat aukeratutako lekura. Patxi eta beste bi kide, Xabierrera joan ziren. "Uharte-Arakilgo tren geltokian jaitsi eta zortzi bat etapatan Xabierrera oinez joatea egokitu zitzaigun. Egunero-egunero, agindutako kilometroak egin eta halako herrixkatak apaizagana jo eta bertako umeei dotrina eman, apaizari meza ematen lagundu... apaizak agintzen ziguna egiten genuen. Honezaz gain, egunean zehar gelditzen ginen herrixketan eskean ibiltzen ginen, pobre ginela adierazteko. Eskean bildutakoa, herri horretako apaizari

ematen genion. Amaieran, Xabierrera iritsitakoan, urte eta erdi lehenago geure ikaskide izandakoek oso harrera ona egin ziguten eta bertan hiru eguneko egonaldia egin genuen”, kontatzen du Patxik.

Urtean zehar egiten zuten beste proba —*Ospitale Hilabetea*— Patxik eta beste hiru kidek Gasteizko Santiago ospitalean egin zuten. Beraien egitekoa ospitalean, batetik larri zeuden gaixoekin hitz egitea zen, animo espiritualala emanaz. Bestetik, erizainei laguntzea; hots, erizainek agindutako hainbat eta hainbat lantxo egitea.

Bi proba hauek egin zuten zeharo ezberdin bigarren urtea. Izan ere, etxetik kanpo epe luze samarrean ibiltzeko aukera izan zuten eta komunitatekoak ez ziren jendearekin hartu-emana izatekoa.

Dotrina erakusten

Nobizioen eginkizuna zen, Loiolan elizkizuna zen igandeetan arrosarioa haietako batek irakurtzea. Bigarren urtean honetaz gain bazuten beste betebeharrak bat: Urrestilla, Errezil, Oñatz, Loiolan bertan... ostegun arratsaldeetan bertako umeei eta gaztetxoek dotrina erakustea.

Patxik oso gogoan ditu dotrina irakastaldi haiek. Ikaragarri gozatzen zuelako lan honetan, baina, batik bat, hori zelako euskaraz hitz egiteko zuen aukera bakarretakoa. Ordurako, Patxik nahiko trakestua zuen euskara, baina haurrekin eta gaztetxoekin hitz egiteak asko lagundu zion euskara berriro bizitzeko.

“Arratsalde haietako batean Loiolan, dotrina



Patxik Nobiziadoa bukatu ostean, botoak egin zituen eguna. Etxekoekin, anai-arreba, guraso eta bi izebekin Loiolan. / PATXI ALTUNA

ematera joan nintzenean ene taldeko ume bati esan nion: ‘Aizu, lehengo astean ez zinen etorri’. Eta umeak: ‘Ez nintzen etorri, itulen izan nintzelako’. Eta nik: ‘Non?’. Eta umeak algara batean hasi ziren”, oroitzen du Patxik. Izan ere, ez zekien zer esan nahi zuen ‘itulen’ek eta lekuren bat zela pentsatu zuen.

Nobizioadoari, eta, era berean, Lehenengo Probantza osoari, amaiera botoak —esaneko izatea, pobre izatea eta kastitatea— eginez ematen zitzaion.

“Egun hori etorri zain egoten ginen irrikatan. Egun handia zen, izan ere. Betiko lotzen ginen lagundiari hiru botoren bidez. Goizean, meditazioa bakoitzak bere gelan egin ondoren, etxeko kapera pribatuan biltzen ginen botoak egin behar genituenak eta gainerako nobizio guztiak. Hori goizeko zortziak

aldera izaten zen eta bazkalondoan etxeakoak agurtzera atera ahal ginen”, kontatzen du Patxik.

Elizkizunean etxeakoak egon ez baziren ere, bazkalondoan haiekin elkartu zen. Bisita laburra zen hura gero! Etxekoak agurtu, argazkiak atera eta berriz ere eguneroko eginkizunetara itzuli behar baitzuen. Etxekoak, berriz, ospatzeko Katalangora joan ziren meriendatxoa egitera pozez zorutzen.

Junioradoa 1947-1950

Junioradoa egiteko, Loiola utzi eta Urduñara (Bizkaia) abiatu ziren, Loiolan Nobiziadoa bukatu berri zuten hogeituroko Patxi eta gainerako apaizgaiak. Patxik Nobiziadoa amaitu zuenean, Loiolan ez zegoen oraindik Junioradorik. Baina, egun Gogartetxea den eraikina egiten ari ziren horretarako. Hori dela eta, Junioradoaren lehen urtea Urduñan egin zuten Loiolako apaizgaiek, baina bigarrenorako atzera Loiolara bueltatu ziren. “Oraindik etxea zeharo egin gabe zegoela ekarri gintuzten, eta hasieran ez ginen batere eroso bizi; kalefakzioa eta halakoak falta ziren, egun guztia obratako zaratak entzuten...”, kontatzen du Patxik.

Junioradoan, bizitokiaz gain, bizimodua ere aldatu zuten: otoitzaldi laburragoak eta ikastaldi luzeagoak; erlijiozko liburuen ordezkuntzak —latina eta grekoa— eta literatura ikastekoak erabili zituzten esku artean juniorrek lehen baino gehiago.

Junioradoa, Letretako Batxilerraren pareko ikasketak ziren, baina Antzinako Greziako eta Erromako hizkuntzan eta literaturan oinarritutako ikaske-

Yes

Versibus Virgo, iubeor latinis
Facta natalis celebrare cari.

Adiuva, mater. Fer opus cauenti
Glaui! mihī certum.

Alma tu, felix, utero videris
matris ex inso, verecunda, casta:
Siquaque a nobis bene qual voceris
Immaculata.

Angelis praestas decore atque ponti
Aequo aspectu: niveis adornas
Vestibus corpus, caput et corona
Virgo venusta.

Glis tamen praestant monumenta cordis
Tu quidem parens, humilis, pudica:
Tu Dei mater meruisti et una
Iure vocari.

Talis es, mater: super omne verbum
Nobilis, dives: ego, parvus, asper,
Labiis plenus: miserere fili,
Virgo maria.

F. Altuna G.

Junioradoko ikasle aurreratuek, autore klasikoak ikasi ez ezik, latinez olerkiak paratzen zituzten. Hona Patxi idatzitako bat.

tak. Ikasketok, hiru maila zituzten: Gramatika, Humanitateak eta Erretorika.

Lehenengo mailan, Gramatikan, latina eta grekoa hizkuntzak ziren ikasgai. Bigarren mailan, Humanitateak zeritzon, literatura lanak aztertzen

hasten ziren. Eta ikasketa hauen azken mailan, Erretorikan, jendaurrean hitz egiteko prestatzen ziren, antzinako hizlari handien lanak aztertuz eta buruz ikasiz.

Junioradora latin asko jakinda zetozenek, ez zeukaten bi lehen urratsak egin beharrik. Eta Xabiartik zetozen ikasleek latin asko zekitenez, zuzenean azken urratsa ikastera pasatu ohi ziren. Beraz, Patxi eta zenbait kide, Junioradoan, Erretorika ikasten hasi ziren. Patxik bi urtetan egin zituen Junioradoko ikasketak, nahiz eta Junioradoa ikasle gehienek hiru urtetan egiten zuten. Patxi ikasle aurreratua izaki, autore zaharren lana aztertzeaz gain, latinez olerkiak egiteko ere gai izan zen.

Oso gogoko zituen eskola hauek eta gogoz jarduten zuen irakasleek agindutako lanak egiten. Hori dela eta, gaiak oso ondo prestatuta eramaten zituen eskolara eta irakasleari erantzuten zail egin zitzaion galderaren bat egin ere bai. Hala kontatzen du behintzat, orduzkeru Loiolan dagoen anaia Sabino Otañok: “*Padre Larrakoetxeak, latin poetikoko irakasleak, esaten zuen Patxiz: ‘Kanpaxa cuando se marchará de aquí’; izan ere, Patxik oso galdera zorrotzak egiten zizkion eta honek bat-batean ez jakin erantzuten, eta hurrengo egunerako ekarri behar izaten zion erantzuna”.*

Junioradoan, beraz, hain gustukoak zituen eta oraindik dituen hizkuntzak lantzeko eta aztertzeko aukera aparta izan zuen. Aita Felix Juan Cabasés-ek esana: “Patxi, latin eta grekoaren monstrotzar bat zen eta horregatik, nagusiek Perficit ikasketak egitera bideratu zuten”.



Loiolako Santutegia, eskuinetara juniorrentzat eraikitzen ari ziren etxea. Egun, egoitza horretan Gogarte-etxea dago. / LOIOLAKO ARTXIBOA

Hizkuntza klasiko hauez gain, Xabierren hain gogoko izan zuen frantsesa ere izan zuen ikasgai ostegun goizetan eta udako opor txikietan. Arratsaldeetan Nobiziadoan bezalaxe, paseora ateratzen ziren. Nobiziadoan, paseoaren lehen ordu erdian arrosarioa errezatzen bazuten, Junioradoan, lehen ordu erdian, latinez hitz egin behar izaten zuten elkarrekin.

Igandeetan ere, izan zen aldaketarik. Nobizioek, Loiolan elizkizunik ez zen igandeetan, testutxoren bat deklamatzeko zuten pulpitutik. Junioradoan astean zehar prestatutako sermoiak —gazelaniazkoak batzuetan, latinezkoak besteetan— bazkalorduan eta platicak afalorduan egiten zituzten, komunitateko gainerako kideek jaten zuten bitartean.

Honela ematen zuten, bada, jesulagun apaizgaiek Junioradoa. Udako hilabeteko oporraldi handiak eta txikiak kenduz gero, ia beste guztia lanean.

Perficit ikasketak Loiolan

Patxiri, Junioradoko bi ikasturte trinko haiek egin ostean eta Filosofia ikasketak egin aurretik, beste urtebete eginarazi zioten Loiolan, Perficit urtea zeritzon. Izenak dioen moduan perfektionatzeko, latina eta grekoa gehiago ikasteko eta sakontzeko. Egunen batean latin eta greko irakasle izango zirenen zat zeuden asmatuak ikasketa hauek. Izan ere, nagusiek hasiera batean Patxirentzat pentsatua zuten destinoa, latin eta greko irakaslea izatea zen.

1949-1950 ikasturtean Loiolan Perficit urtea egin zuten ikasleak, Luis Azagra eta Patxi Altuna, izan ziren. Biak gainerako juniorrekin bizi ziren, oraindik juniorren komunitateko kide baitziren. Baina bazen alderik Junioradoko ikasle izatetik Perficiteko ikasle izatera: “Perficit urtean, besteak eskolan zeuden bitartean, guk liburuak irakurtzen eta aztertzen genituen, bakoitzak bere gelan. Junioradoan ikusten ziren autore batzuen lan zailagoak eta ikusten ez ziren beste autoreak lantzen genituen. Perficit garaian ez genuen igandeetan sermoirik esaten. Hori ere, desberdin egiten genuen. Lan ezberdinak izaten genituen eginkizun, baina bizimodua bera zen”, aipatzen du Patxik. Eskoletan eta igandeetan sermoiak egiten, gainerako juniorrekin ez ibiltzeaz gain, Perficiteko ikasleek bazuten beste eginkizun garrantzitsu bat: Junioradoko, Gramatika eta Humanitateak mailetako irakasleei eskolak ematen laguntzea. Eta hala aritzen ziren Luis Azagra eta Patxi.

Perficit urtea amaitu aurretik, aita Probintzialaren bisita jaso zuten eta honek eman zion junior ba-



Filosofiako ikasleen 1950-1953 promozioa. Patxi behetik hasita bigarren ilaran dago, eskubitik ezkerreara laugarrena. / PATXI ALTUNA



Oñako etxea. Bertan egin zituen Filosofiako ikasketak eta Teologiako lehen urtea. / LOIOLAKO ARTXIBOA

koitzari destinoaren berri. Patxiri, aurreko urtean Loiolan urtebete gehiago eginarazi zion aita Probintzialak, 1950eko maiatzean Oñan (Burgos, Espainia) Filosofia ikasketak egiteko destinoa ezarri zion.

Uda Loiolan eman zuen gainerako juniorrekin. Irailaren lehen egunean, ordea, Oñara abiatu zen Filosofia ikastera, Junioradoa amaitu berri zuten apaizgaiekin batera.

Filosofia ikasketak Oñan

Oña, Burgosko herrixka txiki bat da. Bertan, Jesulagunek, komentu zahar eta handi bat erosi zuten XIX. mendean, eta Filosofia eta Teologia ikasketak ezarri. Etxetzar hori, ikastetxea ez ezik, bizilekua zuten Filosofia eta Teologia ikasten ari ziren jesulagun apaizgaiek. Baina filosofoek eta teologoek ez zuten beren artean harremanik, urtean bospasei jai handitan izan ezik. Bi lagunarte edo komunitate gisa bizi ziren, bakoitza zegokion etxearen alderdian.

Oñan, dena berria izan arren, eguneroko bizi-modua ezer gutxi aldatu zitzaion Patxiri. Izan ere, Lagundiaren ohiturak berak dira eta egunaren bana-keta bertsua.

Ikasketak izan zituen guztiz ezberdinak, Junioradoan batik bat, hizkuntza kontuak izan bazituen ikasgai; Oñan, berriz, filosofiaren ingurukoak.

Filosofiako ikasgai nagusiak, Logika Nagusia, Metafisika, Etika, Teodizea, Kosmologia eta Psikologia Enpirikoa ziren. Ikasgai nagusiok hiru urtetan zehar ikasi zituzten, baina hauez gain, bigarren mailako ikasgaiak ere izan zituzten; esaterako, Dialektika, Matematika, Kimika, ... Bigarren mailako ikasgai hauek, gehienez hiru hilabete luzatzen ziren eta ikastaro gisakoak izaten. Bata amaitu orduko, haren azterketa egin eta ikastaro berri bati ekiten zitzaion.



Patxiren etxeak Oñara Patxi bisitatzera joan zirenekoa. Eserita gurasoak eta zutik anaia Javier. / PATXI ALTUNA

Hauetz gain, eliz ikasketa guztietan bezala, ostegunetan hizkuntzaren bat ikasteko aukera izaten zuten. Patxik hiru urte haietan frantsesa eta alemana izan zituen ikasgai. Eta beti bezala, hamaikak aldera arte frantsesa edota alemana ikasi ondoren, paseora ateratzen ziren hirunaka bazkaria hartuta.

Igande goizetan, egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko denbora izaten zuten. Arratsaldeetan, be-

rriz, bazkaldu eta berehala filosofo batzuk —Patxi hauen artean— dotrina erakustera joaten ziren inguruko herrixketara, eta afaltzerako itzultzen ziren.

Astearteetan eta larunbatetan atsedenaldiru luzeagoak izaten zituzten —ordu eta erdikoak— eta futboleant, pilotan, tenisean edota saskibaloian jolasten ziren. Patxi Olariagak, Oñan ikaskide izan zueanak dioenez, “lau joko horiek zeuden. Saskibaloia sartu zen azkena eta futbolari ere kostatu zitzaion sartzen, futboleant jokatzeke zelairik ez zegoelako, baina halako batean bi zelai txiki egin ziren, bat filosofoentzat eta bestea teologoentzat. Baina geuk egin genituen lanak, geuk garbitu genituen zelaiok. Nik gehien tenisean jokatzen nuen. Patxik, berriz, beti futboleant, ez zen inoiz beste jolasetan ibiltzen. Eta futboleant, *extremo derecho* jokatzen zuen, dezente azkarra baitzen”.

Udak, Loiolan bezalatsu eman zituzten Oñan. Opor handietan, eskolak bazterrera utzi eta txangoak, jolasaldiru luzeak, denbora libre gehiago... izan zuten. Opor txikietan, berriz, jolasaldiruak urritu eta hizkuntza ikastaldiru ekiten zieten. Oñan, ordea, Loiolan aldean eguraldiru ona egiten zuenez, paseora ateratzeko edota kanpoan jolasteko leku egokiagoa zuten. Gainera, Oñako etxeak igerilekua zuen eta bertara igeri egitera joaten ziren. Hori bai, jolasak filosofoek filosofoekin eta teologoek teologoekin egiten zituzten eta herriko jendearekin inola ere nahastu gabe.

Uda haietako batean, bigarrengoan, abuztuaren 24an etxekoen bisita izan zuen Patxik. Aita, ama eta anaia Javier joan zitzaizkion bisitan. “Igrande ba-

tean bazkalondoan iritsi ziren etxeoak. Lehenengo, etxearen baratzea erakutsi nien eta ondoren, kanpora atera ginen, inguruko bazterrak ikustera. Kanpoan pixka bat ibili ondoren, gurasoek ekarri zuten meriendatxoa jan genuen. Egun polita pasatu genuen elkarrekin”, dio.

Euskararekin zaletzen

Patxik, eliz ikasketak hasi zituenetik eta Filosofiako urteetan ere, gaztelania arnastu zuen gehienbat. Hori dela-eta umetan etxean ikasi zuen euskara trakesten ari zitzaien. Trakestu bai, baina ahaztu ez. Izan ere, Loiolan bizi izan zen artean, dotrina irakasten zela, arrosarioa euskaraz irakurri behar zuela, etxeoen bisita urriren bat zela, bazuen euskaraz egiteko aukerarik.

Filosofiako hiru urteetan, zalantzarik gabe, gaztelaniaz bizi behar izan zuen, debekatua baitzuten Oñan euskaraz hitz egitea. Hala kontatzen du behintzat, aita Errandoneak: “Han euskaraz egin, ezta!... Kanpora, paseora ateratzen ginenean ere debekatu egiten ziguten euskaraz hitz egitea”. Etxera bidaltzen zituzten gutunak ere, zentsura zela medio, gaztelaniaz idatzi behar izaten zituzten. Baina Patxik bere denbora librean, bere gelan sartuta euskal liburuak zituen irakurgai: Mendiburu, Lizarraga, Axular, Orixe...

Pixkanaka-pixkanaka, Patxiri euskararekiko gogo handitzen ari zitzaien. Txundituta gelditzen zen, esaterako, Orixeren olerkiekin. Gogo horren agergarri da, Filosofiako urteetan egindako eta

egundo ezagutzera eman ez den itzulpen lana: Tomás de Kempis (1339-1471) idazle mistikoak idatzitako *Imitación de Cristo* lan entzutetsua, hain zuzen. Kempis idazle holandarrak lan hori latinez idatzi zuen eta Patxik latinetik euskarara itzuli zuen garai honetan, 1953-1958 bitartean, gutxi gora-behera.

Urtero bezala, udaberrian egin zien bisita aita Probintzialak, Filosofia amaitzear zeuden ikasleei hartu beharreko destinoaren berri emanaz. Hau da, nork nora joan behar zuen: maisu txiki lanetara eskolaren batera edo, kasu bakan batzuetan egin ohi zen bezala, nork, maisu txikitza egin gabe, ikasketa unibertsitarioak egingo zituen. Aita Probintzialak Patxiri eman zion destinoa, Salamancako (Espainia) Unibertsitatera Filologia Klasikoa ikastera joatea zen. Izan ere, nagusiek Patxi Junioradoko latin irakaslea izatera bideratu nahi zuten. Baina ez zihoan bakarrik Salamancara; izan ere, Filosofian ikaskide zuen Javier Petrirenari ere destino bera eman zion aita Probintzialak.

Filosofo apaizgaiek ikasturte amaierarako bazekiten zein izango zen beraien destinoa. Baina Oñatik alde egin baino lehen froga gogor samar bati egin behar zioten aurre: *De Universa Philosophia* deitzen zen errebalida gisako azterketari.

Azterketa honetan Filosofiako ikasgai nagusiak ziren Logika, Metafisika, Psikologia, Kosmologia, Teodizea eta Etikan oinarritutako gai zerrenda bat izaten zuten ikasgai. Hauek prestatzeko, bi hilabete-ko epea izaten zuten.

Azterketa hori gainditzea oso garrantzitsua zen; *De Universa Philosophia* azterketak apaiztu on-

doren egiten ziren, botoak baldintzatzten baitzituen. Hau da, azterketa gaindituz gero, Teologia *por maior* —bide zailetik— ikasten zen eta lau boto —kastitatea, pobre bizitzea, esaneko izatea eta Aita Santuari esaneko izatea— egiteko bidea zabalik izaten zuten, baldin eta gero Teologiako lau kurtsoetako azterketak banaka-banaka gainditzen bazituzten. Azterketa ez gaindituz gero, ordea, Teologia *por minor* —bide errazetik— ikasten zen eta hiru boto egiten ziren; hau da, lehenagotik egindakoak berritzen ziren —kastitatea, pobre bizitzea eta esaneko izatea—.

Filosofiako hiru urteetan gogor lanean emandako orduak eta errebalida azterketa prestatzeko azken bi hilabete luze haiek izan zuten ongi merezitako saria Patxirentzat, erraz gainditu baitzuen errebalida azterketa.

Filologia Klasikoa Salamancan

1953ko irailean joan ziren Javier Petrirena eta Patxi Salamancara, Filologia Klasikoa ikastera Universidad Literaria de Salamanca zeritzonera. Baina Patxi ezin izan zen matrikulatu. Izan ere, Xabierko ikasleak, eta seminarioetako ikasleak oro har, batxilergoko sei urte egin eta nobiziadora joaten ziren, zazpigarren maila eta errebalida azterketa egin gabe. Ondorioz, Patxik batxilergoa amaitu gabe zuen.

Filosofiako ikasketak egiteagatik batxilergoko zazpigarren maila konbalidatu egin zioten, baina ez errebalida azterketa. Beraz, unibertsitatean matrikulatzeko errebalida gainditu behar lehenengo. Eta,

gainera, urte hartan bertan Gobernuak ezarritako erreforma bat zela medio, Unibertsitate Aurreko Ikasturtea ere egin beharra egokitu zitzaion.

Kontuak kontu, unibertsitatean matrikulatu ezinik gelditu zen Patxi!

Orduan, ikasturte hartan lehenengo lana batxilergoko gaiak prestatzea zuen. Patxik ez zuen atzera geratu nahi eta egun batean bere irakasle izango ziren irakasleei baimena eskatu zien beraien eskoletara entzule gisa joateko. Baita baimena lortu ere.

Beraz, ikasturtea gainerako ikasleen antzera eman zuen: eskoletara joanez, baina lauhilabetekoen amaieran azterketak egin gabe. Urte hartan, karrerako kurtso komunetako lehen eta bigarren mailetako eskoletara joaten zen. Eta etxeko ikastorduetan, unibertsitateko gaiak ez ezik, batxilergoko gaiak zituen ikasgai.

Halabeharrez, batxilergoko errebalida azterketa aurreratu egin zuten eta abenduan egin zuen Iruñeko Institutuan. Erraz gainditu zuen. Horrela oroitzen da azterketan izan zen Ladis Imaz: “Guk, gainerako kideok jakin nahi handiz jarraitu genuen Patxiren azterketa. Izan ere, bagenekien Patxik Perficit ikasketak eginak zituela, eta Salamancako unibertsitateko ikasle-entzule zela. Idatzizko azterketa erraz gainditu zuen, bikaina lortu zuen. Ahozko azterketa jendeari irekia zenez, han izan ginen guztiok begiak eta belarriak adi. Aita Mariano Caldúk Soflokes-en ganean galdera orokor bat egin zion eta Patxik erantzun: “*¡Qué quiere que le diga de Sófocles, pues es un tema tan amplio!* Eta azterketa horretan ere bikaina lortu zuen”. “Izan ere, Perficit



Patxiarekin batera Salamancako unibertsitatean Filologia Klasikoa ikasi zuten gazteak. Patxi erdi-erdian dago, sotana jantzita. / PATXI ALTUNA

urtean ikaragarri sakondu genuen Sofoklesen zazpi tragedietan, eta ia buruz nekizkien lanok”, aipatzen du Patxik. Errebalida azterketa gainditu eta urtarrilean, sei hilabete iraun zuen Unibertsitate Aurreko Ikasturtea zeritzanari ekin behar izan zion, karrerako lehen eta bigarren mailetako ikasgaiez gain.

1954ko ekainean, Zaragozako (Espainia) Filosofia eta Letrak Fakultatean unibertsitate aurreko azterketara aurkeztu zen azkenean. Baita aise gainditu ere, bikain *cum laude* nota eskuratu baitzuen.

Ekain amaieran, beraz, batxilergoa eta unibertsitate aurreko azterketa gaindituak zituen eta, bestalde, unibertsitateko eskolak ere amaituak. Salamancan beste betebeharririk ez eta Loiolara etorri zen bisitaldi laburra egitera. Uda hartan, ordea, ika-

si beharra zuen, irailean azterketetara aurkeztu nahi baitzuen. Bake-bakean ikasteko leku aproposena Xabier iritzita, hara joan zen. Xabierko kriptan giro ederrean eman zituen egunak ikasi eta ikasi. Baina uda guztia ez zuen liburu artean eman, opor egunak ere hartu zituen; esaterako, San Inaziotan Loiolara etorri zen eta Veruelako (Zaragoza, Espainia) jesulagunen etxean egun batzuk eman zituen.

Abuztua amaitu eta berehala, Salamancara bueltatu zen, Filologia Klasikoan matrikulatu eta irailiko azterketak egiteko asmoz.

1954ko irailaren 18an, Filologia Klasikoko komunak zeritzaten bi lehenengo mailetako ia ikasgai guztietan matrikulatu zen, bat edo bi aurreragoko utzita. “Legez eta garaiz kontrako ezkutuko matrikulak ziren, baina Tovar jaunari esker posible izan ziren. Hark hitz egin zuen idazkariekin eta modu onean ene matrikula ‘estrainioa’ onarrarazi. Ez zen alferrik, alajaina, Unibertsitateko Erretore jauna”, kontatzen du Patxik. Badirudi Tovar jaunak ikasle fina eta serioa ikusten zuela Patxi, eta hala erakutsi zuten, iraileko azterketa haiek aise gainditu baitzituen. Hauek gaindituta, urte bereko urriaren 2an Filologia Klasikoko hirugarren mailako ikasgaietan matrikulatu zen. Halabeharrak matrikulatzerakoan urtebete atzerarazi bazuen ere, urtebeteko aldea atera zien berekin batera ikasten hasi zirenei.

Salamancako bizimodua

Salamancan jesulagun etxean, Colegio de San Estanislao deritzanean bizi zen, nobizioen, juniorren



Salamancako San Estanislao Kolegioa. Patxik Filologia Klasikoa ikasi zuen urteetan bertan bizi izan zen.

eta Hirugarren Probantza egiten ari ziren gazteen artean. Ikasleez gain, bertan jesulagun erretiratuak, gaixo zeudenak ere bizi ziren. Baina guztiekin gutxi nahastuta. Haiek eguna etxean ematen zuten eskoletan edota beste eginkizunen batean. Patxik eta bera bezala karreraren bat ikasten ari zirenek, berriz, eguna etxetik kanpora ematen zuten; izan ere, orduan unibertsitatean eskolak goizez baino ez baziren ere, arratsaldeaz askotan joan behar izaten zuten.

Bazituzten egunean zehar komunitate bizimoduak ezarritako hainbat betebeharrak, baina nobizio edo junior izan zenean izan zituenekin alderatuz askoz bizitza libreagoa zen oraingoa. Jesulagun apaizgaiak zenbat eta helduago izan, askatasun handiagoa ematen baitzion Lagundiak.

Unibertsitateko bizimodua ere, trukada izugarria izan zen Patxirentzat. Hasteko, eskoletan neskak baitzituen ondoan. “Nik, neska zer zen ez neki-en. Hamabi urterekin kolegiara joan, oporretan geu lagunak ibiltzen ginen elkarrekin, eta neska eder bat zer zen jakin gabe sartu nintzen jesulagun. Eta unibertsitatean, haiekin topo egitean, honek dudarik gabe ukitua egin zidan. Ez nengoen horretara ohitua”.

Aldaketa nabari horretaz gain, betidanik oso gogokoa izan duen hizkuntzaren eta literaturaren azterketan sakontzeko aukera aparta izan zuen. Filologia ikasketek, hain zuzen ere, euskararekin gero eta zaletuago zegoen Patxiri, lanabes berriak eskaini baitzizkioten euskararen azterketarako.

Horrez gain, aparteko irakasleekin egin zuen topo Salamancan. Gainera, irakasle hauetako batzuk, euskara eta euskalgintza ezaguna zuten. Eta horrek ere asko lagundu zion, ordura arte ezkutukoa izan zuen zaletasun hura ezagun egiten.

Salamancako unibertsitatean, euskal kontuez jantziena zegoen irakaslea Antonio Tovar zen. Antonio Tovar (1911-1985) Filologia Klasikoan dokortua zen eta Salamancako unibertsitatean latineko katedra lortu zuen 1942an. 1953-56 bitartean, Patxi han egon zen hiru lehen urteetan, bertako erretore izan zen.

Tovarrek, penintsulako hizkuntza zaharrak aztertzea oso maite zuen; hori dela-eta euskara askotan izan zuen aztergai. Lanik ezagunenak, *La lengua vasca* eta *Mitología sobre la lengua vasca* dira. Euskararen ganean egindako lanagatik, Euskal-

tzaindian izan zuen lekurik, bertan ohorezko euskaltzain izan zelako.

Beraz, Salamancako unibertsitatean euskarekin liluratuta zebilen gizon handi hura ezagutu zuen. Patxik eskolan irakasle izateaz gain, etxerako bidean askotan batera joaten ziren hiriko plaza ederreraino, eta adiskide izatera ere iritsi ziren.

Antonio Tovarrek latin eskolak ematen zituen Filologia Klasikoko fakultatean. Horrez gain, euskarekiko zuen maitasun horrek eraginda, *Manuel de Larramendi* katedra sortu zuen Salamancako unibertsitatean. Hori dela eta, euskararen inguruko eskolak sortu ziren. *Lengua vasca* zeritzon ikasgai hori, noski, hautazkoa (*asignatura libre*) zuten Filologiako ikasleek, eta horregatik ikasle gutxiko eskolak izaten ziren. Patxik eskola hauen berri, bere bigarren artikuluan, *Euskaldunak Salamanka'n* zertizanean eman zuen: "Astean bein izan oi da Salamanka'ko Ikastetxean euskal-irakastaldia. Axular ta Lizarraga ta Orixe... ta beste zenbait ere irakurri izan ditugu. Eskolara zenbat lagun biltzen geran ba'zeneki...! Ez esatea obe. Ta joaten ez diran oiek ere, euskaldunak noski. Bere gisako euskaldunak ordea". (*Egan* 9, 1957, 67-69orr.)

Harrigarria egiten da Salamancan euskal ikasgai bat izatea. Baina badirudi ikasle euskaldun asko zegoela eta hauek eskatu egiten zutela. Eta ez Salamancan soilik, baita Espainiako beste zenbait unibertsitatetan ere. Mitxelenak Patxiri 1958ko urriaren 1ean egin gutun batean hala dio: "Zaragoza'ko ikasle euskaldunak alegiñean ari dira euskal-klaseren bat jarri ote dezaketen Unibersidadean. Irakaslea

falta zaie, ordea. Zuek ez ote zendutekete an da goenik, euskeraz ongi dakienik eta orretarako asti eta gogorik lukeenik?”.

Hainbat ahaleginen ondotik, lortu zen Zaragozako unibertsitatean ere euskara ikasgai izatea. Hala ikus daitezke 1958ko abenduaren 17an Zaragozako *El Noticiero* egunkariak argitaratu zuen ondoko berrian: “*El vascuence nueva asignatura en el plan docente de nuestra Universidad*”. Artikulu honetan dio, Zaragozako unibertsitateak 1958-1959 ikasturtean euskara ikasgaia sartu zuela Filosofiako eta Letretako fakultatean, hango ikasleek hala eskatuta. 350 bat baitziren euskaldun ikasleak unibertsitate hartan. Horrez gain, aipatzen du Salamancako unibertsitateak ordurako bi edo hiru urte zeramatzala euskararen irakaskintzan. Eta Espainiako unibertsitateetan ez ezik, Bordele (Frantzia), Berlin, Praga, Hanburgo (Alemania) eta Europako beste hainbat unibertsitateetan ere ikasgai zutela euskara.

Lengua vasca zeritzon eskolan zazpi-zortzi ikasle ziren, ia denak euskaldunak, baina baziren ez zirenak ere, jakin-minak bultzatuta ikasgai hori hautatu zutenak. Eskolan euskal testuak aztertzen eta itzultzen zituzten, zalantza ugari bide zirela. Izan ere, Tovarrek euskararen inguruko lanak egin bazituen ere, eta euskara ulertzen bazuen ere, ez zekien euskaraz hitz egiten eta euskara biziaren hainbat xehetasunek ihes egiten zioten. Horregatik, Patxik Tovar jaunari zerbait galdetuz gero, Tovarrek esaten omen zion, “*padre Altuna, es usted el que me tiene que enseñar*”. Badirudi, beraz, ordurako nahiko jantzia zegoela Patxi euskara kontuetan.

Patxirengan eragina izan zuen Antonio Tovar irakasleaz gain, izan zuen Salamancan makina bat irakasle handi, horien artean Martin Ruipérez. Honen fonetika eskoletan ikasi zuen, hain justu ere euskarazko 'ts'a ahoskatzen. "Eskola hauetan hizkuntza desberdinen sistema fonetikoak ikusten genituen eta horien artean euskararena. Ruipérez irakaslea euskal kontsonanteak ari zen azaltzen eta 'ts'ra iritsi zenean, aiba la mar!, zeharo harrituta geratu nintzen. Niretzat deskubrimetua izan zen, ez bainuen 'ts'aren ahoskera inoiz aditu. Eta aditu bannuen ere, ez nintzelako halako desberdintasun batez konturatzeko gauza izan".

Euskalgintzarekin harremanetan

Oñan Filosofia garaian egiten zuen bezala, gero ere bere kabuz itzulpenak egiten zituen. Ariketa moduan egunkariko berriak itzuliz batzutan, klasikoen lanen zatiak bestetan. Mitxelenak berak ere hala eskatu zion 1956ko maiatzaren 18an Donostiatik bidalitako gutun batean: "Filologia Klasikoaren iturrian bertan zauden ezker, ez ote zenduke beste zerbaitekin saiotxoren bat egingo? Ortan dakizune enago oso trebe, baiña Platon'en Kriton bezalako gauza labur eta erraz bat oso ederki letorkiguke".

Garai hartan, 1950. hamarkadan, euskararen inguruan lan gutxi zeuden eginak. Batetik, Francok ez zituen gauzak errazten, hasiera batean debekatu egin baitzuen euskaraz argitaratzea, eta aurrerago zentsura gogorra ezarri. Bestetik, euskalgintzan Filologia ikasitako jende gutxi zegoen. Horregatik egin

ahal zuenari lanak eskatzen zitzaizkion. Patxiren euskararekiko grina eta Filologia ikasketak egiten aritzea ekarpen handia izan ziren euskararen inguruko lanak hain urriak ziren garai hartan. Baita gero-
ra ere.

Jada euskalgintzan murgildua genuen Patxi. Garaiko euskaltzale ugari ezagutzen zuen. Batzuk, Salamancako egonaldiari esker eta beste asko Lagundiko kide zirelako. Gainera, batzuekin gutun bidez harremanetan egon ohi zen. Lehenengo artikulak ere unibertsitate garaian idatzi zituen. Pixkanaka-pixkanaka izena hartzen joan zen, hortaz, Patxi, euskalgintzan.

Koldo Mitxelena ere garai hartan ezagutu zuen. Martín Ruiperez irakasleak Salamancako unibertsitatean antolatutako hitzaldi batzuetan hizlari gisa Koldo Mitxelena eta Herr Löpelmann hizkuntzalari-euskalari alemana, besteak beste, gonbidatuta eraman zituztenean.

Patxi entzule gisa izan zen hitzaldi haietan eta orduan izan zuen Mitxelena ezagutzeko parada. Hitzaldiak halako mugarri bat ezarri zuen Patxiren euskal ikasketetan. Bazuen non atea jo zalantzak zituenean. Handik aurrera elkarri hainbat eskaera eta kontsulta egin zizkioten.

Garai hartan, unibertsitatea zela-eta euskaldun asko zegoen Salamancan eta elkar hartuta zeuden beren artean. Esaterako, bazuten Salamancan euskaldunak elkartzeko gun bat. Han ezagutu zuen, adibidez, Salamancan lanean ari zen Iñaki Zabala mundakarra. Oso lagun egin ziren biak eta handik aurrera hartu-eman handia eduki zuten.

Euskaldunak asko baziren ere, ez zegoen kontzientziarik euskararen inguruan. Jende euskaldun ikasia bazen, baina euskalgintzara oso gutxik jo zuten, inongo garrantzirik eman gabe beraien ama hizkuntzari. Orduan, inor gutxik ematen baitzion euskarari garrantzia.

Gutxi baziren ere, baziren, arestian ikusi moduan, Espainiako unibertsitateetan euskara ikasgai gisa eskatzen zutenak eta lortu zutenak ere.

Patxiren ekarpena, beraz, altxorrik preziatuenaren pareko hartua izan zen garai hartan. Salamancan Filologia ikasten ari zen unibertsitario baten ekarpena baitzen hura.

1956ko Arantzazuko Biltzarra

1956ko irailaren 14an, 15ean eta 16an Arantzazun Euskaltzaindiak antolatutako biltzarra izan zen. Euskaltzaindiak gerraondoan antolatu zuen lehen biltzarra. Euskalgintzak gerra zela-eta jasan zuen etenaren ondoren helburu xumeak eta, era berean, oso premiazkoak zituen Euskaltzaindiak biltzar hartan: “Lenengo: euskaltzaleok elkar ezagutzea. Bigarrena: elkar-berotzeko. Hirugarren: asmoz eta jakitez jarraitzeko. Eta azkenik: Euskera biziari nola eutsi asmatzeko”. (*Arantzazu* aldizkaria, 1956, 9. alea, 375 zenbakia, 269-271 orrialdeak.)

Patxi hizlari gisa gonbidatu zuten batzarrerera. Aita Luis Villasante, Jose Miguel Barandiaran, Candido Izagirre, Bitoriano Gandiaga, Fernando Mendizabal, Ignacio Ormaetxea, aita Zabala, Koldo Mitxelena, Antonio Arrue eta Jose Maria Lojendio-

rekin batera, hizlari izan zen Patxi. Bere hitzaldiak *Azpeitiko euskera aztertuz* zuen izenburua. Hitzaldian, aspaldian buruan zerabilen egitasmo batez hitz egin zuen. Eta honela zioen bere hitzaldian, besteak beste, “Zer asmotan naizan? Irakasle bikain ta adiskide zintzo dedan Tovar Jaunak idaroki zidan, *tesis doctoral*-orretarako, beste iñungo lanik baño egokiago nuela, nere erriko euskelgia azterkatu eta ikertzea (...) Igazko kontuakin ari natzaizue. Baña artean ni karrera’ko ikaslanen zamapean nengon ta gauz aundirik egin ezin, nai ta ere. Itzak, esaerak, Azpeitiarrak dituzten bere bereziak biltzen asi nintzan”.

Eta honela amaitu zuen hitzaldia: “Bukatzeranoa. Noizbait egingo dedan lanaren zatiak ageri nai izan dizkizuet txikian Fonetike, Morfologi, aditza, toki izen, giza izen... izango dira aztertuko ditudan saillak”. (Arantzazuko euskaltzaleen biltzarra, *Euskera* I, 1956, 169-173 orrialdeak). Benetan egitasmo handinahikoa, azpeitiarrontzat eta euskaldunontzat oro har bidean galdu zena.

Hitzaldi hura artikulu batean bildu zuen Patxik eta Arantzazuko Biltzarreko gainerako hitzaldiekin batera, Euskaltzaindiaren agerkari ofizial *Euskera* aldizkarian argitaratu; 1956an egin zuen, beraz, Patxik bere lehen artikulua, *Azpeitiko euskera aztertuz* izenburupean.

Patxi, orduko asmo horretaz oroitzean lotsatu egiten da. “*La ignorancia es atrevida. Sobre todo cuando es supina*”, esaten zuen batek. Edozeini koloreak ateratzeko modukoak dira hitz horiek, nik orduan tesia zer zen ere ez nekien eta”.

En esta forma el plural de es - z k - los dos últimos son proceden de	ekari z esee en voz de z ute z iesee " " " z ute z iebeen " " " z ute
dese en voz de z ute dise " " " z ute dizeke " " " z ute	
dese uniga dizeke en voz de z ute	
ekari z ite en voz de z ite (plural - z te.) dizeke " " z ite (" - z te) dizeke " " z ite (" - z te) dizeke < z ite < z ite (" - z te ?)	
ekari z ite ...	

gaithean = **z**ite
gaithean = **z**ite, **z**ite, **z**ite

Entonces, pues, en el habla de Azpeitia
por lo menos cuatro formas, al menos
las formas: -**z**te, -**z**te, -**z**te, -**z**te / que
todas ellas, derivadas a **z**ite
que por cada de **z**ite y entre ellas
de **z**ite, han dado origen a estas
cuatro hoy iguales.

Salamanca, Patxi buruan zuen Azpeitiko euskarari buruz tesi lana egitea, eta Azpeitian batari eta besteari entzundakoak biltzen hasi zen paper muturretan. / PATXI ALTUNA

Udak

Udatan ez zen Salamanca geratzen; Veruelara (Zaragoza), Xabierrera, Loiolara, Getariara (Gipuzkoa)... joaten zen oporretan. Irailerako ikasgaiarik prestatu beharrik izaten ez bazuen ere, beti eraman ohi zuen liburu fardelen bat berekin. Axular, Mendiburu eta Orixeren liburuak izaten zituen, besteak beste, orduan irakurgai eta aztergai.

Unibertsitarioen udak luze jotzen duenez, makina bat gauza egiteko denbora izan zuen. Irakurraldi luzeez gain, irakasle lanetan ere aritu zen uda haietako batzuetan. Oporrak hartuta Loiolara etorri eta bertan zeuden juniorrei euskarazko eskolak ematen baitzizkien, haien opor txikietan. Ladis Imaz,

orduan junior zenak, ondo oroitzen ditu Patxiren eskolak: “Zoratzen egoten nintzen Patxiren eskole-tan. Oso irakasle ona zen, harekin hasi nintzen euskaraz lehen urratsak ematen”.

Azpeitian, Getarian... hots, euskaraz hitz egiten den lekuren batean zebilenean, beti belarriak adi egoten zen. Esaera, hitz berri edo bitxia entzun aha-la edozein paper muturretan oharrak jasoz. Ohitura hori bizi guztian izan du, orain ere beti adi egoten da batek zer nola esaten duenari.

1955eko uda zeharo ezberdina izan zen Patxi-rentzat. Uda hartan Euskal Herri aldera etorri behar-rean, Alemaniara joan baitzen, Bonn-eko unibertsitateak hizkuntza eta literatura alemanari buruzko udako ikastaroak antolatu zituelako. Patxik ikastaro haietan parte hartu ahal izateko beka bat eskatu zuen Madrilan, eta Antonio Tovar irakasleak, orduan Salamancako unibertsitateko erretorea zenak, lagundu egin zion. Beka lortu eta abuztuan joan zen Patxi Alemaniara. Ikastaroa hilabetekoa izan zen, baina Patxik egonaldia Gabonak arte luzatu zuen, alemana hobeto ikasteko.

Udak batean edo bestean eman arren, herriko festatan, San Inaziotan, beti izaten zen Loiolan, Alemanian izan zen abuztu hartan izan ezik.

Salamancako azken urtea

Karrera ikasten ari zela, buruan zuen, bada, Patxik Doktore tesia egitea. Gaia ere bazuen: *Azpeitiko euskera*. Hori zela eta, 30 urterekin lizentziatu ostean, urtebete gehiago geratu zen Salamancan dokto-

radutza ikastaroak egiteko eta Salamancako bi unibertsitateetatik eskainitako irakasle lanpostuak betetzeko.

Lehenengo eskaintza, bera ikasle izan zen unibertsitateak egin zion, Universidad Literaria de Salamanca delakoak, Antonio Tovar irakaslearen orde, *Lengua vasca* ikasgaia eman zezan. Bigarrena, Universidad Pontificia de Salamancako buruak egin zion, aita Julio Fantini irakasle hilberriaren hizkuntzalaritza eskolak eman zitzaizkion.

Azken urte honetan, 1958an argitaratu zuen hirugarren artikulua *Olabide A. ta Kisto'ren Antz-bidea, Euzko-Gogoak* aldizkarian.

Raimundo Olabide jesulagunak (1869-1942), 1919tik 1942ra euskaltzain oso izandakoak, besteak beste Itun Berria itzuli eta argitaratu zuen. Itun Zaharra itzultzen ari zela, ordea, hil egin zen. Felix Etxeberriak itzulpen lan hori osatu eta 1958an Itun Zar eta Berria izenaz argitaratu zuen. Argitarapen hori zela-eta *Euzko-Gogoak* irail-abenduko alea eskaini nahi izan zion Raimundo Olabideri. Horretarako, hainbat euskaltzaleri Olabideren lanari buruzko artikulua eskatu zitzaion, eta hauen artean Patxiri. Patxik artikulua horretan Olabideren *Kisto'ren Antz-bidea* lanaren sintaxiaren hainbat berezitasun izan zuen hizpide.

Amaitu zen, beraz, Patxiren Salamancako sei urteko egonaldia. Unibertsitatean irakasle lanetan gelditzeko behin eta berriz eskatu bazioten ere, Patxik bere bidea jarraitu nahi zuen eliza ikasketetan. Hortaz, irakasle lan hari uko eginda, udan Loiolara etorri zen, irailean Teologia ikasketak Oñan

hasi aurreko opor egunak pasatzera. Uda irakurraldi luzeetan, paseoetan, hain maitea duen San Inazioaren bederatziruureneko mezatan eta bestelako eginkizunetan eman zuen.

Uda hartan izan zuen aparteko irteera bat. Olabideren Bibliaren argitalpena zela-eta Patxi eta Miguel Etxeberria jesulaguna Araman izan ziren uda hartan, Orixeri liburua eramaten. Miguel Etxeberriak ongi gogoratzen du Orixeri liburua eman zioteneko arratsalde hura. “Orixe ez zen indar handiko gizona garai hartan eta Aramako apaiz etxean bere iloba apaiza, Jose Mari Aranalde eta honen arrebaren batekin bizi zen. Aramara joan ginen, etxeagatik galdetu, Olabideren Biblia eraman genion. Gure Orixek ohetik liburua hartu eta lehendabizi musu eman zion eta gero buru gainean jasota, hantxe eta oh, oh,... eta berriz ere musu eman. Eta halaxe utzi genuen”.

Ordurako, ezaguna zuen Patxik hainbeste mi-
resten zuen Orixe, eta gutun bidez elkarren berri ere bazuten aspaldian. Hala ere, hura izan zen Orixerekin hitz egin zuen azken aldietakoa.

Uda amaituta, bost urtez alde batera utzita izan zituen eliza ikasketei ekiteko gogoz, Teologia ikastera Oñara abiatu zen irailaren hasieran.

Teologia ikasketak (1958-1962)

Berriz ere hain ezaguna zuen Oñara itzuli zen Patxi. Baina, 31 urte zituela, Filologia Klasikoan lizentziatuta, euskara alde guztietatik zeriola eta Oñako beste alderdian, Teologoen alderdian, bizi eta ikasketeko gogoz biziz.

Salamancako unibertsitario bizitza utzi eta berriro Oñako etxearen harresien artean bizitzea, aldaketa handi samarra zen. Dena dela, Teologiako ikasleek gainerakoek baino askatasun handiagoa zuten, eta apaizteko zuen gogo hark ere eramangarria egin zion Oñako itxitura hura.

Hala ere, bolada latz samarra igaro zuen Teologiako lehen urte hartan; bokazioa zalantzan jartzeko adinakoa, hain zuzen. “Zalantzak zirela-eta Oñako aita Espiritualagana joan nintzen hitz egitera. Nire ezinegona adierazi nion, eta agian Lagundia uzteko tentaldia. Aita Espiritualak, besterik gabe: ‘*Si, salga usted*’, esan zidan. Erantzuna ez zitzaidan, ordea, batere gustatu; ez baitzidan erantzuna arrazoi-tu eta hari kontra egiteagatik bakarrik ez nintzen atera. Gerora bolada txar hura gainditu ahal izan nuen”.

Teologoek bizimodua filosofoenaren tankerakoa zen, egunean zehar zituzten eginkizunak berdintsuak ziren, baina ikasketak zituzten ezberdin. Filosofiako gaien ordez, Teologiakoak.

Teologiako liburuez gain, esku artean eta buuruan zerabiltzan Patxik euskal liburuak ere. Izan ere, Salamancako ikasketak ezinbestekoak izan ziren Patxik euskal munduarekin zuen harremana sendotzeko. Beraz, urte horietan Teologian murgilduta egon arren, makina bat ordu eskaini zizkion euskararen azterketari.

Euskaltzale taldetxoa


Oñan euskararekiko gogoia edo kezka zuten aspal-diko lagunekin egin zuen topo: Iñaki Arregi, Julian

Bereziartua, Jose Ignacio Iruretagoiena, Iñaki Larrañaga, Patxi Olariaga, Javier Oleaga, Pedro Maria Sarrikolea, Vicente Zabala... eta eguerdiko atsedendietan euskaraz hitz egiteko elkartzea erabaki zuten.

Hauek maisu txiki edota karrera ikasten ari zirenetik bazekarten euskararekiko gogoia. Eta Oñan aparteko aukera izan zuten, euskara ikasi eta landu nahi zuen taldetxo osatu baitzen. Baina talde horretako kide gehienek etxeko euskara baino ez zekiten, eta hura ere erdi ahaztua, ez erabiltzearen poderioz. Horregatik taldeak helburu xume bakarra izan zuen: elkarrekin euskaraz hitz egitea. Nahiz eta hori baino gehiago lortu zuten.

Aita Patxi Olariagak, taldetxoko kideak aitortzen duenez, “euskararen beharra” zuten. “Nik hamabi urtera arte ia euskaraz besterik ez nuen hitz egin, eta Teologia egiten hasi ginenean Oñan, ia ez nintzen euskaraz esalditxo bat egiteko gauza. Hortik atera non zegoen nire euskara. Atzerrira ez nindutela bidaliko ikusi nuenean —hau da, Euskal Herrira bidaliko nindutela ikusita—, nik nire artean pentsatu nuen: ‘Nik euskara ikasi beharra zaukaat nahi eta nahi ez’. Eta egin behar hori genuen: euskaldun artean lan egiteko euskara ikasi, eta euskaraz hitz egiten aritu ginen egunero, beste hizkuntza guztiak ahaztuta”.

Elkarrekin euskaraz hitz egiteaz gain, bakoitzak bere kasa irakurketa, konposizio ariketa edota itzulpenak eginez, euskaraz janzten saiatu ziren. Noizbehinka elkarraldia izaten zuten, zalantzak azaldu eta guztien artean argitzeko. Patxi euskara



kontuetan besteen aldean jantzia zegoen, eta irakasle lanak egin zituen.

Euskaraz trebatzeaz gain, euskarazko lehen artikulutxoak idazteko aukera ere izan zuten taldeko partaideek. Izan ere, bazen garai hartan, Jesusen Lagundian euskaraz aldizkari bat argitaratzeko asmoa. Erlijio gaiak hizpide zituen aldizkaria —*Jesusen biotzaren deya*— 1917an sortu zen. Baina gerra eta Francoren zentsura zela medio, isilik egon behar izan zuen urteetan. Aldizkaria berriro argitaratzeko, ordea, euskaraz idatziko zuten teolo-

goak behar zituzten, aita Patxi Olariagak esaten duenez: “Junioradoan gure maisu izandako aita Larrakoetxeak —orduan aldizkariko zuzendari zenak— eskatu zigun kolaborazio lanak egiteko *Jesusen Biotzaren Deya*-n. Euskaraz argitaratu nahi zuen eta jendea behar zuen. Guk artikulu bat edo beste idatzi genuen, baina gure kolaborazioa oso txikia izan zen. Izan ere, gure ikasketek eta bertako giroak ez zigun lagundu”.

1959ko uda

Bazkalondoetan biltzen hasi zen euskaltzale talde-
txoak, izan zuen udan euskara ikastaldi haiekin jarraitzeko parada. Behar ziren baimenak eskatuta, udan euskara ikasten jarraitzeko bi jarduera antolatu zituzten. Bata, Mundakan (Bizkaia) opor egun batzuk ematea, egun osoan euskaraz aritzeko helburuarekin. Bestea, Loiolan Euskal Etxe zelakoa sortzea.

Oñako erretoreak egun batzuk mendian igarotzeko aukera eskaini zien filosofoei, baina oporraldi hura beraiek taldeka antolatzekotan. Euskaltzale taldeko kideek garbi ikusi zuten aukera aparta zela hura, elkarrekin egun batzuk pasatu eta euskara lantzeko. Baina mendira, nora joan?

Patxi, bere lagun Iñaki Zabalaz akordatu zen eta honekin hitz egin ondoren, Mundakara joan zitezkeela proposatu zien euskaltzale taldekoei. Baina Mundakak bazuen oztopo txiki-handi bat: mendi aldean baino gehiago, hondartza aldeagoan dagoela. “Etxeko Erretoreak nahiago izaten zuen gu hon-

dartza aldera ez joatea, eta horregatik guk esan genion ‘*que íbamos a las últimas estribaciones del monte Sollube*’, mendi aldera gindoazela pentsa zezan”, kontatzen du Iñaki Arregik.

Trenez Gernikara (Bizkaia) joan ziren eta handik Gernikakoa zen Sarrikolearen etxekoek Mundakara eraman zituzten, herri honetan Iñaki Zabalak utzitako baratze batean kanpin dendak jartzekotan. Baina iritsi zirenean euria ari zuenez, baratze hartan bertan zegoen txabola batean lurrean lo egitea pentsatu zuten. “Baina Patxik, etzan orduko, lo hartu zuen, eta haren zurrungengatik eta lurraren gogorragatik besteok ezin izan genuen lorik egin”, dio Javier Oleagak.

Opor egunak atsedena hartzen eta Mundaka inguruko bazterrak ezagutzen eman zituzten. Baina benetako asmoa ahaztu gabe: egun osoa euskaraz ematekoa, hain zuzen.

Mundakako egonaldian, inguruko bazterrak ezagutu zituzten, Bizkaikoak: Mundaka bera, Bermeo, Gernika, Iزارo irla, Matxitxako lurmuturra... “Goizetan, Mundakako parrokira joaten ginen tipi-tapa meza entzutera. Bazkaltzen, geure gauzatxoak jaten genituen eta gainerakoan, batzuetan mendi aldera, edo han inguruko hondartza txiki batera... Iñaki Zabalak txalupan Izarora eta Gernika aldera ere eraman gintuen. Eta tarteka euskara ikasteko saioak ere izan genituen, baina ez genuen libururik eraman, han gure jomuga eguna argitzen zuenetik ilundu arte euskaraz aritzea baitzen”, kontatzen du Patxi Olariagak.

Izan zuten egun haietan aparteko ospakizuna

ere. Beraietako batek, Pedro Mari Sarrikoleak, apaiztu berria zenez, bere Meza Berria eman behar zuen Gernikan, bere herrian. Taldekideak elizkizunean izan ziren, baina nahiko narras jantzita. Horregatik, bazkaltzera gonbidatuak izan baziren ere, ez ziren bazkaltzen gelditu.

Mundakan hamar egun eder igaro ondoren, Loiolara etorri ziren. Bertan Euskal Etxe zeritzona sortu zuten. Euskal Etxe, *English House* edota *Maison Française*-en moduko hizkuntza akademia zen; hau da, euskara ikasteko edota lantzeko ikastaro trinko modukoa. Bilkura haien berri, Patxik *Loyolatik* izenburua zuen artikulua batean eman zuen, eta hala zioen: “Jesulagun gazte batzuk illabete osoa bildu gera Loyola’n euskera landu ta obetzeko. Oña’n Teoloji ikasten ari geranak giñan geientsuenak; (...). Amabitik amabost lagunera biltzen giñan; pilla polita, denon artean egoki lan egiteko. (...) Eguerdi artean ikastaldi ta irakastaldi bat; bazkal ondoan beste orrenbeste. Bildu giñan den-denok nola edo ala mintzatzeko gauza baitgiñan, zeran artu dugu batikpat arretan; alik eta ondoen mintzatzzen, izkera aberasten, miiak zorrozten. Gure artean mintzaera bakarra euskera izan da illabete ontan. (...) Orrez gaiñera, aditzari eman diogu astiñaldi epel bat”. (*Loyolatik: Euskal etxea Loyolan*, Jakin 10, 74)

Eguerdi arteko eskolez gain, azken egunetarako euskararen inguruko hitzaldiak antolatu zituzten. “Pentsatu genuen bazirela Euskal Herrian euskal gaien gainean zerbait esango zigutenak, orduan batzuk aukeratu genituen eta deitu egin genien”, kon-

tatzen du Patxi Olariagak. Koldo Mitxelena, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* eta Inazio Eizmendi Manterola *Basarri* izan zituzten hizlari. Hizlari hauek Loiolara ekarri ahal izateko, ordea, diru pitin bat behar zen, hizlarien joan-etorriak ordaintzeko adina behintzat. Zoritxarrez, euskaltzale taldekoentzat diru kopuru hori izugarri zen, ordainezinetsua. Baina izan zuten nork lagundu; izan ere, Iñaki Zabalak egitasmoaren berri izan orduko lagundu nahi izan zien.

Lehenengo egunean, Koldo Mitxelena orduko euskal literaturari buruz aritu zen. Bigarren egunean, Txillardegik gai bera izan zuen hizpide. Eta azken egunean, Basarri ahozko literaturaz, bertsolaritzaz aritu zitzairen.

Oso gustura eta hunkituta jarraitu zituzten hitzaldiok Euskal Etxeko kideek. "Guretzat jende handia ziren, inpresio handia egin ziguten", dio Iñaki Arregik.

Loiolako egonaldia amaituta bakoitzak bere bidetara egin behar. Euskal Etxeko gainerako kideak Oñara bueltatu ziren Teologia ikasketekin jarraituz. Patxi, berriz, Innsbruck-era (Austria) joan zen.

Teologia Innsbruck-en

Innsbruck, Austriako Tirolo-eko hiriburua da. Alpeen erdian dago kokatua, *Les Grandes Rousses* mendilerroaren magalean. Hiriak turismoa du jardueraren nagusia, eskiatzeko pista izugarriak baititu. Hori dela-eta Neguko Olinpiar Jokoak bi aldiz izan dira han.

Turismoaz gain, Innsbruck unibertsitatedun hiri da. Jesusen Lagundiak ere badu bertan unibertsitatea, Teologiako fakultatea hain zuzen. Fakultate horretan eman zituen Patxi Altunak hiru urte, 1959tik 1962ra.

Innsbruckeko bizimodua Oñakoaren antzekoa zen; hau da, eguneko eginkizunak tankerakoak ziren. Baina Oñan baino askatasun handiagoa zuten. “Innsbrucken hartu nituen nik bizio guztiak. Han utzi nion sotana janzteari —han inork ez baitzuen erabiltzen—, eta han hasi nintzen erretzen, eta nola! Izugarri erretzen nuen”, kontatzen du Patxik.

Egunaren parterik handiena eskolan eta ikasten ematen zuen. Eskolak, gainera, alemanez eta latinez izaten ziren. Alemanarekin hasieran izan zuen zailtasunik, baina poliki moldatu zen.

Gogotik saiatzen zen Patxi ikasketetan, baina Innsbrucken jaso zuen bere bizi guztiko lehen suspentsoa: “Garrantzi gutxiko azterketa bazen ere, disgusto ederra jaso nuen, ez bainuen ordura arte inoiz suspentsorik jaso. Azterketa, bat konfesioak egiteko gai zela erabakitzeko egiten zen. Ahozkoa zen azterketa, eta hiru irakasleren aurrean egiten zen. Lehenengo azterketan suspentsoa jaso nuen. Bigarrenengoan ere ez nuen gairitu. Eta hirugarrenengoan, bai horratik!”.

Denbora librean, batzuk zinemara edota eskia-tzera joaten zirenean, Patxi bere gelan ikasten gelditzen zen. Gusturago ibiltzen zen ikasten, eskia-tzen edo zinemara joanda baino. Bere gelan ematen zituen ordu horietan, Teologiako gaiez gain, euskal liburuak ere izan zituen aztergai.



Teologoien futbol taldeko kide batzuk. Ezkerretik eskuinera, Jose Cruz Aiestaran, Luis Azagra, Ignacio Ellacuria eta Patxi. / PATXI ALTUNA



Innsbruck-eko teologoien futbol taldea. Patxi beheko ilaran, ezkerretik bosgarrena da. / PATXI ALTUNA

Baina bazuen Patxik liburu artetik ateratzen zuen zaletasun bat: futbola. Gainera, teologoek futbol taldea osatu zuten eta Austriako unibertsitate arteko txapelketan hartu zuten parte. Nahiko talde ona osatu ere. Izan ere, finalerdietara iristea lortu zuten. Eta finalerdiko partidua jolasteko Vienara joan behar izan zuten. Vienako Prater futbol zelaian ez zuten, ordea, irabaztea lortu. Bigarren geratu ziren, beraz, Austriako unibertsitate arteko txapelketan.

Teologoek beste talde batek osatu zuten saskibaloia taldea, ordea, garaile izan zen, Unibertsitate arteko txapelketan. Hura poza teologo haiena! Ospatzeko bi arrazoi zituzten.

Gutxiena espero zutena zen, ordea, Erromako aita Jeneralak txapelketa horien berri izatea. Hase-rritu egin zen hura, txapelketak zirela-eta hainbat eskola egun galdu zituztelako Patxik eta konpainiak. Gutun garratza egin zien Erromatik, "*immo et gloriantur de victoria reportata*" zioena; hau da, "gainera poztu egiten dira lortutako garaipenaz". Teologoek poza zapuztuz.

1960ko udan, Patxi Innsbruck utzi eta Loiolara itzuli zen oporrak pasatzera. Bertan, Euskal Etxearen bilkura izan zuten. Aurreko urtean bezalatsu euskararen sakontzen aritu ziren, baina ez zen inolako hitzaldirik antolatu.

Uda hartan, ordea, bere bizitza aldatuko zuen berria jaso zuen. Innsbrucken zegoela, ez zuen aita Probintzialaren bisitarik izan, honi urruti samar gelditzen baitzitzaion Austria. Baina udan ikasleak beraien probintzietara bueltatzen zirenean egiten

zien bisita. 1960ko udan, euskal gaietan murgilduta zebilela, aita Probintzialaren bisita izan zuen. Honek, eliz ikasketak amaitu ondorako destinoa eman zion. Ordura arte, Patxi Altunaren destinoa Junioradoko irakasle izatea zen eta horretarako egin zituen Loiolan Perficit urtea eta Salamancan Filologia Klasikoa. Baina iritzia aldatu eta Donostiako EUTGko unibertsitatean eskolak ematea izan zen destino berria. Sortu berria zen EUTG eta irakasle beharra zuten batetik, eta Junioradoko ikasketak gain-behera zihoazen bestetik.

Patxiren anaia Sebastian Innsbrucken

1960ko urrian, Patxiren anaia bigarrena, Sebastian, Innsbrucka bidali zuten Teologia ikastera. Sebastian, Patxi anaiaren bidea jarraituz, Xabierrera joan zen batxilerra ikastera eta ondoren jesulagun sartu zen. Sartu berri-berritan, ordea, Venezuelara destinatatu zuten. Bertan hasi zituen eliz ikasketak: Nobiziadoa, Junioradoa, Filosofia eta Maisu Txikitza. Eta Patxi bezala, Teologia egitera Austriara, Innsbruckera bidali zuten. Honela, urteetan elkar ikusi ez zuten bi anaiek Innsbrucken egin zuten topo.

Sebastianek ondo gogoan du garai hura. "Innsbrucken, bi urtez Patxi eta biok batera bizi izan ginen, baina elkarrekin gutxi egonda, elkarren berri beti genuen arren. Oso gogoan dut Patxi beti liburu eta ikasketa zalea izan dela eta oso nota onak, onegiak, ateratzen zituela. Bera zen-eta da Kanpaxkoko listoa".

Apaizte eguna

Garai hartan Teologiako hirugarren urtea egin ondoren apaizten ziren jesulagunak. Egun handia zen hura apaizgaientzat. Bide luzea egin baitzuten horretarako.

Patxirentzat egun handia bazen, baita honen etxekoentzat ere. Hala dio Mari Carmenek, Patxiren arrebak: “Gure amak aitari egurrezko kaxa bat eginarazi zion eta pezeta *rubia* guztiak han sartzen zituen. Dirua gordetzen joan zen urteak aurretik Patxiren apaizte egunean Innsbruckera joateko”.

Eguna hurreratu ahala, Patxiren gurasoak hasi ziren egun horretarako prestaketak egiten. Urduri zebiltzan etxekoak, egun handirako guztia ondo prestatu nahi baitzuten. Elizkizunerako Patxiren arropaz ere zeharo arduratuta ibili ziren: zer behar zuen, nolakoak behar zuten izan... Izan ere, bi izeba mojek josi nahi zituzten bere iloba maitearen Meza Berriko arropak. Bestetik, bidaiaren nondik norakoak zehaztu behar zituzten: nola joan, non lo egin...

Baina, zorionez, Patxiren gurasoek ez zuten burua gehiegi nekatu beharrik izan bidaia antolatzen, Patxiren lagun batzuek hara joatea erabaki zutelako, apaizte egunean lagunarekin egon ahal izateko.

Izan ere, Salamancan zeudela, Iñaki Zabalak Patxiri agindu zion apaizte egunean munduan zegoen lekuan zegoela ere, han izango zela bera. Hitzeko gizona zenez Iñaki, emaztearekin batera bidaia prestatzen hasi zen eta beste hainbat lagun

«...gizartetik artua,
gizakien alde jarria...» Hebr 5,1

Gizon artetik «ator Nirekin»
esanda ortu nindun Jaunok,
gizon artera nakor atzero
arriñ dizaizkodan lanak:
— «Gaurtik asito Nirean nai out,
utz itzak lurreko gauzak;
gizonak orde Nireak dituk,
aien alde lan egin zak».

Apaiz egin nau, alare gizon
izatea ez dut utzi;
goi-mail ontara jaso naun arren,
beekoak ez zaizkit aontzi.
«Gizonik lñar ez beki arratz
gerta», Jauziak dit goraintzi.
Gizon berri ou gerta ol nadin,
zaarra bear dut erantzi.

A'tar P'k S. J.



Ezkerreko argazkian, Apaizte eta Meza Berri egunerako Patxi oroiagarri gisa sortu zuen olerkia. Eskuinekoan, Azpeitiko Parrokian Meza Berri elizkizunean, Patxi aitari Jauna ematen. / PATXI ALTUNA

animatu ziren bidaia egitera: batetik, Patxiren lagun zen beste bikote bat, eta bestetik, lñakiren tarteko bi bikote beren ezkon bidaian Innsbrucken geldialdia egingo zutenak. Mundaka aldetik, beraz, zortzi lagun bildu ziren eta hauek Patxiren gurasoei proposatu zieten beraiekin joateko.

Hamar pertsona joan ziren, hortaz, Euskal Herrietik Innsbruckera: hiru bikote automobil banatan eta lñaki Zabala, honen emazte Miren Agirre eta Patxiren gurasoak laugarren automobilean. "Gure gurasoak lñakirekin eta honen emaztearekin joan ziren. Hauek izugarri automobil dotorea zuten, baina muga pasatu orduko aberiatu egin zitzairen. Beraz, lehen gaua hemendik oso hurbil eman zuten. Au-

tomobila konponduta, berriro abiatu eta laster, berriro, aberiatu zitzairen. Egundokoak ibili zituzten automobilarekin. Hala ere, egunerako iritsi ziren Innsbruckera”, kontatzen du Mari Carmen arrebak.

1961eko uztailaren 26an apaiztu zen Patxi, gurasoak eta lagunak berekin zirela. “Egun hartan emozio izugarria sentitu nuen, dardara eta negarra ziren nagusi. Hantxe denok belauniko aldarearen aurrean eta apezpikuak egiten zizkigun galderei erantzuten”, azaltzen du Patxik. Sentipen haiek guztiak oso ondo adierazi zituen, apaizte egunerako eta Meza Berri egunerako osatu zuen olerkian.

Uztailaren 26an apaiztu eta 28an abiatu ziren pixkanaka, bidean bazterrak ikusteko geldialdiak eginez, Euskal Herri aldera. Bikote ezkonberriek eta hirugarren bikoteak beren bidea egin zuten. Euskal Herrira bidean, Iñaki Zabala, Miren Agirre, Patxiren gurasoak eta Patxi etorri ziren, joaterakoan hainbeste arazo eman zizkien automobil hartan.

Bidaian Alpe inguruko bazterrak ikusi zituzten: Italia aldean Como Lakua eta honen inguruko parajeak; Suitzan ere Konstanza Lakuan eta Genevan izan ziren. “Gure amari inpresio handiena Alpe mendiek eman zioten; esaten zuen beldurra ematen zutela, ikaragarriak zirela. Aita, berriz, zeharo txundituta ibili zen hango bide zabalekin, hango egoitza ederrekin... konstrukzioko gauzek orokorrean izugarritzko atentzioa eman zioten, gure aita kontratista zelako”, kontatzen du Mari Carmenek.

“Gure aita zoratzen ibili zen bidaian. Autobidean gindoazela zeharo txundituta zihoan hainbeste automobil ikusita eta halako batean galdetu zidan:



Ezkerreko argazkian, Apaizte eguneko elizkizunean gurasoak bedekintzen eta eskuinekoan, Mundakatik elizkizun honetara Innsbruckera etorritako lagunak. / PATXI ALTUNA



Innsbruckean, Apaizte elizkizunean Patxi anaia Sebastian bedekintzen. / PATXI ALTUNA

‘Aizak, Patxiko, hauek denek noiz egiten dute lan?’.
Halako ateraldiak zituen batzuetan”.

Abuztuaren 5ean iritsi ziren Azpeitira, Patxik parrokian eman behar zuen Meza Berriaren aurreko egunean. Aparte ibili ziren bidaian, baina... “Gure aita oso gustura ibili zen bidaian, baina bazuen pena bat: San Inazioak galdu izana. Hainbeste gustatzen zitzaizkion herriko festak, Meza Nagusi ederrak, musika, zezenketak... pena horixe izan zuen uda hartan”, aipatzen du Mari Carmenek.

Abuztuaren 6an, orduan hamarretan izaten zen Meza Nagusian eman zuen Meza Berria Patxik. Meza Berria, apaiz batek ematen duen lehen meza izaten da, horregatik ospakizun eguna. “Herrian gertakari berezia bat izaten zen herriko seme batek Meza Berria ematea. Ia herri osoa joaten zen elizkizunera, alkatea bera ere han izaten zen. Eta ondoren egiten zen bazkaritan ere gonbidatu ugari izaten zen: osaba-izebak, lehengusuak, lagunak, jesulagun azpeitiarren gurasoak... Patxikoren Meza Berrikoan, 150 bat lagun bildu ziren Hotel Artechen egin zen bazkaritara. Boda bat bezala izaten zen”, kontatzen du Mari Carmenek, Patxiren arrebak.

Egun zoriontsuak ziren haiek Patxirentzat. Jada apaiza zen, bere herri maitean etxekoez eta herritarrez inguratuta eman zuen Meza Berria. Ospakizunez ospakizun zebilen egun haietan.

Meza Berri ondoko egunetan Loiolara bildu zen, Euskal Etxekoeekin elkartu eta euskara jorratzeko asmotan. Baina izan zen egun haiek tristatu zituen gertaera bat: Nicolas Ormaetxea *Orix*e-ren heriotza. Orix azkeneko urteetan gaixorik zebilen, oso



Patxiren Meza Berriko irudia. / PATXI ALTUNA



Orixeren hileta elizkizun eguna, Añorgan. / PATXI ALTUNA

ahul, ohetik jaikitzeko gauza ez zela. Eta 1961eko abuztuaren 9an zendu zen.

Patxik ezaguna zuen Orixe. Gazte-gaztetatik oso maite zituen haren olerkiak eta elkar ezagutze-

ko parada ere izan zuten. Ezagutzeaz gain, gutun bidez urteetako hartu-emana ere izan zuten.

Añorgan, Donostiako auzoan, elkartu ziren 1961eko abuztuaren 10ean, Orixeren hileta elizkizunetan garai hartan euskalgintzan ziharduten asko eta asko. Egun tristea izan zen, gizon handi bat galdu baitzuen euskalgintzak.

Uda gazi-gozoa amaituta, berriro Innsbruckera bueltatu behar Teologia ikasketak amaitzera.

Innsbruckeko azken urtea

Teologiako azken urtea gainerakoan antzekoa izan zen bizimoduz. Apaiz izateak egiten zuen ezberdin. Egunero meza emateko eta jendearenganako presuntasuna adierazteko aukera baitzuen.

“Meza, inguruko herrixketan, Karmeliten komentuan edota gerra garaian arbaso juduak zituen jesulagun bat ezkutatu zuen emakume bati ematen zitzaion bere etxean. Gainera, mezak orduan latinez ematen zirenez, alemana meza emateko lain ez menperatuta ere, ez genuen inolako arazorik”, dio Felix Juan Cabasések.

Azken urtea betiko moduan eman zuen: ikasten. Gogoa beti liburu artean zuela. Hala ere, izan zuen azken urte hartan aita Erretorearen errietarik. Badirudi Patxi eta beste zenbait lagun afal aurreko atsedentxoan Ignacio Ellacuriaren gelan biltzen zirela eta marmarrean jarduten zutela zenbaitetan. Aita Erretorearen jakinera halako kontuak iritsi zirenean, Patxiri deitu eta errieta egin zion.

Azken urte hark amaiera izan zuen gogorra.



Innsbruck inguruko mendi batean, lagunek Patxi mendira eraman zuten aldi bakanetakoa. Ezkerretik eskuinera, Luis Armendariz, Ignacio Ellacuria, Santiago Anitua eta atzean, Patxi. / PATXI ALTUNA

Teologiako gaien azterketez gain, *Ad Gradum* izena zuen errebalida moduko azterketa baitzuten. Azterketan, Teologiako gai nagusietan oinarritutako ehun bat gai izaten zituzten ikasteko. Hauek prestatzeko

bi hilabete ematen zitzaizkien. Epe hori batzuek, handik bost edo sei kilometrora dagoen Zenzenhof-en zuten landetxean eman zuten lasaiago ikasi ahal izateko.

“*Ad Gradum* azterketa prestatzeko Zenzenhof-era joaten ginen, bi hilabete haietan ez baikenuen eskoletara derrigorrez joan beharrik”, dio aita Felix Juan Cabasések. “Horregatik aita Erretoreak nahia-go izaten zuen gu urruti edukitzea. Ikasteko binaka edo hirunaka antolatzen ginen. Ni, lurritarekin eta Patxi Altunarekin jardun nintzen ikasten. Bakoitza geure gelan jarduten ginen ikasten eta egunean hainbatetan elkartzen ginen, elkarri lezioa hartu edota zalantzak argitzeko”,

Bi hilabete gogor ikasten aritu ondoren iritsi zen azterketa eguna. *Ad Gradum* zelakoa, epaimahai baten aurrean latinez egiten zen bi orduko ahozko azterketa zen. Azterketa gogortxo zen arren, erraz gainditu zuen Patxik.

Froga gainditzeak hiru gauza zekarzkion. Lehenengoa, Teologian lizentziatzea. Bigarrena, handik urte batzuetara egin behar zituen botoetan lau boto —pobre izatea, esaneko izatea, Aita Santuari esaneko izatea eta kastitatea— egiteko aukera izango zuela, *por maior* ikasi baitzuen. Eta hirugarrena, Bigarren Probantza amaitzea.

Hirugarren Probantza (Gandia, Espainia)

Hirugarren Probantza, jesulagun izateko ikasketa bide horretan azken urratsa zuten. Bigarren Nobiziado bat bezala zen, gai berak lantzen baitziren,



baina modu sakonagoan aztertuz. Urtebeteko ikasketak hauetan Jesusen Lagundiaren izpiritua eta, batik bat, Lagundia Institutio moduan azaltzen ziren: Jesusen Lagundia zer den, nola jokatzeko duen Jesusen Lagundiko kide batek...

Ikasketok Gandian (Valentzia, Espainia) egin zituen Patxik, 35 urte zituela, jesulagunek bertan zuten etxe eder batean: San Francisco de Borjaren jaiotetxean, hain zuzen. Eta jauregi horretan bizi eta egin zituen Hirugarren Probantzako ikasketak.

Urte hartan bizitza espirituala egiten zuten. Irakurketa espirituala, platikak, erretiroak igandean... "Gutxi hitz egin eta asko mediatu, bazkaltzeko ordura arte isilik eta asko mediatu", dio Patxik.

Baina gutxi hitz egin eta asko mediatu arren, aurreko garaian baino askatasun handiagoa zu-

ten: “Nahiko aske ibiltzen ginen, ez ginen monasterioari hain lotuta bizi. Zerbait erosi beharra-edo bagenuen lasai joaten ginen herrira. Gandian uda urri-
ra arte luzatzen denez, askotan hondartzara joaten ginen bainu bat hartzera. Kanpora ateratzea ordu libreetan, gure eskuan zegoen, ez geneukan baime-
na eskatu beharrik”, azaltzen du Patxi baino urtebe-
te lehenago Gandian bizi izan zen Patxi Olariagak.

Etxe eta eguraldi ederraz gain, sukaldaria ere primerakoa zuten Gandiako etxean. Hala dio Iñaki Arregik: “Gandiako etxean izugarrizko paella ona ematen ziguten; inoiz ez ginen aspertzen. Patxiri ere asko gustatzen zitzaion. Garai hartan, ordea, Patxik argaldu beharra zuenez, jatekoari begiratu behar-
rean zen. Baina paella ateratzen zigutenean, Patxik esan ohi zuen paellak ez zuela gizentzen eta lasai jaten zuen”.

Hori guztiaz gain, Hirugarren Probantzako ikas-
leak apaizak zirenez, meza ematen zuten, etxean bertan edota inguruko elizaren batean. Iñaki Arregi eta Patxi, Gandiako Parroquia de Cristo Rey deri-
tzoneira joaten ziren, bertako parrokoari meza ema-
ten laguntzera.

Urtero bezala, gogo-jardunekin hasten zen ikasturte hark, platikaz, irakurraldiaz, erretiroaz eta gainerakoez gain, bazituen bete beharreko proba berezi batzuk: *Ministerio Hilabetea* batetik, eta *Ospitale Hilabetea*, bestetik.

Ministerio Hilabetea zelakoan, Patxiri eta Iñaki Arregiri Garizuman Loiolara etortzea egokitu zitza-
ien. Egun hauetan, Patxiri emandako lana apaiz ba-
tzuei euskaraz gogo-jardunak ematea izan zen. Eta



Patxi Altuna meza ematen. / PATXI ALTUNA

hauek amaitutakoan Ormaiztegiko (Gipuzkoa) elizan misioa ematea.

Loiolara zetorrenez, etxekoei zerbait eramatea otu zitzaion. “Loiolara etorri ginenean —dio Iñaki Arregik—, Patxik etxekoentzat laranja pila bat ekarri zuen, baina denak txarrak atera ziren. Izan ere, izotz urtea izan zen hura, eta, ondorioz, laranja asko galdu egin ziren. Patxik ekarri zituenak kanpotik oso itxura ona zuten, baina barrutik lehor-lehorrak zeuden izotzagatik”.

Ospitale Hilabetea zeritzon proba, Gandiako jesulagun ikasleek Fontilles-eko legenardunegian —leproserian— egiten zuten. Berez, hogeit bat eguneko proba bazen ere, Patxik eta bere kideek aste-bete eskas baino ez zuten eman bertan. Izan ere, hauei ikasturte amaieran tokatu zitzaien proba hori betetzea eta horregatik egun gutxiago eman zituzten bertan. Fontillesen beraien eginkizuna, batetik, erizainei laguntzea zen: janaria banatzen, garbiketarik egiten...; eta, bestetik, animo espiritualala eman nahian gaixoekin hitz egitea.

Ondo oroitzen ditu Patxi Olariagak egun haiek: “Nire lagun batzuk Fontillesera joateko beldur ziren. Baina nik eta beste askok ez genuen izan inongo eragozpenik hara joateko. Hango gaitzak, aurpegiak, sudurrak... pena ematen zuten. Jende gazte-gaztea hala ikustea izugarria zen”.

Era horretako pasadizo latzez beterik zeuden hiru Probantzak. Azken batean, eliza ikasketok jesulagunen heziketarako bideratuak egoteaz gain, maila akademikotik haratago zihoazelako; hau da, pertsonen gizatasuna proban jartzeraino.

Uztailerako Donostian zen Patxi. Uda hura, irailan eman behar zituen eskolak prestatzen eman zuen. Baina hutsik egin gabe, San Inazioetako bederatziruenerako Loiolan zen. Urte hartan, gainera, goizetan euskaraz predikatu zuen bederatziruena.

San Inazioak etxekoekin, sendikoekin eman zituen festa giro ederrean. Jai egunetako batean bazkaltzen ari zirela aitak zera galdetu zion Patxiri: “Noiz hasi hintzen ikasten?”. Patxik: “Jesuitinetan”. Aitak: “Ez, ez, eliz ikasketak”. Patxik: “Orain dela

hogei urte”. Aitak: “Bejondeiala, eta akordatzen al haiz ikasitakoez?”. Patxik: “Ez, gehienak ahaztuta dauzkat”. Aitak, orduan: “Ez al huen hobe, hortaz, azkeneko hauek besterik ez ikastea, aurreko haiek utzita?”. Aitaren beste ateraldi haietako bat.

Honek hain luze iritzi zituen ikasketak amaitu zituen halako batean Patxik. Ikasketetan oso jantzia eta pertsona eliz gizon bezala zaildua zen bada, nagusiek eman zioten eginkizuna betetzeko: Donostian EUTGn eskolak emateko. ■

4. *Donostian bizitako urteak* (1963–2001)

Behin eta berriz egin eta desegin zituen maletak hartuta iritsi zen Patxi Donostiara, 1963ko uztai-lean, 35 urte zituela. Baina oraingo honetan, urte pila bat bertan ematekotan; hau da, nagusiek bere eginkizuna bertan amaitutzat eman arte Donostian bizitzekotan.

Askok txikitatik dute ezagun Patxi Altuna, baina jende gehienak azken 40 urte hauetan ezagutu du. Batzuek aita Patxi ezagutu dute, beste batzuek Patxi irakaslea, baina gehientsuenek, ziurrenez, Patxi Altuna Euskaltzaindiko kidea dute ezagun.

Aita Patxi

Patxiren egiteko nagusia Donostian, irakasle lane-tan aritzea bazen ere, ezin ahaztu daiteke jesulagu-

na dela Patxi. Gainera, 1964ko abuztuaren 15ean azken botoak —pobre izatea, esaneko izatea, kasti-tatea eta Aita Santuari esaneko izatea—, ikasketak *por maior* egin dituen bati dagokion bezala egin zituenetik, Lagundiari guztiz loturiko jesulaguna.

Jesulagun askok eta askok bezala, Patxik ere irakasle egin du lan, San Inazioaren irakatsiek dioten moduan lan hori Jainkoaren aintzarako eginez. Baina apaiz jesulagun moduan dagozkion egitekoak ere bazituen: meza eman egunero etxeko kaperan, igandeetan meza eman, jendea ezkondu, haurtxoak bataiatu...

Meza emateari, irakaskuntzari baino denbora gutxiago eskaintzen bazion ere, poz eta burukomin handiak sorrarazi zituen Patxik igandeetan, Garibai kaleko jesulagunen elizan, ematen zuen mezak.

Aita Patxiren sermoi sonatuak

Donostian Garibai kaleko Residencia de los Padres Jesuitas delakoan, hamabostean behin hasieran eta igandero gero, 10:30etako meza ematen zuen Patxik euskaraz. Hasieran jende gutxi biltzen zuen, baina pixkanaka izena hartzen joan ziren elizkizun horiek, eta azkenerako eliza lepo eginda egoten zen.

Hiru ordu laurden-edo irauten zuen elizkizunean, ia ordu erdikoa izaten zen sermoia. Eta sermoi horiengatik egin zen Patxi, hain zuzen ere, ezagun. Sermolari “aparta” zen, Inazio Mari Olartek, inoiz meza haietan izandako azpeitiarrak kontatzen duenez: “Patxi oso sermolari ona zen, soseguz eta argi



1964-08-15: azken botoak egiten. Patxi, eskuinean. / PATXI ALTUNA

esaten zituen gauzak. Ebanjelioa-eta irakurtzen zituenean, Jesusi berari edo apostoluei entzuten ari zinela ematen zuen, hain baitzen egokia bere irakurtzeko modua”.

Koldo Mitxelenak ere hala aitortzen zion artikuluan batean: “Aita Altuna, besteak beste, sermoigile garaia dela eta izan dela Euskal Herrian. Ez diot deus kenduko bere hitz-etorri eta hitz-jarioaren orrazketari, antzinakoen segizioko baita arlo horre-

tan, inor baldin bada; hots, Axular, Larramendi eta gure arteko beste hainbesteren segizioko; eta gidari ere bai". (*Patxi Altunari erantzunez, Euskera*, 1981 (2)).

Sermoiak egiten apartekoa izateaz gain, hizpide zituen gaiak ere halakoak ziren. Francoren diktadurapeko garai haietan, adierazpen askatasuna, eta askatasuna oro har, hain murriztua zegoen garai haietan, jendaurrean gai jakin batzuez hitz egin eta salatzeko ausarta izan behar zen gero!

Patxik, besteak beste, diktadura garaian Euskal Herria jasaten ari zen bidegabekeriak izaten zituen hizpide bere sermoietan. Ebanjeliotik abiatuz, garai hartako hainbat gertaera aipatu eta gogor salatzen zituen.

Hori dela-eta Poliziak hainbat isun ipintzeaz gain, Patxiri zaindu beharreko pertsona iritzi zion. Igandeko elizkizun haietara, Polizia, ezkutuan noski, Patxiren eta honen entzule zirenak zelatatzeraz joaten zen. Eta hala jakinarazi zion behin Patxiren mezetara joaten zen polizia baten emazteak: "Kontuz ibil zaitetz aita Patxi, zaindua zaude eta!".

Garai hartan igandero Patxiren mezetara joaten zen Miren Azkarate, eta honela oroitzen ditu meza haiek: "Patxiren mezak guretzako kontsolamendua ziren. Sermoietan, zeuk pentsatzen zenuena eta beste inon entzuteko aukerarik ez zenuena, eta, gainera, pulpitutik esanda, entzuteko aukera genuen. Oso gustura sentitzen ginen mezan, eta horregatik egoten zen gainezka eliza".

Hain sonatuak izatera iritsi ziren mezen oihartzuna Azpeitiraino eta Patxiren amarenganaino ere



iritsi ziren. Eta amak beldurrez esaten zion Patxiri: “Patxiko Mari, ez hadi gehiegi mintzatu”.

Atxilotu eta Madrilera

Amak beldurrez ohartarazi bazuen ere, badirudi ordurako nahikoa mintzatu zela Patxi. 1974ko abenduaren 8an, Ama Birjinaren egunean, igandero ohi bezala meza eman zuen. Ama Birjinaren egun hartan, Donostian Poliziak ETAko kideak zirela egotziz aste hartan bertan atxilotutako hogeitaz gazteren inguruan hitz egin zuen Patxik, eta egoera hura salatu. Eta egun horretan egin ohi den bezala, sermoia *Hortikan zaude Euskal Herriko seme gaixo...* abestiarekin amaitu zuen.

Elizkizuna amaituta, Azpeitira etorri zen etxekoekin bazkaltzera, eta arratsaldeko funtziora joan ondoren, Donostiara itzuli zen. Etxera, EUTGra iritsi zenean, erretoreak esan zion Polizia bere bila joan zela.

Hurrengo egunean, Patxi komisarian aurkeztu zen, eta atxilotu eta arratsaldean Madrilera, Espainiako Auzitegi Gorenera eramán zuten. Bertan ziegán sartu, eta lotaratu baino lehen tirabira izan zuen Patxik hango funtzionarioekin: “Egunero egin ohi nuen bezala, meza eman nahi nuen eta hala adierazi nion hango funtzionario bati: ‘*Quiero decir misa*’. Funtzionarioak: ‘*¿Qué dice usted!, aquí no hay capilla*’. Nik orduan: ‘*Ah, no sé, yo quiero decir misa. Este es un centro católico, ¿no?. Pues, yo quiero decir misa, dígaselo al jefe*’. Nik uste dut hori dela-eta hasi zirela diligentziak egiten ni handik

lehenbailehen bidaltzeko. Hala ere, ez nuen lortu meza ematea”, oroitzen du Patxik.

Tirabira horren ondoren, gaua lo egin ezinda eman zuen atxiloketaren zergatia zein izan zitekeen asmatu nahian, ez baitzioten inongo azalpenik eman. Goizaldera esnarazi eta epailearen aurrera eraman zuten. Epaileak: “*Usted ha hecho una apología de los presos de ETA*”. Patxik: “*¿Yo, de los presos?*”, Patxi ez baitzen konturatzen zergatik zioen hori epaileak. Halako batean akordatu zen zein izan zitekeen bere *apología*, eta epaileari: “*¿Sabe usted cuál ha sido la apología? He terminado el sermón recitando unos versos de un canto a la Virgen que es conocido en todo el País Vasco, y si decir ‘Euskal herriko seme gaixoak’ es hacer apología...*”. Egun hartan bertan, 400.000 pezetako isuna edo 90 eguneko kartzela zigorra ezarri zioten. Patxik zigorra ordaintzeko adina diru ez zuela eta, kartzelara joatea erabaki zuen.

Carabanchelgo egonaldia

1974ko abenduaren 10ean, 47 urte zituela, kartzelaratu zuten Patxi Carabanchelen (Espainia). Egun gutxira, Donostiako jesuita etxeko erretoreak isuna ordaintzeko gogoia adierazi bazion ere, nahiago izan zuen kartzelan geratu, diru asko baitzen garai hartan 400.000 pezeta; urte guztian unibertsitatean eskolak ematen irabazten zuena baino gehiago.

Carabanchelen, apaiz gehiago zegoen ziegara sartu zuten. Apaizek, kartzelan bestelako tratua zuten, gutxi nahasten ziren gainerako presoekin, patio-

ra ateratzen zirenean baino ez. Jan ere, beraien ziegan egiten zuten. Eta nola jan! “Etxekoek eta lagunek bidalitako urdai ederra eta Gabon gauerako Donostiako Aurrera tabernako nagusiek txangurroa bidali ziguten. Ondoegi jaten genuen, zaindu egin behar ez gizentzeko! Kartzelan egotea ez zitzaidan gogor egin, ziega kideekin konfiantza hartu ondoren eramangarria zen eta eskolak ematen nituen hilabeteetan egin ezinda nituen lanak egiteko aprobetxatu nuen”, kontatzen du Patxik.

Carabanchelen bai, han izan zuen Auzitegi Gorenean ukatu zioten meza emateko aukera, eta hala egiten zuen egunero ilunabarretan.

Bisitak ere ugari izan zituen: jesulagunak, lagunak, etxekoak... jende asko, hogeit hamar lagunetik gora, izan zen Carabanchelen Patxi bisitatzen. Mari Pilar Larrañaga koinata: “Ni joan nintzenean, Patxiren amak eskuz idatzitako paper bat eramanez nuen, itxaropena, pazientzia izan zezala esaten zuena. Patxiri paper hori kristal lodi-lodiaren bestaldetik erakutsi nionean malko-erreka batean urtu zen”.

1975ko martxoaren 10ean atera zen kartzelatik, 90 eguneko kartzela zigorra oso-osorik bete ondoren. “Patxik kartzelatik atera behar zuen egunean, Javier semea eta biok joan ginen hura jasotzera. Javier txistua jotzen ikasten ari zen eta Patxi kartzelatik ateratzen zenean txistuarekin *Agur Jau-nak* jo nahi zion, baina hango *mobida* ikusita pasatuta gelditu zen eta ez zen txistua jotzen saiatu ere egin”, kontatzen du Patxiren anaia Manuelek.

Kartzelara eramanez zuten meza sonatu haiez gain, gauza lasaiagoak ere egin zituen bere apaiz

egitekoan; esaterako, makina bat bikote ezkondu. Gehienak etxeakoak, lagunak, lankideak, ikasleak... gertuko jendea ezkondu zuen. Mari Carmen Garmendia lagunak dioenez, "Patxik jende asko ezagutu du, lagunarte zabaleko pertsona izan da; horregatik, berak ere ez du jakingo zenbat jende ezkondu duen".

Donostiara joan berritan, 1965eko abuztuan bere anaia gaztea Manuel eta Maria Pilar ezkondu zituzten berak eta anaia Sebastianek Azpeitiko parrokian. Egun berezia izan zen Kanpaxkoan, etxe txikia eta ezkontzekoa zen seme bakarra ezkondu baitzen. Egun berezi horretarako, Patxik bertso batzuk atondu zituen eta bazkalondoan ezkonberriei kantatu. Gerora, lehengusuak eta ilobak ere ezkondu ditu.

Etxekoez gain, hainbat lagun, lankide, ikasle ere ezkondu du, eta hauen artean gaur egun ezagunak diren hainbat pertsona ere bai: Iñaki Gabilondo irrati esataria, Antton Valverde abeslaria, Iñaki Esnaola politikaria eta abokatua...

Horretaz guztiaz gain, irratitik ere aritu zen predikatzen 1963-1973 bitartean. Loiola Irratian, Jose Mari Iriondok larunbat gauetan aurkezten zuen *Beti jai* saioaren amaiera aldera, Patxik igandeko ebanjelioa komentatzen zuen hamar bat minututan. "Dinamita ziren hitzaldi haiek; izan ere, erregimen guztiaren kontra joaten zen. Eta Donostiako sermoietan material bera erabiltzen zuenez, guretzat promozio ezin hobea zen. Horrez gain, euskara freskoa baina oso landua erabiltzen zuen, eta irratiz oso komunikatzaile ona zen", kontatzen du Jose Mari Iriondok.



Patxi, anaia Sebastianekin batera, anaia Manuel eta Maria Pilar ezkontzen.
/ PATXI ALTUNA



Antton Valverde abeslaria ezkondu zuen eguneko argazki bat. Patxi, eskuinetik bigarrena. / PATXI ALTUNA

Arestian esan den bezala, jende askok Donostian jesuiten elizan ematen zituen meza haiengatik ezagutzen badu ere, ezagunagoa da egun Patxi irakaslea edo Patxi euskaltzaina.

Patxi irakaslea


Donostiako EUTG unibertsitatea, jesulagunek 1956an eratu zuten, eta pixkanaka-pixkanaka hazten zihoan. Irakasleak aurkitzea ez zen lan samurra izan eta horren guztiaren ardatz izan zen aita Ignacio Errandoneak, jesulagunen artean bilatu behar izan zuen irakasle asko eta asko. Eta hauen artean bat, Perficit urtean Loiolan ikasle izan zuena: Patxi Altuna. Beraz, Patxi EUTG lehen urratsak ematen ari zela iritsi zen Donostiara. Egun Mundaiz auzoan duten eraikina ere, oraindik egiten ari zirela. Horregatik, jesuitek Ategorrietan zuten —eta egun San Ignacio de Loiola ikastetxea dagoen hartan duten— egoitzan bizi eta ematen zituzten eskolak. Eta halaxe jarraitu zuten 1965ean, Mundaizko eraikina amaitu eta hara joan ziren arte.

Unibertsitate berri horretan Patxiren egiteko nagusia, sortzekoa zen Hizkuntza Eskolan Euskal Hizkuntzako ikasketetaz arduratzea zen. Baina beste egiteko bat ere suertatu zitzaion: Filosofia eta Letren fakultatean, Latin irakasgaiko irakasle laguntzaile lanetan aritu beharra.

Ordura arte galdera zorrotzak egiten zituen ikaslea izan zen; handik aurrera, berriz, beste ikasleren baten galdera zorrotzei erantzun beharko zien irakaslea.

Hizkuntza eskolan

Jesulagunek garai berriei aurrea hartu nahian edo, eta orduko giro politikoari aurre eginez, euskara ira-



Patxi Altuna EUTGn irakasle hasi zenean, gaur egungo Donostiako EUTGren eraikina eraikitzeke zegoen. Argazkia, Miguel Oriol arkitektoaren maketa.

katsi nahi izan zuten EUTGn sortzera zihoazen Hizkuntza Eskolan. Eta horixe izan zuen eginkizun nagusi Patxik, euskarazko eskolak antolatu, prestatu eta aurrera eramatea.

Hasiera batean, Jesulagunen Kolegioko eta EUTGko Enpresa fakultateko ikasle multzo bat izan zen. Urte gutxira, ordea, euskara ikasi nahi zuen guztiari ireki zitzaizkion ateak. Hala dio eskola haietan lehenengo ikasle eta gerora irakasle izan zen Eugenio Muñagorrik: “Garai hartan, 1966 inguruan, ez zegoen Donostian euskara ikasteko aukera handirik. Baziren Maria Dolores Agirrek ematen zituen euskarazko eskola batzuk, baina ez zegoen beste inor. Horregatik, nik EUTGko Hizkuntza Eskolara jo nuen nire euskara orraztera”.

EUTGko Hizkuntza Eskolan, hizkuntzak ikasteko pizgarri izango zirelakoan, Ameriketako Estatu Batuetatik ekarritako baliabide benetan berritzaileak

erabili ziren: ikus-entzunezko aparailuak. “Kabina moduko batzuetan sartuta ikasleek bere kasa ikasten zuten, galdera-erantzun moduko ariketak eginenez”, kontatzen du Patxik. Ordura arte, hizkuntzak irakasteko ez zen halakorik erabili Euskal Herrian, ezta Espainia aldean ere. Beraz, hizkuntzak ikasi nahi zituzten ikasleak erakartzeko baliagarria izan zitezkeen.

Baliagarriak izan ziren, noski, baliabide horiek, baina euskara irakasteko hasieratan baino ez ziren erabili. Hizkuntza Eskolan ikasgai ziren ingelesa, frantsesa eta alemana irakasteko baliagarriagoak ziren, dirudienez.

Hizkuntza Eskolan, euskalduntze eskolak ematen ziren, alfabetatzekoak ere inoiz eman baziren ere. Eta eskolak, ikasturtean zehar, goizean goiz eta ilunabarretan izaten ziren, unibertsitateko gelak hutsak zeudela aprobeztatuz. Udan, berriz, Patxik euskalduntze ikastaro trinkoak sortu zituen euskara ikasteko, hilabetez egunean sei ordu euskararekin jardunean arituz.

Patxik euskara irakasten urte gutxi zeramatzala, euskara ikasteko metodo berri baten beharra sumatu zuen. Baziren garai hartan horretarako metodoak, baina azpeitiarra ez zuten betetzen: “Metodo haiek ez zuten zuzenean euskaraz irakasten, gaztelaniaz pentsarazten eta euskaraz esanarazten zutelako. Eta nik ikaslea hortik atera nahi nuen”, aipatzen du Patxik.

Horrela sortu zen, 1967an lehen aldiz argitaratu zen Patxi Altunaren *Euskera, ire laguna euskaraz* ikasteko metodo berria. Metodo hori egiteko,



Patxiren ikasle izandako batzuk. Zutik, ezkerretik eskuinera, bigarrena Mari Carmen Garmendia da. / PATXI ALTUNA

E. Frank Cadlin-ek ingelesa ikasteko sortu zuen *Present day English for foreing students* metodoan oinarritu zen. Patxiren metodoak izugarritzko arrakasta izan zuen; bost argitaraldi izan zituen ondoko urteetan eta bizkaierara egokitua ere plazaratu zen.

Metodoaren arrakastagatik edota euskara ikasteko zegoen aukera urriagatik, EUTGko Hizkuntza Eskolan euskara ikasi nahi zuten ikasleak asko izatera iritsi ziren. Hori dela-eta Patxi bera irakasle gehiago aurkitu beharrean izan zen.

Irakasleak, batik bat, bere ikasleen artean bilatu zituen. Joxe Austin Arrietari Filologia Erromanikoa ikasten ari zela luzatu zion irakasle izateko gonbidapena: "Filologia Erromanikoan Patxi irakasle ge-

nuen, eta bere eskola bat amaitu ondoren, taldetxoan berriketan ari ginela 'dakion' aditza atera zitzaidan. Eta Patxik esan zidan: 'Zuk asko dakizu!'. Eta ez dakit horregatik fitxatu ninduen gero irakasle izateko”.

Joxe Austin Arrietaz gain, Mari Carmen Garmendia, Mikel Arregi, Eugenio Muñagorri, Mari Carmen Iztueta... aritu ziren Hizkuntza Eskolan euskara irakasten hainbat urtetan Patxiren *Euskera, hire laguna* metodoa erabiliz. “Garai hartan oso metodo ona zen, oso ondo lantzen zituen galdegaiaren kontuak, galdera erantzunen bidez... oso metodo interesantea zen. Nik, behintzat, irakasle aritu izan nintzen urteetan oso kuttuna izan nuen metodo hori”, aipatzen du Joxe Austin Arrietak.

Metodoa sortzeak, beraz, izena eman zion Patxiri. Euskara ikasteko modu moderno baten sortzailea zelako. Eta ikasleek euskaraz hitz egiten ondo ikasten zutelako. Arrakasta bide zela, 1969 aldera Patxiri Loiola Irratitik deitu zioten, Jose Mari Iriondok aurkezten zuen *Beti jai* saioaren *Denbora pasa* sailean euskararen inguruan aritzeko. Jose Mari Iriondo: “*Denbora pasa* sailean kalean entzuten ziren euskararen hainbat erabilera oker aipatu eta nola esan beharko lirатеkeen aipatzen zen. 1969 arte neuk jarduten nuen lan hori egiten, baina konturatu nintzen itzala zuen norbait, euskararen munduan norbait zen pertsona bat behar genuela hizlari, eta Patxi Altunarekin akordatu ginen”.

Beraz, Hizkuntza Eskolan ez ezik, irratitik ere euskara irakasten aritu zen Patxi Altuna, 1973ra arte.



EUTGko lehen urteetako irakasleak. Ezkerretik eskuinera, Gotzon Goenaga, Koldo Mitxelena eta Patxi Altuna. / PATXI ALTUNA

Filosofia eta Letretako Fakultatean

1963an Donostiara iritsi zenean, bere egiteko nagusia Hizkuntza Eskolan euskara ikasketak antolatzea izan arren, Filosofia eta Letretako fakultatean zegoen lizentziatura aurreko Komunak zeritzan bi kurtsotan irakasle laguntzaile lanetan ere aritu zen. Hau da, Latin Klasiko eta Latin Arrunteko irakasle titularra zen Koldo Mitxelenak eskolarik eman ezin zutenetan, Patxik ematen zituen eskolak. Horixe zen, irakasle laguntzaile gisa, bere betebeharra.

Baina halabeharrak hala aginduta, pixkanaka-pixkanaka irakasle hutsuneak sortzen joan ziren Filosofia eta Letretako fakultatean, Patxiri lekua eginenez.

Segituan sortu zen estali beharreko lehen zuloa. 1964an, Donostian bigarren urtea zeramala, Koldo Mitxelenak Torrelavegako (Kantabria, Espai-

nia) Institutuan irakasle oposaketa plaza lortu zuen eta horren ondorioz, EUTGn ematen zituen latin eskolak emateari utzi behar izan zion. Ez zuen edonork beteko Koldo Mitxelenak EUTGn utzi zuen zuloa; baina urrutira gabe, bertan zuten latin ikaragarri zekien Patxi, irakasle gaztea, eskola hauek emateko prest. Horrela, Patxi Filosofia eta Letretako fakultateko Komunetako Latin Klasiko eta Latin Arrunteko irakasle titularra bilakatu zen.

Urte gogorrak izan ziren aurrenekoak Patxi-arentzat, lan ikaragarri egin behar izan baitzuen eskolak aurrera eramanez ahal izateko. Sortu berria zen Hizkuntza Eskolako euskara eskolak ez ezik, Komunetako latin eskolak ere beregain zituen. Eta hori gutxi balitz, Salamancako San Estanislao Kolegiotik deitu zioten, juniorrei latin eskolak emateko.

Salamancan hiru bat urtetan izan zen juniorren irakasle. EUTGn ikasturtean zehar eskolak ematen jardun ondoren, apiril aldera Salamancara joaten zen, bertan hilabete eta erdi irauten zuen juniorren azken ebaluaketan irakasle aritzeko.

1967an, sortu zen EUTGn Patxi bete beharreko bigarren hutsunea. Aita Gotzon Goenaga, Filologia Erromanikoan irakasle zena, gehiago ikasi nahian Ameriketako Estatu Batuetara joan zen, eta umezurtz utzi zuen hainbat urtetan irakasgai izan zuen *Lingüística Española* ikasgaia. Han zen, ordea, ilusio handiz eta gartsu lanean ari zen Patxi, eta bera arduratu zen 1967tik aurrera urte batzuetan eskola horiez —1976an Euskal Filologia sortu zen arte—. Halabeharrez suertatu bazitzaion ere, ikas-

gai hori emateak berebiziko eragina izan zuen Patxigan. Ikasgai horrek *Lingüística Española* izena izan arren, euskal gaiak irakasten zirelako eskola horietan. “Guk, autore klasikoak aztertu bagenituen ere, Mitxelena izan zen aztergai nagusia eskoletan. Eta ondoren, material hori garatuz *Mitxelenaren idazlan hautatuak* liburua prestatu zuen Patxi”, kontatzen du 1967-1972 bitartean ikasle izan zuen Mari Carmen Garmendiak.

Ikasgai hori prestatu beharrak murgilarazi zuen Patxi, are gehiago euskal literaturan eta bereziki klasikoan azterketan. Eta horrela ezagutu zuen, besteak beste, bera guztiz liluratu zuen Bernard Etxepare eta honen lana.

Euskal Filologiaren sorrera (1976)

Patxi lehen urratsak ematen ari zen unibertsitate xume batera iritsi zen 1963an, baina urteen poderioz sendoago eta handiago bihurtzen ezagutu du. Eraikinak berak ez ezik, izenak ere nozitu du aldaketarik, hasieratan EUTG izenarekin bataiatu zutena, aspaldian Deustuko Unibertsitatea deitzen baita.

Filosofia eta Letretako ikasketek ere, aldaketa nabariak ezagutu dituzte: hasiera batean, lizentziatura aurreko Komunak zeritzan ikasketak ziren ikasgai EUTGn. Ikasketa horiek, humanitate ikasketa orokorrak ziren eta ikasle gehienak hauek amaitu ostean, espezializazioak egitera kanpora joaten ziren: Kazetaritza, Pedagogia, Psikologia... ikastera. Gutxi batzuk, EUTGn gelditzen ziren Filologia Erromanikoa egiten.

Urteak aurrera ahala Filologia Erromanikoak Filologia Hispaniarrari egin zion lekua. Eta 1976an, EUTGn —Bilbon Deustuko Unibertsitatean eta Gasteizko Euskal Herriko Unibertsitatean—, hainbaten eta hainbaten ametsa izan zen Euskal Filologiaren sorrera gauzatu zen.

Unibertsitatean Filologia irakasten zebiltzan euskaltzale askok buruan eta bihotzean zerabilen, noizbait Euskal Filologia sortzea; hau da, noizbait euskararen azterketa zientifikoa unibertsitatean sartzea, baina Francoren diktadurapean halako gauza bat pentsaezina zen. “Denok Franco noiz hilko zain geunden Euskal Filologia sartzeko. Zain-zain geunden eta hil bezain laster irakasten hasi ginen”, konstatzen du Patxik.

1975eko azaroaren 20an hil zen Franco, eta ondoren, ordura arte amets izan ziren Euskal Filologia ikasketak gauzatzeko aukera sortu zen. Baina bidea libre izatea ezinbestekoa bazen ere, ikasketak antolatzen eta prestatzen lanean gogotik eta kementsu ariko zen jendea ere oso beharrezkoa zen. Horregatik, Koldo Mitxelenaren eta Patxiren kemena erabakigarria izan zen ikasketa horien sorreran. Izan ere, biak izan ziren ikasketen sustatzaile eta eragile nagusiak, Mitxelena Euskal Herriko Unibertsitatean eta Patxi Deustuko Unibertsitatean. Era berean, ezin aipatu gabe utzi EUTGn Patxiren ondoan aparteko lana egin zutenak: Txuma Lasagabaster, Patxi Goenaga, Txillardeggi, Miren Azkarate, Joan Mari Irigoien, Xabier Falkon, Felipe Iurramendi, Jesus Arzamendi...

Kemena ez ezik, lanean jarduteko beldurrik ez

zuen jendea behar izan zen; izan ere, ikasketa programa eta ikasgaiak ia hutsetik sortu behar izan ziren. “Ez genuen testurik Morfologia, Sintaxia zein Hizkuntzalaritza eskolak emateko. Dena guk sortu behar izan genuen. Urte ederrak izan ziren, ilusioz beterikoak, baina, era berean, urte latzak”, aipatzen du Patxik.

Euskal Filologiaren ikasketa programaren zirriborroa nolabait osatu zuten. Eta zenbait irakaslek, inoiz irakatsi ez ziren eta kasu askotan aztergai izan ez ziren ikasgaiak sortu behar izan zituen.

Patxik, Euskal Filologian funtsezkoak diren bi ikasgai hartu zituen beregain: Euskal Hizkuntzaren Historia eta Euskal Testuak —XVI., XVII. eta XVIII. mendeko autore klasikoen lanen azterketa ikaskizun duen ikasgaia—.

Berak bi ikasgaiok, eta, batik bat, Euskal Testuak beregain hartu ez balitu, nekez irakatsiko lirateke gaur egun Euskal Filologian, Patxik aztertu, landu eta Euskal Filologiako ikasleentzat egokitu baitzuten.

Baina berebizikoa den prestaketa lan horrez gain, irakasle aparta izan da eskoletan. Berak testu haiek aztertzen sentitzen zuen zirrara hura ikasleei helarazten jakin duen hizlari bikaina izan baita Patxi. “Oso solaskide ona zen, euskaraz izugarri ondo hitz egiten zuen. Horregatik gozatu egiten genuen hari entzute soilarekin. Horrez gain, testuak oso sakon aztertzen genituen, eta berak hainbat pasarteri emandako interpretazioak oraindik ere ederki gogoratzen ditut”, aipatzen du 1990. hamarkadan Euskal Filologiako ikasle izandako Agurtzane Azpeitiak.

Era berean, autore klasikoen bizitzako gora-beherak ez aspertzeko moduan kontatzen zituen kontalari trebea izan da. “Patxiren eskolak mundialak ziren, Larramendiz hitz egiten hasten zenean, haren bizitzako gora-beherak... Gainera, berak gozatu egiten zuen. Ezagun da irakasle batek gozatzeko duenean”, aipatzen du 1980. hamarkadan Euskal Filologiako ikasle eta beranduago EUTGn irakasle izan den Esther Zulaikak. Eta are gehiago, Patxi hain maite zituen autore klasikoak maitatzen makina bat ikasleri erakutsi die. “Autore zahar haiei zuten estimazioa eta miresmena transmititu egiten zituen. Berak autore zaharrak errespetatzen eta maitatzen erakutsi digu; era berean, hauek duten garrantziaz eta euskarari egin dioten ekarriaz, eta egun duten balioaz konturatu gintuen”, esaten du Agurtzane Azpeitiak.

Halaber, irakasle zorrotza zen Patxi. Hala iritzi dio Miren Azkaratek, 1970. hamarkadan Filologia Erromanikoa ikasitakoak: “Ikaragarri irakasle zorrotza zen, suspentso pila bat ematen zuena. Gelan ehun eta piko baginen bostek-edo gaindituko zuten. Beldurgarria zen, baina jendeak errespetu handia zion”. Eta hori zen, hain zuzen ere, lan horretan Patxiri gutxien gustatzen zitzaiona, berak aitortzen duenez: “Eskolak ematen gozatu egiten nuen, baina notak ipintzea zen niretzat lanik gogorrena. Sufritu egiten nuen, ez nekien askotan justu zein nota jarri. Eta horregatik beti azken unera arte egoten nintzen notak jartzeko, idazkaritzako langileak zoratur”.

Suspentso ugari eman duen irakaslea izan bada ere, ikasleekin harreman ona izan duen irakaslea

izan da. Ikasleengandik oso gertu egon dena. “Ikasleekin banakako tratua zuen, guztiok ezagutzen gintuen pixka bat eta guztion bizitzaren zertzeladaren bat ere jakiten zuen”, aipatzen du Agurtzane Azpeitia ikasle ohiak.

‘Versificación de Dechepare’

Unibertsitateko irakasle izateak ikerketa lana du eskakizun, zer esanik ez gaia unibertsitatean inoiz irakasgai izan ez denean. Horregatik, irakasgaia sortzeko hasi bazen ere ikertzen, bere ase ezineko jakin nahiak eraman du bere bizitza ikerketara bideratzera. Irakasgaiak sortzeaz gain, Salamancan buruan zerabilen tesiari ekin zion 1975. urte aldera.

Urteak zeramatzan Bernard Etxepare aztertzen eskolak eman ahal izateko. Baina klasiko honen lanak bazuen zerbait Patxi zeharo harrapatu zuena. Zenbat eta gehiago aztertu, orduan eta txundituago zegoen Patxi. “Etxepareren bertsoak asko gustatzen zitzaizkidan, ia-ia maitemindu egin nintzela esan daiteke. Eta egun batean konturatu nintzen bertso horietan tesi lana zegoela. Mitxelenaren etxera joan eta berak baietz, bazela tesi lana egiteko modukoa, eta halaxe ekin nion tesiari”.

Koldo Mitxelena izan zuen doktore-tesi zuzendari, hura baitzen garai hartan Etxepare aztertzen lagun ziezaiokeen bakarretakoa. Gainera, Mitxelenak berak bataiatu zuen Patxiren tesia: *Versificación de Dechepare: métrica y pronunciación*.

Doktore-tesia egin behar zuela erabaki bezain laster urtebeteko lan-utzialdia eskatu zuen EUTGn.

1976-1977 ikasturtean, hortaz, eskolak emateari utzi zion tesiari buru-belarri eusteko, eta Salamanca joan zen. Bertako unibertsitate batean irakasle ari zen eta tesi zuzendari zuen Koldo Mitxelenagandik hurbilago egoteko.

Salamanca, astean behin elkartzen ziren tesi lanaren nondik norakoak ikusteko eta aipatzeko. Zoritxarrez, otsail aldera ondoezak jo zuen Mitxelena eta oso gaixo egon zen. Beraz, ikasturte hartako bilkurak eten egin ziren. Handik aurrera hilabete batzutan Patxik berak bakarrik konpondu behar izan zuen.

1978ko martxoan, Filologia ikasketak egin zituen Salamancako unibertsitatean irakurri zuen tesia; Antonio Tovar, Martin Ruiperez, Jose Antonio Pascual, Carmen Codoñer eta Koldo Mitxelena, Salamancako Unibertsitateko irakasle eta hizkuntzalari ezagunek osatu zuten epaimahaiaren aurrean, hain zuzen. Patxiren tesi-lanak Bikain *cum laude* nota jaso zuen eta ohore guztiekin doktore izendatu.

Handia izan zen izendapen hura euskararentzat; izan ere, garai hartako Euskaltzaindian, eta euskalgintzan oro har, hirugarrena baitzen doktore izaten, Koldo Mitxelenaren beraren eta Jean Haritzelharren atzetik.

Etxepareren bertsoei buruz egin zuen tesi lana, Patxiren lehenengo ikerlan handia izan zela esan daiteke, harrezkero Bikain *cum laude* merezi duten lan gehiago ere egin baitu: Ziburuko Etxeberri, Tartas, Ubillos, Fray Bartolome, Mendiburu... Euskal Herriko Iparraldeko nahiz Hegoaldeko autoreen lanen edizio kritikoak eginez.



Ikerlan horiek guztiak, unibertsitatean ikasle izan zituenentzat ez ezik, euskal klasikoei buruz jakin-mina duen ororentzat eskuragarri egin ditu, edizio kritikoetan, artikuluetan eta abarretan. Badirudi, irakasle senak aginduta, bere jakintza geletatik kale-ra jalgi nahi izan duela hamaika argitalpenetan.

Era berean, ikerlari berriak bultzatu eta akuilatu ditu, dela tesi zuzendari gisa, dela tesi epaile gisa. Eta tesi lanetan ez ezik, beste hainbat lanetan zuzendari, gidari ere aritu da. Bat aipatzekotan, guztietan bitxiena izan den, Tadao Shimomiya irakasle japoniarraren *Manual de lengua y culturas vascas: lengua, literatura, folklore, método de vasco unificado, antología y glosario* (1979) lanean. Lana Tokion argitaratu zen, eta, besteak beste, japonieratik abiatuta euskara irakasteko metodoa zekarren.

Gainera, unibertsitatean lan egindako ia 40 urte hauetan irakasle aritzeaz gain, hainbat kargu aka-

demiko ere izan du: Deustuko Unibertsitateko Donostiako campuseko Filosofia eta Letren Fakultateko dekanoa (1978-1983), Deustuko Unibertsitateko Donostiako campuseko Euskal Hizkuntzako departamentu burua (1987-1994), Deustuko Unibertsitateko Donostiako campuseko Euskal Hizkuntza Saileko zuzendaria (1979-1991) eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Hizkuntzan Institutuko zuzendaria (1979-1991).

1963tik 2001era arte, ia 40 urtean, Patxi irakasle aritu da, batik bat, Deustuko Donostiako (lehen EUTG) eta Bilboko campusetan. Latinaz gain, euskal gaiak izan ditu irakasgai: *Lingüística Española*, Euskal Hizkuntzaren Historia eta Euskal Testuak. Irakaskuntza oso maite duen lana da, gozatu egin du lan horretan. Eta irakasle aritu da, halaber, geletatik at hainbat argitalpenen bidez. Badirudi, beraz, bi bokazio izan dituela Patxik: apaiz bokazioa eta irakasle bokazioa, eta jesulagun izanik biak uztartzeko aukera izan du.

Patxi Altuna euskaltzaina

XIX. mendean hainbat erakunde euskaltzale sortu zen maila politikoa egiten zen euskararen defentsaren ondorio gisa. Euskaltzaleek berehala sentitu zuten Euskararen Akademiaren beharra, baina ez zen ezer garatu, 1880. urtean, Aristides Artiñano bizkaitarra gai horretaz indarrez eta adorez mintzatu zen arte, eta Academia bascongada izena ere proposatu zuen. 1886an, sortu beharreko akademiaren estatutuak aurkeztu zituen Aristides Artiñanok eta

Sabino Arana Goirik onartu egin zuen haren proposamena.

Akademiaren sorrera, hala ere, berandukoagoa da. Euskaltzaindia izango zena, Bizkaiko Diputazioan jaio zen 1918. urtean, Hegoaldeko beste Foru Aldundiekin batera aurrera egiteko asmoarekin. Asmoa egia bihurtzeko, ordea, beste urtebete behar izan zen. 1919an, Oñatiko Unibertsitatean Arautegi proiektua onartu zen, Eusko Ikaskuntza kultur elkartearen eskutik, eta bertan lehen lau euskaltzainak hautatu ziren: Resurrección María Azkue, Arturo Kanpion, Julio Urkixo eta Luis Eleizalde.

Urteak aurrera ahala bere izapidea lortuz zihoran Euskaltzaindia, eta euskara batua sortzeko asmoari lotu zitzaion, nahiz eta ez zuen lortu gogo hura bide akademiko finko eta ziur batetik eramatea. 25 urte betetzera zihoala, Espainiako Gerra Zibila piztu zen, 1936an. Gerra horrek eta ondoko diktadurapeko hainbat urtek Euskaltzaindiaren jarduera hura isilarazi zuten. 1950. hamarkadan ekin zioten berriro lanari: arautegia berritu zen eta euskaltzain oso berriak hautatu ziren, oraingoan hamabi. 1956an, Arantzazun izan zen gerraondoko lehen biltzarra, ezkututik atera eta lehen topaleku agerikoa.

1956ko biltzarraren helburua, ezkutuan lanean jardun zuten euskaltzaleak elkartzea eta elkarren berri izatea izan zen. Biltzar horretan euskaltzaleon kezka nagusia euskarari bizirik nola eutsi izan zen.

Aspalditik —gerra aurretik— sumatua zuten, beraz, hainbat euskaltzalek euskara batuaren beharra. Baina, 1960. hamarkadan sortu zen Ikastolak, alfabetatze-euskalduntze eskolek, idazleek, euskal

prentsaren bidetik zebiltzanek... areagotu egin zuten behar hori. Eta gizartearen eske horri erantzun nahian bildu zen Euskaltzaindia 1968an Arantzazun.

Arantzazuko Biltzarraren garrantzia (1968)

Akademiak 50 urte betetzen zituela aitzakia harturik, eta Gabriel Arestik eskatuta, euskara idatziaren batasun prozesua aztertzeko jardunaldi batzuk egitea proposatu zuen Euskaltzaindiak. Biltzar Nagusiak, euskaltzainak ez ezik, euskararekiko arduraren berezia zuen jende ugari bildu zuen 1968an, urriaren 3an, 4an eta 5ean Arantzazun.

Euskara batuaren lan proiektua egiteko batzorde bat eratu zuen Euskaltzaindiak eta honen buru Koldo Mitxelena aukeratu. *Arantzazuko txostena* izenaz ezaguna den lanak bost txosten zituen eztabaidagai: *Batasun bear au zergaitik eta zertarako*, *Ortografia*, *Itzen formak*, *Itz berriak eta Deklinazioa*.

Eztabaidak ugariak eta beroak izan ziren, batasunaren aldeko eta kontrakoaren artean. Baina, zalantzarik gabe, Mitxelenaren ortografiari buruzko txostena izan zen eztabaidatuena, 'h'aren auziaz hitz egin baitzuen.

Mitxelenak 'h'a erabiltzearen alde egin zuen, eta, era berean, batuaren alde. 'h'a euskal letratzat hartzen zuen, Euskal Herri osoak ezagutu duen fonema delako batetik, eta orduan Ipar Euskal Herrian erabilera arrunta zuelako, bestetik.

Eta horrez gain, 'h'a onartzeko beste arrazoi



1968ko Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarra da. Aqian, Euskaltzaindiak egin duen biltzarrik ezagunena. Patxi ere bertan izan zen / EUSKALTZAINDIA

garrantzitsu bat —eta aqian, arrazoi erabakigarria izan zena— ere bazuen: 1964an, Baionan Txillardegiren inguruan bildu zen idazle gazte talde batek baturako hainbat proposamen egin zituen, besteak beste 'h'aren erabilera proposatuz. Hori dela eta, idazle gazteek letra hori erabiltzen zuten, beste proposamenak beste. Horregatik letra horren alde eta euskara batuaren alde egin zuen Mitxelenak, eta hala adierazi zuen: "Gazteak beti arrazoi dutela. Alegia, gazteak, bizitzaren etorriz, arrazoi, nahiz beste aldetik ez izan".

Patxi Altuna ere iritzi berekoa zen: "Gabriel Aresti izan zen euskara batuaren bultzatzaile, eta hasieran estrainio samarra egiten bazitzaigun ere,

nik neuk batuaren eta 'h'aren alde egin nuen, gazte-diaren aldekoa zelako. Orduko euskaltzale gaz-teek hori nahi zuten; beraz, hori hartu. Gainera, arrazoi-tsua iruditzen zitzaidan batasuna lortzea Euskal Herri osoan”.

Jon Etxaide ere, besteak beste, batuaren, 'h'a-ren aldekoa zen eta honela adierazi zuen Arantzazu-n: “Ortografiaren batasuna iritxiko ba’dugu, pre-miazkoa da, Bidaso’z bi aldetako euskaldun guztiok honartzea ala gaitzestea. (...) Iparraldeko gure anaiek ez dezakete baztertu oguzten duten letra bat, (...) bestalde, guri <<h>> horrek eztigu batere kalte-rik egiten, baitipat gogoan edukita eskola españo-le-tan hazi geran euskaldun guziok <<h>> mututzat daukagula”.

Kontrako iritziak ere asko izan ziren. Esatera-ko, R. Intzagaraiak zera zioen: “Erraztasunagatik idazleak h gabe. Irakurleentzat hkin zailago”.

Aita Mujika, berriz, 'h'aren kontra zegoen, baina euskara batuaren alde: “Gaur euskaldunak seietatik bost h gabe, gehienen kalterako dana ezin diteke euskeraren onerako izan. (...) Jaun Andreak!! Ez dezagun indioarena egin! Erraztasunari lagundu eta indarra eman, eragozpenak kendu. (...) H letrak ez du garrantzirik batasunerako”.

Baina, badirudi, aita Pierres Lafitteren hitzak erabakigarriak izan zirela auzi hura baretzeko. Hala kontatu zuen, behintzat, aita Luis Villasante zenak *H letraren iskanbila Arantzazuko Biltzarrean* artiku-luan: “Ez dakit nik zer pasatuko zen itsaso haserre hartan ustegabeko gertari bat gertatu ez balitz. Ba-zen han Pierre Lafitte jauna, Iparraldeko euskal le-



Euskaltzaindiako kideak 1972. urtean Arantzazun. / EUSKALTZAINDIA

tren patriarka beneragarria (...), hitza eskatu zuen. Denak isildu ziren berari entzuteko. Eta, mamiz hau xe esan zuen: Iparraldekoek, alegia, segituko zutela H erabiltzen, zeren eta berentzat utzi ezinezkoa baitzen. Hemengoei, aldiz, berak eskatzen zien ez zezatela letra hori har, horrenbeste istilu eta eragozpen sortzen zienez geroz. Azken batean —gaineratu zuen— euskara biziko bada, hemen biziko da, zeren eta beste aldean ez baitu etorkizunik.

Hitz horiek sortu zuten erreakzioa ustegabekoa izan zen eta erabakigarria oso, Biltzarrak amaiera edo azken on bat izan zezan: utziera eta zatiketa-arentzat ez zen lekurik laga behar; Iparraldea gure herriaren zati guztiz begikoa eta kutuna zen; beharrezkoa zen, bada, denek bat eginin joatea. Eta ordutik urek beste norabide bat hartu zuten eta

gehienek ortografia batuaren alde jarri ziren edo behintzat, ez zuten lehengo kontrakarra erakutsi” (*Euskera*, 1994(3)).

Gaur egun sinesgaitza bada ere, ‘h’ letra izan zen batasunerako koska nagusia. Letra mutua bilakatu baitzen aldeko eta kontrakoen bandera. Batasunaren aldekoak, ‘h’aren aldekoak ziren eta batasuna nahi ez zutenak ‘h’aren arerio.

Euskara batuaren aldeko eta kontrako iritziak entzun ziren saio haien ondoren, euskaltzainak berriek bakarrik bildu ziren eta azkenik, batasunerako bidea hartzea erabaki zuten. Berebizikotzat jotzen zelako euskara batzea, euskara biziko bazen. Eta ‘h’aren auzian erdiko bidea aukeratu zen: kasu batzuetan hitzak ‘h’z, beste batzuetan ‘h’ gabe.

Kontuak geroago okertu ziren, biltzarrean izan ez zirenen eraginez. Euskal gizarteak gertutik jarraitu zuen batasunaren inguruko eztabaida eta ‘h’ak —hots, euskara batuak— ere izan zuen makina bat aldeko eta arerio Arantzazutik kanpo.

Biltzarrak kalean izan zuen oihartzuna

Arantzazuko Biltzarrean Euskaltzaindiak euskara batuaren alde egitea erabaki zuen. Hau da, idatzietan erabiliko zen euskara batu baten alde egitea. Baina izan zen Arantzazun hartutako erabakia onartu ez zuenik, eta horrek banaketa ekarri zuen euskal argitalpenetan: euskal prentsan, liburugintzan... Zenbait aldizkarik, argitaletzek eta idazlek, Euskaltzaindiak proposaturiko arauak jarraitzen zituen, baina, bestetik, beste hainbatek araei muzin egi-

nez ordu arte bezala idazten jarraitu zuen, norik bere euskarari.

Horrek guztiak halako ondoeza, haserrea eka-
rri zuen euskalgintzan zebiltzanen artean. Batzuek,
euskarak iraungo bazuen, batu egin behar zela si-
nisten zuten, besteek kalte besterik ez ziola egingo.
Gainera, batzuek euskara batuaren azpian ideologia
komunista, marxista ikusten zuten, eta horrek on-
doeza areagotzen zuen.

Garai hartako artikulua ugari dira tirabira
horien lekuko, batzuk euskara batua gartsu defendi-
tuz, besteak indar guztiaz gaitzetsiz.

Patxi Arantzazuko Biltzarrean eta gerora, esa-
terako, *Euskera, hire laguna* metodoa euskara batu-
ra egokitu eta, horrenbestez, 'h'a sartu zuenean,
izan zen horregatik berekin haserretu zenik. Horren
agergarri dira, Inozentzio Olea bertsolariak 1969ko
ekainean *Zeruko Argia* aldizkarian argitaratu zituen
bertsoak. Besteak beste, honelakoak esan zizkion
Patxi Altunari zortziko handian:

*Zu ere "hache"-zaleetara
eroria azkenean,
zutik egoten lan da ekaitzak
astintzen gaituanean;
ez al zekizun zer gertatzen dan
ezta-baida bat danean?
arrazoirikan ez duan ura
arroena geienean.*

*Bertsolariak "hache'rik" gabe
euskera idatzi zuten,
baiña zertako egongo gera*

*berritxu aiei entzuten;
zuek ez egiñ jaramonikan,
eskolarik ez baizuten,
ia jakintsu danon artean
lenbailen iltzen dezuten.*

*Oraingo zure liburu onek
eman didan eztenkada,
bertsolariak orra azaldu
trixte bere biozkada.*

*Aita Altuna, egiaz dizut
nere barruan kezka da,
euskerarentzat ez ote dan au
azkenengo mazokada?*

Bertsolaritzan, euskal prentsan, liburugintzan... ez ezik, irakaskuntzan ere bizi izan zen euskara batuaren tirabira. Zein euskara irakatsi behar zen ikastoletan, alfabetatze-euskalduntze eskoletan? Zein testu landu behar ziren: euskara batuan zeudenak ala besteak?

Biltzarrak Azpeitian izan zuen oihartzuna

Azpeitian, 1960. hamarkadan euskararen aldeko mugimendua sortu zen Luistarren Kongregazioaren inguruan. Bazen kongregazio horretan euskara eta euskararekiko kezka azaldu zuen Euskal Kultura izeneko talde bat, eta taldeko kideek euskal gaien eta euskaraz janzteko beharra sumatu zuten. Horretarako, Loiolan bizi zen aita Juanito Goikoetxea *Txikia*-rengana jo zuten. "Euskal Kultura taldean sartu ginenean, Juanito Goikoetxea izan

genuen hizlari, eta Euskal Herriaren prehistoriaz ari-
tzen zitzaigun. Euskal alfabetatzeari ere harekin
ekin genion. Juanito Goikoetxeak euskaraz irakur-
tzen irakatsi zigun. Baina hark destinoa aldatu eta
kanpora joan behar izan zuenez, guk Jose Mari
Iriondori deitu genion. Iriondok euskaraz idazten
erakutsi zigun. Idazten ikasi ondoren, gramatika
ikasi nahi genuen, eta, horretarako, Patxi Altuna-
rengana jo genuen. Honekin, batik bat, euskal jos-
kera eta aditza landu genituen”, kontatzen du Inazio
Mari Olartek.

Bide horri jarraituz, alfabetatze ikastaroak sortu
zituzten Azpeitian kongregazioko kideek. Eta horri
jarraiki, hurrei ikasketak euskaraz emateko ideia
sortu zen. Ordurako, hainbat herritan baziren ikasto-
la hasiberriak eta Azpeitian ere halako bat sortzea
zuten amets. Aurkitu ziren amets hori aurrera era-
mateko baliabideak eta lehenengo urratsak zailak
izan baziren ere, lortu zen Azpeitian 1966an ikasto-
la sortzea.

1968ko Arantzazuko Biltzarrean hartutako era-
bakien ondoren sortutako tirabirak Azpeitian ere bizi
izan ziren. Eta Azpeitian sortu berria zen ikastola-
rentzat une garratzak izan ziren oso, batik bat
1975ean Euskaltzaindiak ‘h’aren inguruko erabakiak
hartu zituenean. Hala kontatzen du Azpeitiko
Ikastolaren sortzaileetako bat izan zen Inazio Mari
Olartek: “Euskara batuaren kontuak, edo hobeto
esan ‘h’aren auziak, zatiketa ekarri zuen ikastolan:
batzuek alde, besteak kontra. Iskanbila handiak izan
ziren, adiskideak elkarrekin haserretuta...”.

Orduan Jesus Gaztañaga zen ikastolako

zuzendaria zen eta ez zituen onartu Euskaltzaindiak 'h'aren alde hartutako erabakiak, eta horrek ezine-gona sortu zuen ikastolan. Euskara batua bai ala ez erabakitzeko erreferenduma iragarri zen, baina aurretik gurasoek euskara batuaren aldekoen eta kontrakoen hitzaldiak izan zituzten entzungai.

Euskara batuaren alde, hiru hizlari mintzatu ziren: Imanol Laspiur, Xalbador Garmendia eta Patxi Altuna, 1975eko maiatzaren 13an. Euskara batuaren kontra, Jose Agustin Orbegozo, Olazar eta Santi Onandia izan ziren, maiatzaren 16an.

1975eko maiatzaren 24an egin zen erreferenduma eta baiezekoak irabazi zuen. Dirudienez, Patxiren hitzaldiak izan zuen zerikusirik garaipenean. Hala kontatzen du, orduantxe ikastolan irakasle hasiberria zen Lazaro Azkunek: "Hitzaldi hartan, Patxiren interbentziotako bat izan zen 'h'a Urola bailaran ere bizi zela. Eta galdetu zuen: 'Hemen azkoi-tiarrik ba al da?'. Bai, bazen. Eta hauei galdetu zien: 'Nola esaten duzue: 'biotza' ala 'bixotza'? Edota: 'bier' ala 'bixer'?'. 'Biotza' eta 'bier' esaten duzue, eta, era berean, 'bixok' eta ez 'biok'. Garbi gelditzen da hor, Urola bailaran oraindik ere, 'h'a bizi dela: 'h' legokeen lekuan ez da 'xe' egiten eta ez legokeen lekuan bai'. Hitzaldi horrek, jende askori begiak irekiarazi zizkion, eta 'h'a gure hizkuntzako zerbait bezala ikusi zuten eta ez asmakeri bat bezala, kontrakoek esan ohi zutenez".

Euskara batuaren auziak eta, batik bat, honen ikur bihurtu zen 'h'aren auziak kalean urteetako lis-karra sortu bazuen ere, Euskaltzaindia baturako bi-dean lanean ari zen. Batetik, Arantzazun eskainita-



Azpeitiko Ikastolako lehen ikasleak eta andereinoak, ikastolaren lehen egoitzan, Zentenarioko etxe azpietako lokaletan. 1965-1966ko ikasturtea.
/ IZARRAIZPE IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA 25 URTE BIDEA URRATZEN LIBURUA

ko proposamenak gauzatzen: ortografia, deklinabidea, erakusleak, aditza... batzen. Eta bestetik, alfabetaze-euskalduntze kanpainaren bidez euskara batua hedatzen eta euskal irakasleak hezten.

Patxi Altunak, Euskaltzaindiaren ekin horren bi alderdiotan hartu zuen parte. Batetik, 1971n baturako aditza taxutzeko eratu zen Euskal Aditz Batuaren batzordean idazkari jardun zuen; euskara batuaren punturik zailenetakoa izan zen aditza batuztat eman eta batzordea 1979an desegin zen arte.

Euskaltzaindiak bere lanak, bildumetan sailkatu argitara ohi ditu. Eta bildumen argitaratzea, Argitalpen batzordearen esku zegoen eta dago. Patxi, 1970. hamarkadan izendatu zuten batzorde horretako kide eta bilduma ezberdinen argitalpene-

an hartu zuen parte, besteak beste *Euskararen Lekukoen bilduma*-ren eta Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala den *Euskara* aldizkariaren argitalpenean. Eta gogoz aritu zen horretan, 1999an batzordeko kide izateari utzi zion arte.

Euskaltzaindiko barneko lanaz gain, kalean ere aritu zen euskara plazara, mundura jalgi nahi horretan. Bere irakasle senak eraginda, eta hainbat urtetan euskara irakasle eta euskara ikasteko metodo berri baten sortzaile izatearen eskarmentua bizkarran zuela, Euskaltzaindiak abian jarri zuen Alfabetatze-Euskalduntze batzordean ere aritu zen gogor lanean, 1960. hamarkadan hasi eta 1970. hamarkada erdira aldera arte, Euskaltzaindiak egiteko hori AEK eta HABE erakundeen esku utzi zuen arte.

Era berean, Euskaltzaindiak beregain hartu zuen euskal irakasleak sortzea, eta horren haritik irakasle Gaitasun Titulua sortu zuen. Eta horretan ere aritu zen Patxi Altuna makina bat urtetan, titulu hori izateko gainditu behar zen azterketak prestatu eta zuzentzen.

Azpeititik ere deitu zioten, alfabetatze inguruan zebiltzan hainbat irakaslek zalantzak uxatu nahian. Kongregazioaren bilera-lekua zen Zentenarioko behe hartara, makina bat aldiz etorri zen Patxi, euskararen nondik norakoak azaltzera. "Oso irakasle ona zen, gauzak garbi gelditu arte, behin eta berriz azaltzen zituen, helduleku ezberdinetatik eutsiz. Pazientzi handikoa zen eta tenple oneko gizona. Gainera, nabarmena zen oso jakituna zela eta euskara ikasterakoan bermea zen guretzat, bagenekien

behintzat, harekin ikasia hala izango zela, garai hartan ziurtasun hura ez baitzen normalena”, kontatzen du Olartek.

Azpeitiko Zentenarioko behe horretaz gain, azpeitiarrek izan zuten Patxiren irakatsiak jasotzeko beste gune bat: Loiola Irratia. Hala, Loiola Irratiak eta 1970eko abenduan honekin bat egin zuen Donostiako Herri Irratiko kideek eskatuta, 1975ean eta 1976an alfabetatze ikastaroak eman zituen irratiz. Oraindik ikastaro haiek oso gogoan ditu Inazio Mari Olartek: “Ikastaroetan esaldi bat hartzen zuen autore klasikoetatik eta beronen aditzari buruz jarduten zuen. Euskalki desberdinetako testuak lan-tzen ziren, eta ilunak ziren pasarteak argitzen zituen. On handia egin zuen Patxik saio haiekin, eta lastima izan zen irratididezko ikastaroak gehiago ez irautea, Azpeitian jendeak gustura entzuten zuelako”.

Liskarrak liskar, ‘h’aren auziaren inguruko tirabirak baretzen ari ziren euskal gizartean. Eta,aldi berean, Euskaltzaindia gogotik ari zen lanean, Arantzazun hartutako erabakiak aurrera eramaten; hots, euskara batuaren oinarriak sendotzen.

Bergara-Arrasateko Biltzarra (1978-1979)

Hamar urteko epea utzi zuen Euskaltzaindiak Arantzazuko irakatsiek zer harrera izaten zuten eta nor nola mintzo zen ikusteko. 1978ko irailean, Bergaran (Gipuzkoa) bildu zen Euskaltzaindia hamar urte haietan euskaraz argitaratu zen guztia edo ia guztia aztertzeko eta biltzarkideen iritzia jasotzeko. Garbi

ikusi zen estatistika neurketa hartan, idazle gehienak jadanik Arantzazuko arauetara jarriak zirela.

Euskara batua Euskal Herrian errotua zegoela Bergarako Biltzarrean ikusi ondoren, hurrengo urterako utzi zuen erabakiak hartzea. Hala, 1979ko abenduan, Arrasateko (Gipuzkoa) Biltzarrean berretsi egin zuen Euskaltzaindiak Arantzazuko agiria.

1978ko Bergarako Biltzarra, beraz, epe baten bukaera izan zen, Euskaltzaindiak Arantzazuko Biltzarrean hartutako erabakien harrera neurtzeko epea. Epe hori gaindituta, Arrasaten bide berria urratu zen euskara batuaren ekinean, eta gramatikarako gaiak bildu eta prestatzeari ateak ireki zitzaizkion. Horretarako, 1980an Gramatika batzordea eratu zuen. Batzorde horren sorrera beretik Patxi kide izan zen eta batzordeburua zen Pierres Lafitte hil ondoren, 1985ean Patxi izendatu zuten batzordeko buru.

Euskaltzaindiaren barne eta kanpo antolamenduak 1980. hamarkadatik aurrera antzaldatze handia jasan zuen. Gainera, 1975ean frankismoaren amaierarekin, 1979an Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Estatutuarekin eta 1982an Nafarroako Foruaren Hobekuntzarekin Euskaltzaindiari —eta euskalgintzan zebilen beste hainbat erakunderi— bidea erraztu egin zitzaion.

Gramatika batzordea ez ezik, beste hainbat batzorde berri ere eratu zen. Esaterako, Patxi Altuna kide izan zuten edo duten: Maileguzkoen Batzordea (1985-1986), Lexiko Erizpideen Batzordea (1987-1995) eta Euskara Batuko Batzordea (1991-...) sortu ziren.



Euskaltzaindiaren Arrasateko biltzarra. Aurrean Patxi Goenaga azpeitiarra eta atzealdean Patxi Altuna, hitz egiten. / EUSKALTZAINDIA



Euskaltzaindiaren Arrasateko Biltzarreko beste irudi bat. Bertan Patxi Altuna ere ageri da, eskuin-eskuinean. / EUSKALTZAINDIA

1980. hamarkada honetan, bestalde, Azterketa eta Irakaslegoa batzordeak desegin egin ziren. Izan ere, frankismoaren ostean EAEn gobernu berria osatu ondoren, egiteko horiek guztiak Eusko Jaularitzaren Hezkuntza eta Kultura sailaren esku utzi ziren 1983. urtean. Eta Euskaltzaindiak ematen zuen Irakasle Gaitasun Titulua, egun hain ezaguna den Euskara Gaitasun Agiria (EGA) bilakatu zen; eta hori, Azterketak batzordearen bidez bideratzen zen.

Euskaltzaindiak, hainbat alor beste erakunde batzuen esku utzi eta bere egiteko propiora bideratu zituen indarrak 1980. hamarkadan. Garai horretan hasi zen osatzen, hain zuzen, Euskaltzaindiak egun duen organigrama konplexua. Eta batzorde berrien mozkin emankorra 1994ko Leioako (Bizkaia) Biltzar Nagusian ikusi ahalko da.

Leioako Biltzara (1994)

1994ko urrian, Bergara-Arrasateko biltzarretatik hamabost urtera hain zuzen, bildu zen Euskaltzaindia Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean idazleekin, irakasleekin, kazetariekin, administrazio-ko langileekin eta abarrekin, ordura arte euskara batuan egindako bidea aztertzeko: okerrak zuzentzeko, zuzen emandako arauak berresteko eta aurrerapauso berriak emateko.

Arantzazun bateratzeko bost eremu ikusten ziren. Horietako bat, Ortografia, finkatua zen jada, eta beste laurak finkatzeko: Hitzen forma, Hitz berriak, Morfologia eta Joskera, hain zuzen. Horiez gain,



Euskaltzaindiaren Leioako Biltzarra, 1994. urtean. Biltzarrean parte hartu zutenak argazkian. Patxi, ezkerretik laugarrena da. / EUSKALTZAINDIA

Ahoskera eta Metrika ere izan zituzten aztergai. Bergara-Arrasateko biltzarretatik ordura arte, Euskaltzaindiak egin zituen lan horien denen emaitza azaldu zuen egun haietan. Eta horrez gain, 61 ikerlariren lanen berri ere jakin ahal izan zen.

Biltzar Nagusi horretara, Euskaltzaindiko batzorde bakoitzak bere txosten mardula eraman zuen, hamabost urte haietan egindako lanaren agerri. Patxi Altunak, aurkeztu ziren batzordeen txosten horietan parte izateaz gain, arduraren handi samarra izan zuen Leioan. Izan ere, azpeitiarra Gramatika batzordeburua, Euskara Batuko batzordeburua eta Iker sailburua zen. Eta, ondorioz, batzorde horietan egindako lanaren arduradun nagusi.

Biltzarraren arrakasta, bertan irakurri ziren lanen garrantzian ez ezik, Leioara bertaratu zen eus-

kaltzale kopuruan ikus zitekeen: Arantzazun 60 bat lagun bildu ziren, Bergara-Arrasaten 100 edo, eta Leioan 400etik gora.

Euskaltzaindiak Arantzazun jarri zituen euskara batuaren zimenduak; Bergara-Arrasaten zimendu haiek sendo zeudela ziurtatu eta urrats berriak eman zituen euskara batuaren bidean; Leioan eternaldia egin zuen bidean egindakoa zuzentzeko bazutan, berresteko bestetan. Eta oraindik ere baturako bidea egiteari darraio.

Patxiren euskaltzain izendatzea

Euskaltzaindia 24 euskaltzain osoz, euskaltzain urgazleez eta euskaltzain ohorezkoek osatua dago. Urgazleek —euskaltzain osoei beren egitekoan laguntzen dietenak— eta euskaltzain ohorezkoak, biltzarretan boza baino ez dute; euskaltzain osoek, berriaz, boza eta botoa.

Euskaltzain urgazleek inoiz euskaltzain oso izateko aukera dute, Euskaltzaindiak hala baderitzo. Horregatik, Euskaltzaindiko aulkia betetzeko, lehenagotik urgazle izan behar da.

1965eko irailaren 24an, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazleak izendatu zituen. 32 izan ziren aldi hartan izendatutakoak eta haietako Patxi Altuna bera. Laguntzaile aritu zen, beraz, urte askotan Patxi Euskaltzaindiaren jardunean, 1979an Jose Maria Lojendio euskaltzaina hil eta haren aulkia hutsik gelditu zen arte.

Euskaltzain oso bat hiltzen denean, Euskaltzaindiak beste euskaltzain bat aukeratzen du haren



Ezkerreko argazkian, Patxi Altuna Euskaltzaindiako kargu-hartze ospakizunean, Azpeitiko Udaletxean, 1981eko urtarrilaren 24an, hitzaldia irakurtzen; bere ondoan, berari begira, Jean Haritxelhar, gaur egungo euskaltzainburua. Eskuineko argazkian, lehen planoan, zutik ezkerretik eskuinera; Luziano Lazkano orduko Azpeitiko alkatea, Koldo Mitxelena euskaltzain osoa eta Patxi bera. / **PATXI ALTUNA**

lekua betetzeko, eta bi izan ziren proposatuak Jose Maria Lojendioren aulkia betetzeko: Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardeg*i eta Patxi Altuna.

1980ko apirilean Euskaltzaindiaren hileroko bilzarrean, Jose Maria Lojendioren aulkia betetzeko hauteskundeak egin ziren. Hiru bozketa egin ziren, baina, hala ere, inork ez zuenez nagusitasun osoa lortu, aulkia hutsik gelditu zen.

Urte bereko ekainean hautagai berriak hautatu behar ziren, eta Patxi Altunaren izena baino ez zen

aurkeztu. Uztailean Patxi Altuna bai ala ez bozkatu zen, eta baietza izan zen nagusi. Beraz, Patxi Altuna zen handik aurrera Euskaltzaindiaren hamazazpigarren aulkia bete zuena.

Euskaltzaindian egin ohi denez, euskaltzain oso berriak bere herrian hartu zuen kargua. Gauzak horrela, 1981eko urtarrilaren 24an bildu zen Euskaltzaindia Azpeitiko Udaletxean Patxi Altunaren karguaren hartzea ospatzeko. Ospakizunari hasiera Luziano Lazkano Azpeitiko alkateak eman zion. Ondoren, Luis Villasante euskaltzainburuak Patxiren ibilbideaz hainbat aipu eta laudorio egin ostean, izendapenagatik zoriondu eta Euskaltzaindira ongietorria eman zion.

Villasante zenaren hitzaldi laburraren eta gozagarriaren ondotik, eta ekitaldiotan egin ohi den bezala, Patxiri eman zioten hitza eta honek Ziburuko loannes Etxeberriri buruzko sarrera hitzaldia irakurri zuen. Sarrera hitzaldiari, Koldo Mitxelenak erantzun zion, Patxi Altunaren kargua hartzeko merezimenduak aipatuz eta goraiatuz. Eta ekitaldia amaitzeko denak zutik zirelarik, Luis Villasante euskaltzainburuak azpeitiarra euskaltzain aitortu zuen.

Patxi euskaltzain oso izendatu baino lehenagotik ere leial ari zen lanean Euskaltzaindian. Baina izendatzeak indarrak ahitu arte lanean jarraitzera hitz emanarazi zion. Halaxe adierazi zien Euskaltzaindikiko kideei, sarrerako hitzaldian: "Badakit ondotoxo izendapen hau ez dela ordain eta sari; ondotoxo dakit ez dituzuela nik gaurdaino euskararen alde irabazitako nola-halako merezimenduak sariztatu nahi izan; aitzitik, orain arte, alferkeriaz edo, egin neza-

keen baino gutxiago egin dudala ikusirik, lan gehi-
go egitera deitu eta akuilatu nahi izan nauzuela. (...)
Nik neure aldetik hitz ematen eta zin egiten dizuet.
Jainkoak osasun eta indar eman nahiko didaino,
eginahalean saiatuko naizela zuekin batean egiteko
hori burutan ateratzen". ■

5. *Loiolara, etxe aldera* (2001-...)

Deustuko Unibertsitateko Donostiako campusean Euskal Filologiako ikasketen azken urtea izan zen 2000-2001 ikasturtea. Hastapenetan tinko aritu zen Patxi, eta hainbat neke eta poz sorrarazi zizkion ikasketekin batera erretiratzea erabaki zuen.

Ez zen erraza izan erabaki hura hartzea; are gehiago, mingarria izan zen Patxirentzat irakaskuntza uztea, epe luze eta gogoangarri baten bukaera baitzen hura.

EUTGko mugetatik haratago ia ezagutu ez zuen Donostia utzi, eta 2001eko uztailean, berriro hain maitea duen Loiolara itzuli zen. 73 urteko Patxi guztiz inoiz utzi ez duen Azpeitira berriro.

Euskal Filologiako azken ikasleak ziren haien azterketak zuzendu, ipintzea hain zail egin izan zitzaion notak jarri eta ia berrogei urtetan bildu zituen

hainbat eta hainbat liburu, paper eta bestelakoak hartuta etorri zen Loiolara.

1945ean Loiolan Eliz ikasketak hasi zituen Patxi apaizgai gaztetxo hark, ez zuen berehalakoan pentsatuko, ezta amesten ausartuko ere, nolako gizona itzuliko zen Loiolara, ohore guztiekin erretiratzera. Hots, irakaskuntzatik erretiratzera —ez berehalakoan euskalgintzatik—.


Loiolako bizimodua

1960an aita Probintzialak Donostiako EUTGko Hizkuntza Eskolan, euskara ikasketak antolatzea eta aurrera eramatea ezarri zion eginkizun. 2001ean, berriz, Loiolako Artxibo Historikoaren arduradun izatea.

Artxibozainak artxibo historikoa zaintzea, dokumentuak aztertzea, baliodunak agerian jartzea eta merezi dutenak argitaratzea... du eginkizun.

Goizean 07:00ak aldera jaiki, otoitzak egin eta gosalduek ondoren, 08:30ak aldera hasten da lanean 13:00ak arte. Bazkal aurretik, otoitza eta eskariak egiteko etxeko kapera batean biltzen da gainerako komunitateko kideekin eta 13:30etan bazkaldu egiten du. Bazkalondoa, lo-kuluxka 15:30ak-16:00ak arte eta berriro lanari ekiten dio 19:00ak aldera arte. 19:00etan meza eman etxeko kapera batean, afaldu eta telebista pixkatxo batean ikusi ondoren 21:30ak aldera oheratzen da. Horrelakoak dira Patxiren aste-gunak Donostia utzi zuenetik.

Loiolara iritsi bezain laster, hain aberatsa den Loiolako artxiboan zokormiran hasiz ekin zion lana-



Patxi bere gelan ordenagailuan lanean. / JOSUNE ETXEBERRIA

ri. Hala dio Loiolako liburutegiko langile Olatz Berasategik: “Patxik Cardaberazen, Larramendiren edo Mendibururen idatziren bat aurkitu nahi du artxi-boan eta beti galdetzen dit ea horrelako zerbait ikusi ote dudan zokoren batean”.

Hain maiteak dituen autoreen idatziren baten bila zebilela, ordea, duela berrehun urte Errezilgo apaiz batek egindako sermoia aurkitu zuen; transkribatu eta artikulatu moduan *Euskera* aldizkarian argitaratu zuen: *Errexilko euskara duela 200 urte*.

Aspaldian ezin eginda zuen 1980an argitaraturiko *Hillen aldeko mintzaldia*, *Tukidides II liburua* grekotiko bere itzulpen lana, gaurko euskarara egokitzen aritu zen gero.

Lan hori amaitu orduko, Loiolako artxiboan dauden Patxi Etxeberria jesulagun andoaindarraren hamabost lanetatik bi, gaurko euskarara egokitu eta liburu moduan argitaratzeko paratu zituen. Bata, *Umetako oroitzak: kittarra*, argitara berria da. Bestea, *Izaten hasi*, argitara bidean.

Lan luze hori amaitu ostean zerbait zeharo ezberdina egin nahi izan zuen eta Loiolako etxeko historia jasotzen duen agirietan oinarrituta, *Loiolako bisitariak* artikulua idatzi zuen. Artikulu horretan 1844-1870 bitartean Loiolan izandako hainbat bisitari ezagunen berri eman zuen; hala nola, Luis Lucien Bonaparte euskalariarena eta Sabino Arana Goiri haurtxoarena bere etxekoekin.

Orain, enkarguz, San Inazioren gogo-jardunak euskaratzen ari da. Horrez gain, Lagundiko beste kide batzuek eta zenbait apaizek osatutako Kristau Teologiako aleen huts nimiñoak zuzentzen aritu da.

Bere gelan isilean egiten dituen lanez gain, badu astean behin oso gogoko duen bestelako lana: eibartar gazte bati latin eskolak ematea. Irakaskuntzatik erretiratu bazen ere, ezin izan zion uko egin latin eskola eskean zetorkion gazteari.

Izan ere, bere-berea du irakasletza, Xabierren oso gaztetxo zela aritu zen lehen aldiz irakasle eta ia berrogei urtean lanbide izan duen irakaskuntzatik erretiratuta ere, irakasle izaten jarraitzen du.

Baina Patxiren eguneroko jarduna guztiz ete-



Anai-arrebak, Patxi, Sebastian, Mari Carmen, Javier eta Manuel.
/ PATXI ALTUNA



Patxi eta senitartekoak. Ifigo iloba eta Bakarneren ezkontza egunean.
Oso maiteak ditu etxeoak Patxik. / PATXI ALTUNA

ten dutenak Euskaltzaindiko bilerak dira. Euskaltzaindiari bere sarrerakoan hitz eman ez ezik zin egin zion, Jainkoak indarra eta osasuna ematen zion bitartean lanean ariko zela, eta horri esaneko izaten darraio.

Euskaltzaindian Gramatika batzordeburu da eta lan taldekoekin hogeitaz egunez behin biltzen da euskal gramatikaren korapiloak askatzen ahalegintzeko. Euskara Batuko batzordean ere kide da, eta bilkuretara ere zintzo, eta bere emaria daramala, agertzen da. Batzordeetako bilkurez gain, Euskaltzaindiaren hileroko biltzarretan ere han izaten da, bertako gora-beheren berri jakiten eta ematen.

Euskaltzaindiko bileretara joan ez ezik, horietarako lana prestatuta eman behar izaten du Patxik. Esaterako, oraintxe bertan, Euskaltzaindiak aurten, 2003an, Agustin Cardaberaz mendeurrena ospatuko du eta Patxi hitzaldia prestatzen ari da.

Beti lanean eta beti lanez leporaino, egin ahala baino lan gehiago hartuta askotan. Lagundian aspalditik lagun eta egun bizilagun duen aita Patxi Olariagak aipatzen du: "Patxi, oso langilea da, bere lanari beti oso lotua egon dena. Denbora gutxi galdu duena bestelakotan". Aita Iñaki Cacho laguna ere iritzi berekoa da: "Noizean behin lana utzi eta jai egunen bat hartzen du. Baina jai hartzea ez zaio barrutik ateratzen. Hain da langilea! Leher egin arte lanean aritzen den horietakoa da".

Leher egitera arte aritzen den horietakoa bada ere, "Patxi, oso pozik bizi den pertsona da, bere jesulagun izatea ondo datorkiona. Oso gazterik sartu zen Lagundian eta harrezkero Lagundiak



'Aita Aranaren Egunaria' liburuaren aurkezpen eguneko argazkia. Patxi liburuarekin. / EGUNKARIA



Bilboko Deustuko Unibertsitatean, 2002an, Nerea Areetaren tesi defentsan epaimahaikide. Epaimahaikideak ezkerretik eskuinera, Orreaga Irraga, Patxi Altuna, Pello Salaburu, Patxi Goenaga eta Jose Manuel Etxebarria / PATXI ALTUNA


eman dion misioarekin beti pozik egon dena”, esaten du aita Patxi Olariagak.

Asteburuetan jai hartzen ez badaki ere, atse-denaldi luzeagoak egin ohi ditu. Goizetan egunero bezala lan egin eta gero bere gelako isiltasuna utzita, larunbat arratsaldeak Loiolako kideekin eta igande eguerdi-arratsaldeak etxekoekin ematen ditu.

Etxekoekin edota lagunekin egoteko, jai hartzen dituen uneetan ere, burua beti lanean izaten du. Nork zer nola esango ernai. Eta inoiz inork Patxik ulertu ez duen zerbait esanez gero, paper muturren batean jaso ohi du. Hala kontatzen du Maria Pilar Larrañaga Patxiren koinatak: “Betiko ohi-tura du Patxik hitzak eta esaerak apuntatzea. Ni, azkoitiarra naizenez, askotan galdetzen zidan: ‘Nola esan duzu?’. Eta nik errepikatu eta Patxik idatzi egiten zuen papertxoren batean. Gazteago zenean ere, amari edota Hilari Garrantzuriri, askotan galdetzen zien nola esango litzatekeen halako Azpeitian”.

Ia igandero izaten da anaia Manuelenean bazkaltzen. Festetan eta etxekoen ospakizunetan ere ez du ia inoiz huts egiten. Juan Miguel Arregi Loiolako erretoreak dioenez, “etxekoak oso maiteak ditu, eta bere herria ere bai. Patxi oso azpeitiarra da; hango berri jakin nahi izaten du eta Azpeitiko festetan, ospakizunetan.. han izaten ahalegintzen da”.

Sarritan egoten da, beraz, Patxi etxekoekin. Bisitara ere, noiznahi joaten baitzaizkio etxekoak. Baina baditu aspaldian ikusi ez dituen bi anaia: Sebastian eta Javier. Hauen berri gutun bidez edota telefonoz izaten du. Izan ere, Sebastian Venezuelan bizi da eta Javier Ameriketako Estatu Batuetan (Los



Angelesen), Lagundiak gartzetan hara bidali zituene-
tik. Baina aurtengoa urte handia izango da
Kanpaxkoan, bost urtean behin elkartzen diren bost
anai-arrebak, uztailen elkartzekoak direlako. "De-
nok, elkartzeko irrikaz gaude. Anaia Javier urtero

etortzen da, baina Sebastian bost urtean behin. Horregatik, pozez zorutzen gaude uda noiz iritsiko, etxeko sukaldean bildurik elkarren kontuak entzunez gozatzeko”, dio Mari Carmen arrebak.

Omenaldiak

Patxik irakaskuntzatik erretiratzea erabaki zuenetik, hainbat erakundek eta elkartek euskararen alorrean egin duen lanagatik omendu nahi izan du.

Hainbeste urtetan irakasle izan zuen Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letren fakultateak eskaini nahi izan zion lehen omenaldia. Patxi omentzeko, Deustuko Unibertsitateko irakasle diren, eta lehenagotik Patxiren ikasle izandako, Esther Zulaiakak eta Elixabet Perezek paratutako *Haizeak ez eramango* liburua argitaratu zuten. Ez zen hori izan fakultateak egin zion liburu itxurako lehen omenaldia: 1990ean, unibertsitatean zilarrezko ezteiak bete zituela eta, Elixabet Perezek eta Patri Urkizuk paratutako *Patxi Altunari omenaldia* argitaratu zuten.

Deustuko Unibertsitateak ez ezik, Unibertsitateko Euskal Irakasleen Elkarteak (EIRE) ere omendu nahi izan zuen. Durangon, 2002ko otsailaren 16an, izan zen ospakizunean, unibertsitatetik erretiratu berriak ziren zazpi irakasle *Irakasle emeritu* izendatu zituzten, euskarazko irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren alde egindako lan akademiko jasoa-gatik. Patxi Altunaz gain, Txillardegij, Gotzon Garate, Jesus Mari Lasagabaster, Pilar Lizeaga, Joan Otaegi, Karmele Rotaetxe eta Karmelo Zamalloak ere jaso zuten izendapena.

2001eko urriaren 20an, Baite Azpeitiko Euskara Elkarteak, bazkide kanpainaren aurkezpen ekitaldian Patxi Altuna eta Joxe Lizaso bertsolaria *Ohorezko bazkide* izendatu zituen. Izendapen horren bitartez, Baiteko kideek, Patxi Altunak eta Joxe Lizasok euskararen alde erakutsi duten jarrera onetsi nahi izan zuten. Une hunkigarriak bizi izan ziren ekitaldian, eta, batik bat, Patxik oroigarria jasotzean bere hitzalditxoan Pumorin hil berria zen Beñat Arrue azpeitiar mendizale gaztea gogora ekarri zuenean: “Gure ama Arrueneko dendan egon zen lanean urteetan, eta, beraz, Beñati eskaintzen diot saio hau”.

2001eko abenduaren 2an, berriz, Eusko Jauritzaren eta Azpeitiko Udalaren arteko hitzarmenaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko herrietan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia abiatu zen. Orduko aurkezpen ofizialean, Patxi Altuna eta Patxi Goenaga azpeitiar euskaltzain osoak omendu zituen Azpeitiko Udalak, ekitaldi ederra hura ere, Patxi Goenaga, Miren Azkarate eta Jean Haritxelhar Euskaltzaindiko kideak lagun zituela.

Unibertsitateak, euskalgintzak, bere herriak omendu nahi izan du Patxi euskararen irakaskuntzari eta ikerlanari eskainitako urteengatik eta, azken batean, euskarari egin dion ordainezineko ekarriagatik.

Hainbatek eta hainbatek bere *Euskara, hire laguna* metodoa jarraituz ikasi du euskaraz. Euskara batuaren arantzaz beteriko bidea abiatu zenetik ere, tinko aritu da euskara batuaren alde lanean. Eta unibertsitatean ere, Euskal Filologiaren sorrera-



Patxi Altuna, Tuteran, 2002ko urrian, Argia Ikastolan, Nafarroa Oinez-en bezperatan Euskaltzaindiak hara egin zuen bisitan. Hura izan zen Patxiren jendaurreko azken agerraldietakoa. / EGUNKARIA

ren eragile eta hainbat ikasleren gidari izan da. Nahikoa arrazoi omendua izateko.

Bide luzea egin du, beraz, Patxi Altunak eus-
kalgintzan, baina oraindik ere bide horri gogoz
darraio. ■

LIBURUAK

Euskera, ire laguna 1967.	Dechepare: métrica y pronunciación. 1979.	Laborantzako liburua 1986. Edizio kritikoa.	1995. Edizio kritikoa.
Ariketak, euskera ire laguna 1968.	Linguae Vasconum Primitiae de Bernard Etxepare (1945) 1980. Edizio kritikoa.	Bartolomé de Santa Teresa; Euskal errijetako olgueeta ta dantzen neurriz gatz-ozpinduba 1987. Edizio kritikoa.	Tartas, Juan de; Arima penitentearen occupatione devotac 1996.
Euskera, hire laguna, bizkaieraz 1969.	Hillen aldeko mintzaldia: Tukidides, II liburua 1980. Itzulpena.	Iturriaga, Agustin Pascual de; Jolasak 1987.	Aita Aranaren Egunaria 2000.
Euskera, hire laguna: bigarren liburua 1969.	Etxeberri Ziburukoa, loannes: Manual Devotionezcoa: lehen zatia 1981. Edizio kritikoa.	Tartas, Juan de; Onsa Hilceco Bidia(ren bi lehen kapituluak) 1987. Edizio kritikoa.	Euskal bertsogintza: XVIII, XIX, XXgarren mendeetako jesuita gazteek egin neurritzak, azterketa metrikoa 2000.
Euskal aditza. Batua? Baturakoa 1971.	Mendiburu, Sebastián; Mendibururen idazlan argitarabeak (I eta II) 1982. Edizio kritikoa.	Estefania Zabala, José Maria, S.J.: 'Maestro de vascos' 1990.	Raimundo Olabide, Bidegileak 2001.
Euskara, hire laguna: lehen liburua, euskara batuan 1972. Bigarren argitaraldia.	Ongui iltzen laguntzeco itzgiaic / Joakin Lizarraga 1984.	loannes de Haraneder: Jesu Christoren Evangelioa Saindua 1990.	Euskal Morfologiaren Historia 2001. Miren Azkaraterekin.
Mitxelenaren idazkan hautatuak 1972.	Duvoisin, Jean Baptiste;	Tartas, Juan de; Onsa hilceco Bidia, 1666	Umetako oroitzak: kittarra 2002
Etxepareren hiztegia (Lexicón Dechepariano) 1979.			Izaten hasi Argitara bidean.
Versificación de			

atzitako lanak



ARTIKULUAUAK *

Azpeitiko euskerea
aztertuz (1956)

Olabide A. ta
Kisto'ren Antz-bidea
(1958)

Larramendiren
hiztegi berria (1967)

Oihernarten metrika
(1979)

Etxepare herri poeta
(1981)

Etxeparerenak
nahas-mahas (1981)

Mendibururen
mintzaira (1981)

Mendibururen
inguruan (1982)

Azpitarteren hiztegi
argitaragabea
Loiolan (1985)

Bonapartek eta aita
Aranak elkarri egin
kartak (1985)

Azpeitiko euskal
ebakeraz (1985)

Orixek Jesusen
Lagundian emaniko
urteak (1989)

Aita Patxi Etxeberria
S.J. (1990)

Aita Larramendiren
bizitza (1990)

Larramendi
euskaldun berritua
(1990)

Larramendiren
hautzaroko urteak
(1991)

Oihernarten
neurtzetako
adiztegia (1994)

Lapurtarrak
Oihernartekin
haserre? (1994)

Oihenarten euskal
prosodia (1994)

Raimundo
Olabideren bizitza
eta lanak (1994)

Etxepareren 450.
urteurrenaren
hondakinak (1996)

Jose Inazio Arana
jesuitaren bizitza
(I eta II) (1997)

Jose Inazio Arana
jesuitaren bizitza. VI:
Loiolako obrak (1997)

Joan zen mendeko
jesuita gazteen
euskal olerkiak (1998)

Mr. d'Abbadie eta
Arana José Ignacio
(1998)

Errexilko euskara
duela 200 urte (2002)

* aukeratuak

Aurkibidea

1. Patxiren haurtzaroa herrian (1927-1939) **5-19**

- Eskola garaia 6
- Umetako jolasak 10
- Gerra Zibila Patxiren oroimenean 13
- Oso etxe elizkoiko semea 16
- Komunio handia 18

2. Xabierko ikasle urteak (1939-1945) **21-37**

- Xabierko bizimodua 22
- Denbora librean 25
- Aita Erretorearen jai egunak 29
- II. mundu gerrako oihartzunak 30
- Azterketak Iruñean 31
- Oporrak 32
- Erabaki beharra 35

3. Eliz ikasketen garaia (1945-1963) **39-103**

- Nobiziadoa: 1945-1947, Loiolan 40
- 'Umbilicus Siciliae nominatur' 43
- Oporrak 47
- Nobiziadoaren bigarren urtea 49
- Dotrina erakusten 50
- Junioradoa 1947-1950 52
- Perficit ikasketak Loiolan 56
- Filosofia ikasketak Oñan 58
- Euskararekin zaletzen 61
- Filologia Klasikoa Salamancan 63
- Salamancako bizimodua 66
- Euskalgintzarekin harremanetan 71
- 1956ko Arantzazuko Biltzarra 73

– Udak	75
– Salamancako azken urtea	76
– Teologia ikasketak	78
– Euskaltzale taldeak	79
– 1959ko uda	82
– Teologia Innsbruck-en	85
– Patxiren anaia Sebastian Innsbrucken	89
– Apaizte eguna	90
– Innsbruckeko azken urtea	96
– Hirugarren Probantza (Gandia, Espainia)	98

4. Donostian biziako urteak **105-149**

(1963-2001)

– Aita Patxi	105
– Aita Patxiren sermoi sonatuak	106
– Atxilotu eta Madrilera	109
– Carabanchelgo egonaldia	110
– Hizkuntza eskolan	114
– Filosofia eta Letretako Fakultatean	119
– Euskal Filologiaren sorrera (1976)	121
– ‘Versificación de Dechepare’	125
– Patxi Altuna euskaltzaina	128
– Arantzazuko Biltzarraren garrantzia (1968)	130
– Biltzarrak kalean izan zuen oihartzuna	134
– Biltzarrak Azpeitian izan zuen oihartzuna	136
– Bergara-Arrasateko Biltzarra (1978-1979)	141
– Leioako Biltzarra (1994)	144
– Patxiren euskaltzain izendatzea	146

5. Loiolara, etxe aldera **151-163**

(2001-...)

– Loiolako bizimodua	152
– Omenaldiak	160



Biografiak

- 1. Joxe Takolo** (Enekoitz Esnaola)
- 2. Angel Otaegi** (Iban Arregi)
- 3. Imanol Elias** (Mailo Oiarzabal)
- 4. Patxi Altuna** (Josune Etxeberria)

LAGUNTZAILEAK:



AZPEITIKO UDALA

Biele

Automatización de procesos



Argitaratzen dugun artikuluak laguntzaileak

En la edición de esta publicación colabora



kutxa

zuri esker
gracias a ti



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Universidad de
Deusto
San Sebastián

Deustuko
Unibertsitatea
Donostia

Azpeñiak euskaltzale prestu asko eman ditu. Horietako bat dugu Patxi Altuna, 'Kanpaxa', bere azpeñiartasunari sekula uko egin ez dion euskalari handia.

Elizgizon legez, ondo gogoratzen dituzte, adin batekoek behintzat, Donostiako Jesuiten elizan igande eguerdian ematen zituen mezak. Isunak eta gartzela ere ezagutu zituen sermoi haien ondorioz.

Haren euskaltzaletasuna ere nabarmena dugu. Zenbat ote dira 'Euskara, hire laguna' metodoari esker euskara ikasi dutenak! Zenbat, liburu horri esker irakasle bihurtuak! Patxi Altunak ez baitzuen bakarrik euskara irakasteko metodo moderno bat prestatu, metodo hori erabiltzeko irakasleak ere trebatu zituen. Euskalduntze-alfabetatze lantegi honetan, guztiz aipagarriak ditugu haren 'Euskal Aditza' eta 'Mitxelena-ren idazlan hautatuak' liburuak ere, bere ohiko zorrotzasunez argitaratuak. Garaian garaiko premiak erantzun nahirik, euskara irakatsi beharra somatu eta horretara jarri zituen bere indar guztiak. Euskaltzain gisa ere, aditz batua finkatzeko orduan, han ikusten dugu Altuna. Gramatika batzordearen lanetan ere urte mordoak darama lanean.

Baina Patxi Altuna zerbait bada, filologoa da. Euskal Filologiari unibertsitatean leku egiteko ordua iritsi zen noizbait eta berari zor zaio, hein handi batean, ikasketa horiek unibertsitatean leku izatea. Latineko irakasle izan da bizi guztian, baina Euskal Filologiari eskaini dizkio bere onenak. Testu zaharren paratzaile gisa, hirukote ederra prestatu zigun lehenbizi: 'Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación' (1979), 'Etxepare-ren hiztegia' (1979) eta 'Linguae Vasconum Primitiae' obraren edizio kritikoa (1980). Gero etorri ziren beste autore batzuk: Etxeberri Ziburukoa, Tartas, Mendiburu, Fr. Bartolome, eta abar.

Hainbat tesigileren gidari eta zuzendari ere izan dugu Patxi Altuna. Gaurko euskalari askok ezin ordainduzko zorra dugu harekin, zeren, azken batean, Patxi Altuna, irakasle trebe ez ezik, irakasleen irakasle izan baita, askoren maixu. Orain irakasletza utzia du, baina maixu izaten segituko du bizi osoan: MAXU, hizki handiz.

Patxi Goenaga

uztarria



AZPEITIKO KULTUR KOORDINADORA